

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria, atzera ala aurrera pausoa?

Nerea Asteinza Gotxi
Kriminologia Gradua UPV/EHU



ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

Gradu Amaierako Lana
Tutorea: Jokin Alberdi Bidaguren
Kurtsoa: 2020-2021

LABURDURAK ETA SIGLAK

EIB	Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria
ZK	Zigor Kodea
LO	Lege Organikoa
EK	Espainiar Konstituzioa
AK	Auzitegi Konstituzionala
AG	Auzitegi Gorena
AP	Audientzia Probintziala
TVR	Tabla de Variables de Riesgos
TCCP	Tabla de Concurrencia de Circunstancias Peculiares
ELOO	Espetxe Lege Orokor Organikoa
GEAU	Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala
BJKO	Botere Judizialeko Kontseilu Orokorra
EE	Espetxe Erreglamendua
EB	Europar Batasuna

LABURPENA

Gradu amaierako lan honen bitartez, 2015. urtean 1/2015 LOaren bidez gure ordenamenduan lehenengoz sartu zen Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren gaia kolokan jarri dugu. Horretarako, EIBaren aplikazioaren eragin positibo zein negatiboak kontutan hartuz, zigor berri honen eraginkortasuna eta beharrezakoa ikertu dira.

Hitz gakoak: EIB, zigorra, konstituzio-kontrakotasuna, berreziketa, bergizarteratzea.

RESUMEN

A través de este trabajo de fin de grado, ponemos en duda la pena de Prisión Permanente Revisable, que entró en vigor en nuestro ordenamiento judicial por primera vez en el 2015, regulada en la LO 1/2015. Para ello, teniendo en cuenta los efectos positivos y negativos que conlleva su aplicación, hemos investigado sobre su necesidad y efectividad.

Palabras clave: PPR, castigo, inconstitucionalidad, reeducación, reinserción.

ABSTRACT

Through this end-of-degree work, we want to question the penalty of Revisable Life Imprisonment, which came into force the Organic Law 1/2015, for the first time in 2015. Taking into account the positive and negative effects that its application entails, we have investigated its necessity and effectiveness.

Keywords: PRP, punishment, unconstitutionality, reeducation, reintegration.

Aurkibidea

LEHENENGO ATALA: Marko teorikoa

1. Sarrera	6
2. Marko legala Espainiako estatuan	7
2.1. Kontzeptua eta edukia	7
2.2. Testuinguru sozial eta politikoa Espainian	9
2.3. Izaera juridikoa	11
3. Europar Batasuneko beste herrialdeetako Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren erregulazioa	15
3.1. Italia	15
3.2. Frantzia	16
3.3. Alemania	17
3.4. Belgika	17
4. Aurrekari historikoak Espainian	18
4.1. Bilakaera historikoa	18
5. EIBren arauketa eta aplikazioa	21
5.1. 3.gradua eta irteera baimenak	22
5.2. Zigorren etetea eta baldintzapeko askatasuna	29
5.3. Berrikuspena	35
6. EIBaren konstituzio-kontrakotasuna	36
6.1. Legezkotasun printzipioaren urrapena	37
6.2. Berdintasun printzipioaren urrapena	42

6.3. Bergizarteratze printzipioaren urrapena	44
6.4. Proporzionaltasun printzipioaren urrapena	48
6.5. Gizatasun printzipioaren urrapena	50
6.6. Askatasun eskubidearen urrapena	52
7. Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria indarrean jartzearen aldeko eta kontrako	54
8. EIBra kondenatutako presoek bergizarteratzea	57

BIGARREN ATALA: Analisi kriminologikoa

1. Analisi kriminologikoa	65
1.1. Inkesta	66
1.2. Elkarrizketa	70
1.2.1. Abokatuari elkarrizketa	70
1.2.2. Magistratuari elkarrizketa	73
1.2.3. Martuteneko kartzelan lan egin izan duen erizainari elkarrizketa.....	74
1.2.4. 23 urtez preso egondako gaur eguneko abokatuari elkarrizketa.....	75
2. Ondorioak	79
Bibliografia	84
Eranskinak	90

1. Sarrera

Egia da aspaldiko kontua dela gure gizartean herritarrok jasaten dugun segurtasun eza. Honen arrazoi izango lirateke hain mediatikoak izan diren kasuak, Marta del Castillorena edota Alcasser kasua adibidez. Bizitzaren aurkako delituek, sexu askatasunaren kontrako delituek edota terrorismo kasuek sentimendu hau oraindik gehiago areagotu izan dute. Egoera honen aurrean, herritarren beldur sentimendu hori pixka bat baretzeko nahian, Estatuak legedia oraindik zigortzaileagoa egiten du, era horretara etsaitasun ikuspuntu horretatik eskubide eta askatasun publikoak zapalduz.

Herritarren aldetik emandako eskaera eta presio horien ondorioz, Estatuak 2003tik aurrera hainbat erreforma eta aldaketa egin izan ditu Zigor Kodean. Aldaketa horiek gehien bat zigor askatasun gabetzaileen muga eta baldintzak indartzeko helburuz izan dira. Lehen esan bezala, komunikabideen eraginaren ondorioz, oso mediatiko egin ziren krimenen aurrean azaldutako ardura eta beldurra izan ziren eragileak. Mari Luz Cortésen kasua izan zen aipatutako krimenatariko bat, 2008an ia 2 milioi sinadura batu ziren Alderdi Sozialistako Gobernuari garai hartan, bizi guztiko kartzela zigorraren ezarpena eskatzeko. Urte bat beranduago ere, Marta del Castilloren krimenarekin batera, beste milioi bat eta 600 mila sinadura lortu zituzten aipatutako zigor hori erreferendum baten bidez bozkatzeko. Egindako eskaera hori Alderdi Popularra Gobernuburuan izanda, Ministro Kontseiluak onartu zuen 2012an. Esan daiteke hau izan zela Espetxealdi Iraunkor Berriskugarriaren aurreko proiektua.

Era horretara, 2015eko uztailaren 1ean, 1/2015 LOaren bidez, 10/1995 LOren erreforma, sartu zen zigor hau indarrean. Zigor honek, deliturik larrienak, hau da, gizartearen ikuspegitik arriskutsuenak, beldurra eta babesgabetasuna eragiten dutenak aurreikusten ditu, hala nola, bortxaketa eta ondoren erailketa larriak, terrorismo delituak, etab.

Beraz, lan honen bitartez, gure Zigor Kodean Espetxealdi Iraunkor Berriskugarriaren beharrezkoa den ikertu nahi dut. Hau da, zigor honen bitartez helburutzat ditugun kondenatuaren bergizarteratze eta berreziketa behar bezala ematen diren aztertzea da xedea.

Aipatutako helburu horiek lortu ahal izateko, elkarrizketa eta inkesten bidez jaso dut informazioa. Inkestari dagokionez, galdera hauek bete dituen herritar ororen iritzia bildu dut. Elkarrizketei dagokienez, ordea, magistratu bati, Espetxe eta Zigor Zuzenbidean espezializatutako abokatu bati, Martuteneko espetxean lanean ibili izan den erizain bati eta 23 urtez kartzelan egon izan den gaur egungo abokatu bati zuzenduak izan dira. Era horretara, ezagutza eta esperientziadun profesionalen eta informazio orokorreko herritarren arteko alderaketa bat egin dut. Azkenean, ondorio bakarrera iritsiz.

2. Marko legala

2.1. Kontzeptua eta edukia

2015eko uztailaren 1ean, 1/2015 LOaren bidez indarrean sartutako Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriak, lehen esan bezala, gure gizartean eman daitezkeen deliturik larrienak aurreikusten ditu. Hau da, gizartearen ikuspegitik arriskutsuenak, beldurra, ezinegona eta babesgabetasun handiena eragiten dutenak. Zigor mota hau, Zigor Kodeko 33.2.artikuluaren zigor larri bezala tipifikatzen da. Honen aplikazioa supostu ezberdinetan aurreikusten da, zeintzuk zerrenda batean azaltzen diren Zigor Kodean. Lehenengo supostua Zigor Kodeko 140.artikuluko erailketa delitua burutzerakoan emango da, betiere, biktima 16 urte baino gazteagoa, edota bere adin, gaixotasun edota ezgaitasunen batengatik bereziki zaugarria denean (ZK-ko 140.1.1.art.). Bigarren supostua, erasotzaileak biktimarengan sexu askatasunaren aurkako delitu bat burutu ostean, erailtzea izango litzateke ZK-ko 140.1.2. art.). Hurrengo supostua burututako delitua organizazio edota talde kriminal bateko partaide batek egiten duenean emango litzateke (ZK-ko 140.1.3.art.). Zigor Kodeko 140 artikuluko bigarren atalean azaltzen den bezala, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria aplikatuko da ere bi pertsona edo gehiagoren erailketa burutzen baldin bada. Zigor honekin zigortuko dira baita ere Estatuburuaren edota Asturiasko printzesen heriotza ematen bada (ZK-ko 485.1. art.).

Komunitate Internazionalaren aurkako delituei dagokienez, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortuko da atzerriko estatuburu edota tratatu baten bidez babestutako pertsona baten heriotza ematen baldin bada (Zk-ko 605.1. art.). Zigor Kodeko 607.1.1. eta 607.1.2. artikuluetako larritasun handiko genozidioen kasuan eta batez ere gizadiaren aurkako krimenetan (ZK-ko 607 bis 2.1. art.) ere zigor hau aplikatuko da. Azkenengoz, zigor honen

tipifikazioak biltzen dituen ezaugarrien artean ere egongo dira 573 bis.1 1. artikuluan aurreikusitako erailketak, betiere, terrorismoa erabiliz.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortutako delituen preskripzioa hogeitertara aurreikusten da (ZK-ko 131.1.art.), genozidio, edota gizateriaren aurkako delituetan salbuetsiz. Esan beharra dago, terrorismo kasuetan, non erailketa bat burutzen den (ZK-ko 131.3.art.) ere ez dela preskripziorik emango. Hau da, kasu hauetan Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren preskripzioa 30 urtetara emango da (ZK-ko 133.1.art), preskriba ezinak direnak salbuetsiz (ZK-ko 133.2.art.) ¹.

Zigor honen erregulazioari dagokionez, oso kondena zorrotza dela esan daiteke, kasu honetan epaileak aginduz jokatu behar baitu, ez fakultatiboki. Epailearen baldintzatze honek determinazio judizialeko kontuak zailtzen ditu, gainera horietako kasu askotan hain zigor altuak izaterakoan, segurtasun juridikoa dudan jartzen duten elementu baloratiboak agertzen dira.

Zigor honen zehaztapenean, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria zigor sisteman salbuespen kasu bat dela esan daiteke. Zigor honen bai minimo zein maximoak zehaztugabeak direnez, baliteke garrantzitsuak diren egoera ezberdinak baloratzerakoan, hau da, egikaritza maila, eskuhartzea edota aringarri eta astungarrien zehaztapenean arazoak sortzea. Horregatik legegileak espezifikoki aurreikusi behar izan du kondena horri graduan dagokion zigor minimoa. Izan ere, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrian kartzela zigorraren gutxieneko iraupena zehaztugabea denez, ezin da Zigor Kodeko 70.2. artikuluan ageri den bezala kudeatu. Horren ondorioz, Zigor Kodeko 70.4. artikuluan EIB zigorraren kasuetan kondenaren gutxieneko iraupena hogeitertatik 30 urtera arteko izan daiteke. Zigor honen gutxieneko iraupenaren inguruan eztabaida mordoa sortu izan dira, izan ere, kasu askotan kondenaren iraupen minimo hori jatorrizko espetxe zigorra baino luzeagoa izaten da. Hala ere, orokorrean, honen etetea hogeita bost urtetara aurreikusten da. Espetxealdi Iraunkor

¹ Martínez, Guerra A., (2018ko urtarrila), Revista de Derecho Penal y Criminología, 3.a Época, 86-87.orrialdeak.

Berrikusgarrian, honen gutxieneko iraupenarekin gertatzen den bezala, goiko mugarekin ere arazo berdinak sortzen dira ².

2.2. Testuinguru sozial eta politikoa Espainian

Sarreran aipatzen den bezala, 80. hamarkadatik izandako gertaera gaitzesgarri askoren ondorioz, gizarteak instituzioen aurrean etsaitasun klima bat eratu zuen, zigorren zurruntzea, espetxe onuren ezabatzea eta biziarteko espetxe zigorra erregulatzea eskatuz. Gertaera higuigarri horien adibide izango dira hainbat erailketa, adingabeekiko bortxaketa eta bahiketak, terrorismoarekin lotutako delituak, etab. Era horretara, Alcasserreko nesken senideek 1993an, Sandra Palorenak 2003an, Mari Luzenak 2008an edota Marta del Castillorenak 2010ean, beste hainbat asoziazioekin elkarlanean, Gobernu zentralari maiz aurkeztu zioten, hainbat ekimen popularrekin batera biziarteko espetxe zigorraren erregulazioaren eta zigorren zurruntzearen eskakizuna.

Doktrinari dagokionez, 2000. urteko azaroan Rodríguez Ramosek El Paísen argitaratutako bere “Constitucionalidad de la pena perpetua” artikuluan honako hau dio: *“Si de verdad los políticos con poder legislativo quisieran tranquilizar a la sociedad española, ayudar a las víctimas del terrorismo y a sus parientes y amigos, amedrentar más a los terroristas y ponerles en una tesitura de forzar su reinserción social renunciando a su barbarie al ser sometido a tratamiento penitenciario, si de verdad partieran de estas premisas tendrían que introducir la prisión perpetua en el Código Penal, con una cláusula de revisión de la sentencia a los diez años, que autorice remisión parcial de la pena impuesta y a reconvertir la en una pena de privación temporal de libertad, con abono del tiempo cumplido y con la posibilidad de gozar desde entonces el régimen penitenciario progresivo en su plenitud, incluyendo la libertad condicional para el cumplimiento en libertad del último cuarto de la condena ya temporalizada”* ³.

² Cervelló Donderis, V., (2015) Marco legal: La reforma penal de 2015, Concepto y contenido, Valencia, España: Tirant lo blanch, 184. Orrialdea.

³ Cervelló Donderis, V., (2015), Marco legal: La reforma penal de 2015, Contexto social y político: “las razones del legislador”, *Prisión perpetua y de larga duración*, Valencia, España: Tirant lo blanch, 173. orrialdea.

Rodríguez Ramosen ideia hau jarraituz, Alderdi Popularrak bere hauteskunde programetan argi utzi du espetxe zigorrak gogortzeko eta kondenak osorik eta efektiboki betezeko asmoa zein den. 2008an bizi arteko espetxe zigorra indarrean sartzeko pausuak eman ziren, izan ere, doktrina Parota agindu legal bilakatu zuten, 197/2006 AGren sententziaren interpretazioa bilduz. Hau batez ere, terrorismo, erailketa eta bortxaketetan ematen zen. Planteamendu honetatik abiatuz, delitu hauen kasuan Zigor Kodeko 78. artikulua derrigorrezko eta inposatutako agindu bilakatu nahi da, berrikuspenik eman gabe. Horrenbestez, kontuan izanda programa honek ez zuela bizi arteko espetxe zigorraren aplikazioa aurreikusten, deigarria izan zen 5/2010 LOren bitartez, Zigor Kodearen erreforman lehenengo aldiz bizi arteko espetxe zigorra erregulatzen saiatu izana. Horretarako, oso larriak ziren delituetan aplikagarri egin zuten, atentatu terroristetan, bortxaketa baten ondoriozko erailketan, atzerriko edota nazio barruko estatuburuaren erailketan, gizateriaren aurkako delituetan edo genozidioetan. Hau 384 zenbakiko zuzenketaren bidez egin zen Alderdi Popularrak aurkeztutako erreforma proiektuan ⁴.

Kasu honetan, bizi arteko espetxealdi berrikusgarria oso murriztailea zen, izan ere, 20 urte bete arte ez zen inongo aringarririk aplikatzen. Honen salbuespen izango dira arrazoi gizatiarrak. Zigor honek ez zituen auzitegiak berrikuspena egiteko aurreikusten zituen irizpideak barnebiltzen, gainera, berrikuspena ezeztatzerakoan, ez zen berriz ere berrikusteko gutxieneko ete bat zehazten. Horrenbestez, aipatutako baldintza hauek kondena hau bizi arteko zigor bezala ulertzea eragiten dute.

Honetaz gain, bai berreziketa eta bergizarteratzeari dagokienez inkonstituzionalitate ezaugarriak bistaratzen dira. Izan ere, zigor mota honetara kondenatutako pertsonak, ezin izango dute kanpo munduarekin inongo harremanik ez kontakturik izan gutxienez hogeitun urte kartzelan pasatu arte. Behin aipatutako berrikuspen hori gainditu ostean, lehenagoko askatasun frogarik izan gabe, zigor honetara kondenatutako presoek askatasuna lor dezakete. Puntu hau espetxe ikuspuntutik desegokia dela esan daiteke.

Posizio honen defentsan, kontrako alderdiak bizi arteko zigor bat ez zelaren pentsamenduarekin jarraitzen zuen. Izan ere, hauen ustetan zigor honek bermatzen zuen

⁴ Cervelló Donderis, (2015), V., Marco legal: La reforma penal de 2015, Contexto social y político: “las razones del legislador”, *Prisión perpetua y de larga duración*, Valencia, España: Tirant lo blanch, 174. orrialdea.

berrikuspen horrek beste aurrekari historiko batzuetatik aldentzen zuen, horren zigortzailea ez eginez. Hauen iritziz, kondena hau berreziketa eta bergizarteratzera bideratuta zegoenez, ez zuen inongo inkonstituzionalitaterik sortzen. Horretaz gain, kondena hau ezartzearen bultzatzaileak, herritarren artean egindako inkestetan oinarritzen dira, izan ere, hauen ustetan herriaren iritziz kondena hau beharrezkoa da.

Aipatutako proposamen honen ezeztapena ematerakoan, alderdi popularrak erreforma proiektuaren azken bozkaketari uko egitea erabaki zuen. Egoera honetan, aipagarria egiten da alderdi popularraren bizi arteko espetxe zigor berrikusgarriaren erregulazioaren proposamena. Izan ere, jada garai horretan, 2009. urtetik ETako atentatuen zifrak asko murriztu ziren, 2011ko urtarrilean euskal banda armatu honen amaiera helduz. Gertaera hauekin batera, portaera terrorista horien murrizketa ematerakoan, hain garrantzitsua zen portaera deliktiboaren aurrezaintza orokor positibo zein negatiboaren eragina galdu egiten da⁵.

Horrenbestez, garai hartan horren beldurgarri eta garrantzitsuak ziren portaera deliktibo horiek desagertzerakoan, suposatzen da ez zela sistema punitiboaren konfidantzaren berrindartzea eman behar. Kasu honetan, mendekuzko helburuen bila zebiltzala pentsatu dezakegu, politika kriminal integratzaitetik oso urrun geratzen zirenak.

Testuinguru honetan, aipatzekoa da 1978ko Konstituzioarekin batera heriotza zigorraren indargabetzea ematerakoan sortutako eragina. Izan ere, aipatu beharra dago zigor honen indargabetzea eman zenean, heriotzen zifra nabarmenki murriztu zela, indarrean zegoenean, ordea, heriotzen %48 hazi zen, nahiz eta gero tendentzia hau beherantza joan ⁶.

2.3. Izaera juridikoa

2010. urteko Zigor Kodeko erreforman biziarteko espetxe zigorra erregulatzeko saiakeran, Talde Popularraren proposamena Zigor Kodeko 33. artikuluan biziarteko espetxe

⁵ Carbonell Mateu, J.C. “El proyecto de reforma del Código Penal: un retroceso histórico. *Al revés y al derecho*, 2013ko abenduak 18.

⁶ Cuerda Riezu, A., (2011), *La cadena perpetua y las penas muy largas de prisión: por qué son inconstitucionales en España*, Atelier, Barcelona, 51-52- orrialdeak.

zigor berrikusgarria ezartzea zen. Pertsona talde horrek erabilitako argudioak beste batzuen artean, aurrezaintzarekin lotutakoak dira, hau da, arrezaintza orokorraren kasuan “*quien la hace la paga*”⁷ esaldiarekin egindakoagatik ordaintzea eskatu nahi dute. Aurrezaintza bereziari dagokionez, hauen ustez terroristak diren pertsonak, pederastak eta bortxatzaileak beraien bizitzako egun guztietan damutu behar izango dira egindako portaeragatik. Beraz, aurrezaintza orokorraren bitartez erreferentziazko modelo bat erakutsi nahi da gizartean, berezian ordea, inokuizazioa eta ordainketa moralaen bidez zigortzea.

Hala ere, Talde Popular honek zigorrari emandako bizi arteko espetxe zigor berrikusgarriaren izena baliteke pixka bat kontraesankorra izatea. Izan ere, bizi artekoa izaterakoan zentzuz kanpoko da berrikusgarria izatea. Horrenbestez, ikuspuntu honetatik jota baliteke legegileak helbur populistekin “bizi arteko” izendapen hori eman izana eskakizun sozialak eta beldurrak baretzeko. Beste alde batetik, berrikusgarria hitzarekin izendatzen du, baliteke zigor honek sortu dezakeen inkonstituzionalitea babesteko egitea.

Zigor honen erregulazioaren hurrengo pausua 2012ko uztailaren Zigor Kodearen erreformaren aurreproiektuan ematen da. Zigor honen aipatutako izendapena, hau da, bizi arteko espetxe zigor berrikusgarria, moldatu egiten dute. Bizi arteko espetxe zigor berrikusgarritik Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria izendatzera pasatzen da legegilea. Aldaketa honekin ez dira soilik lehenago azaldutako kontraesanak eramaten, baizik eta oraindik zentzu gabekoak diren ideiak gehitzen dira. Ríos Martínek dioenez, zigor honi ematen zaion izendapen berria okerra da, izan ere, zigorrak bizi artekoak dira eta kondenatuak direnak pertsonak, ez kondenak.

Esan daiteke Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria zigor bezala enkajatzeko pixka bat zaila izatea, horrenbestez kondena hau ez zen Zigor Kodeko 33. artikuluko zigorren zerrendan agertzen. Era horretara, zigor honen ezaugarri batzuk soilik erregulatzen ziren, hala nola, baldintzapeko askatasuna. Lehenago esan bezala, salbuespenezko larritasuneko kasuetan aplikatzeko zigorra da, erailketa larrietan, terrorismo delituetan, etab. Argi dagoena da zigor honegatik preso dagoen pertsonak denbora minimo bat pasatu behar duela kartzelan, ondoren auzitegi kolegiatu batek kondenatuaren eta delituaren kondizioak baloratzeko eta presoaren egoera pertsonala berrikusteko. Balorazio eta berrikuspen horrekin batera, auzitegi

⁷ Ríos Martín, J.C. (2013), *La prisión perpetua en España. Razones de su ilegitimidad ética y su inconstitucionalidad*. San Sebastián.

kolegiatuak baldintzapeko askatasuna dagokien baldintzekin eman edota etorkizun baterako berrikuspen epea ezartzen da.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigor honen izendapenean ematen den homogeneitate faltagatik eta zigorren zerrendako agertze gabeziagatik, 2012ko urrian aurkeztutako testuaren aldaketa eman zen.

2013ko urrian egindako Zigor Kodearen erreformaren proiektua, nahiz eta iraupen zehaztu gabeko bizi arteko espetxe zigor berrikusgarria izan, azkenean zigor autonomo bezala determinatu zen. Zigor independente bat bezala ulertu ezean, hau da, bere ezaugarri ororekin. Bere iraupen efektiboa beti gutxienez 25 urtetakoa izango da eta bere espetxe onurak, hau da, irtetze baimenak blokeatuta izango ditu, izan ere, hirugarren graduan egoteko mugatuta aurkitzen dira kondena hau betetzen dutenak. Behin hogeita bost urte pasa ondoren, epaia ematen duen auzitegiaren eskutik kondenaren berrikuspena egingo da bi urtero gehienez. Berrikuspen horretan zigorraren etetea bost eta hamar urte artean emango den erabakiko da, erabaki hau ezeztagarria izanik.

Modelo berri honekin bizi arteko espetxe zigor berrikusgarria zigor askatasun gabetzaile oso larri bezala ulertzen da. Zigor honek ez du eduki zehazturik ezta autonomiarik, gainera honen betearaztea eta espetxe onurak Zigor Kodean erregulatzen dira.

Zigor honen definizio nahiko eskasa egin zenez, honen betearaztearen ezaugarrien inguruan jakiteko Zigor Kodeko arau ezberdinetara jo behar izango da, zehazki Zigor Kodeko 36, 92 eta 98 bis artikuluetara. Azken finean zehaztu gabeko zigor askatasun gabetzaile bati buruz hitz egiten ari gara, zeinek hirugarren gradua, irteera baimenak eta baldintzapeko askatasuna lortzeko epeak aurretiaz Zigor Kodean zehaztuta dituen.

Azkenik, 2015eko martxoaren 30eko 1/2015 LOren erreforman, Espainian espetxealdi iraunkor berrikusgarriaren erregulazioaren bitartez bizi arteko espetxe zigorra berreskuratzeko ideia sartu zen. Hau lehen esan bezala zigor larri bezala ulertzen da, eta Zigor Kodeko 33. artikuluan barnebilduz. Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren garrantziaz gain, esan beharrekoa da bere edukiari dagokionez oraindik osatu gabe dagoela. Horrenbestez, 2013ko proiektuan egin zen bezala, argitasun falta dela eta, interpreteak arau legal ezberdinetara jo behar du honen ezaugarriak ulertu ahal izateko.

Zigor Kodeko 35. artikuluan aurreikusten den bezala, nahiz eta Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria zigor askatasun gabetzailea izan, ez da espetxe zigor arruntaren berdina, izan ere hainbat dira hauen artean aurkitzen diren ezberdintasunak. Desberdintasun hauen oinarria zigorraren iraupenean aurkitzen da, zeinek gerora zigorraren preskripzioan edota indultuan eragin dezakeena. Zigor hauen betearazpenari dagokionez, ezberdintasunak askoz anitzagoak dira. Izan ere, betearazpenean epeez baldintzatutako figurak espresuki legegilearen eskutik batu izan dira, ostean ezin izango lirateke zehaztu ezta lortu, hala nola, irteera baimenak, hirugarren gradua, etab. Baldintzapeko askatasunari dagokionez ere desberdintasunak aurkitzen dira, hau da, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrian ezin da kondenaren azken partea identifikatu, honen epea ez baitago sententzian zehaztuta. Aipatutako puntu hauetaz gain, indibidualizazio zientifikoaren sistemaren inguruan ere ezberdintasunak aurkituko dira, ez da ematen, legegileak zigor mota honetan espetxe sailkapenari dagokionez baldintza espezifikoa eskatzen baititu.

Zigor mota honen iraupenari dagokionez ere, ezberdintasun anitzak sortzen dira. Kasu honetan, kondenaren iraupena kondenatuaren bergizarteratzeko gaitasunaren arabera izango da. Beraz, aipatutako puntu hauek kontuan izanda, jende askok Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorra lehenago heriotza zigorrarekin harremantzen du, espetxe zigor arruntarekin baino. Harreman hau, zigor honetara kondenatutako pertsonak beraien zigorraren betearazpenaren zehaztasun faltagatik eta askatasunarekiko itxaropen txikiagatik jasaten duten sufrimenduan oinarritzen da.

Aipatutako erregulazio honekin batera, segurtasun juridikoaren aurkako atentatu larri bat eragin da, izan ere, espetxealdi iraunkorra espetxe zigor arruntarekin alderatuz, kuantitatibo eta kualitatiboki ezberdina da. Horren ondorioz, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren erregulazio zehatzagoa eta egokiagoa exijitzen da, izan ere, nahiz eta legegileak zigor honi izen hau jarri, erregulazio mugatuko espetxe erreglamendu bat dirudien zigor iraunkor bat dirudi. Zeinen helburua zigorrak gogortzea den, eta ez kodena beteko duten pertsonen marko juridiko bermatzailea erregulatzea ⁸.

⁸ Cervelló Donderis, V., (2015), Marco legal: La reforma penal de 2015, Naturaleza jurídica, Valencia, España: Tirant lo blanch, 179-184.orrialdeak.

3. Europar Batasuneko beste herrialdeetako Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren erregulazioa

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorra Espainian bezala, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan ere presente dago. Hala ere, herrialde bakoitzean zigor honen erregulazioa, aplikaziorako epe eta baldintzak oso ezberdinak dira kasuan kasu. Orain Italia, Frantzia, Alemania eta Belgikan daramaten Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren konfigurazio legalaz arituko gara.

3.1. Italia

Italiar ordenamenduko deliturik larriena “ergastoloa” da. Hau, italiar Zigor Kodeko 17. artikuluan barnebiltzen da. Zigor iraunkor honek gaueko isolamenduan eta derrigortutako lanetan daza, berrikuspenerako aukerarik izan gabe. Era horretara, baldintzapeko askatasunaz gozatu ahal izateko gutxienez 26 urte pasatu behar izango ditu kondenatuak kartzelan. Baldintzapeko askatasuna emateko agintari judiziala organo eskuduna izango da, bete beharreko baldintzak italiar Zigor Kodeko 176 a) artikuluan biltzen direlarik.

Espainian Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren erregulazioarekin alderatzeko asmoz, Italiar Zigor Kodeko 176 a). artikulua honako hau dio:

- a) Zigorren betearazpenean damua erakusten duen jarrera eta portaera izatea.
- b) Delituaren betebeharrak zibilak betetzea. Horiek aurrera eramateko ezgaitasun edota ezintasun bat izanez gero salbuetsiz ⁹.

Kasu honetan, justiziarekin kolaboratzea eta elkar lanean aritzeak, espetxetik aipatutako 26 urteko epean baino lehenago ateratzeko aukera izango du ¹⁰.

⁹ Italiar Zigor Kodeko 176 a). artikulua, 3. orrialdea.

¹⁰ Oliver Olmo, P. eta Gargallo Vaamonde, L., “Ochenta años de cadena perpetua en España (1848-1928), a la luz del presente”, La Cadena Perpetua en España: Fuentes para la Investigación Histórica, Universidad de Castilla-La Mancha, Ciudad Real, 2016, 22. orrialdea.

3.2. Frantzia

Frantzian Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria 1994. urte amaieran sartu zen indarrean. Garai horretan François Mitterrand sozialista gobernuburuan zelarik, herrialdean bertan inpaktu handia izan zuen hamahiru urteko ume baten bortxaketa eta erailketa bat eman zen.¹¹

Frantzian zigor mota honen izendapena “itxialdi kriminala” dela esan daiteke. Zigor hau, Frantziar Zigor Kodeko 131-1. 1 a) artikuluan barnebiltzen da¹². Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria oso larritasun handiko delituetan aplikatzen da, hala nola, hamabost urte baino gazteagoak diren ume edota autoritateen erailketan eta torturaz osatutako bortxaketetan. Frantziar Zigor Kodeko 132-23 artikulua arabera, kondenaren berrikuspena ez da 18 edota 22 urte pasatu arte. Hala ere, aipatutako baldintza honek ez du aurretiaz gozatu daitekeen erdi askatasun hori oztopatzen.

Hala ere, zigor honen aurrean hainbat alternatiba ezberdin aurkitu ditzazkegu. Horien adibide izango da, frantziar Zigor Kodeko 720-4. artikuluan jasotzen dena. Honen arabera, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorra hogeita hamar urteko espetxe zigorrak ordezkatu daiteke, betiere, kondenatua den pertsonak arazo psikologikoak direla eta ezin duenean kartzelan bizikidetzatza egoki bat eraman. Horretaz gain, bost urteko laburketa ematen da zigortua den pertsonak justiziarekin kolaboratzen baldin badu, zigorraren etenaldia eman daiteke gaixotasun larri edota bizitzarekiko arriskugarritasuna badago eta kondenatuaren indulto eman ahal da Errepublikako gobernuburuaren eskutik. Hala ere, baldintzapeko askatasuna zgozatu ahal izateko baldintza batzuk bete behar dira, hala nola, ikasketa batzuk burutzea, tratamendu mediko bat jarraitzea, biktimen indemnizazioa, etab¹³.

¹¹ El asesino de una niña de 13 años en Francia ya violó a otra menor de la misma edad en 1994, La Vanguardia, 2018ko maiatzak 1. Online eskuragarri: <https://www.lavanguardia.com/sucesos/20180501/443170024193/asesino-nina-13-anos-francia-reincidente-david-ramault.html>

¹² Frantziar Zigor Kodea. Code Pénal (Version consolidée au 25 mars 2019). Itzulpena online eskuragarri: <http://www.wipo.int/wipolex/es/details.jsp?id=14297>

¹³ Oliver Olmo, P. eta Gargallo Vaamonde, L., “Ochenta años de cadena perpetua en España (1848-1928), a la luz del presente”, La Cadena Perpetua en España: Fuentes para la Investigación Histórica, Universidad de Castilla-La Mancha, Ciudad Real, 2016, 19. orrialdea.

3.3. Alemania

Alemaniar Zigor Kodean bere 38. paragrafoan biltzen da zigor askatasun gabetzaile iraunkorraren kontzeptua. Zigor absolutu batetaz hitzegiten ari gara, hau da, ezin diezaiokegu inongo aringarririk aplikatu, eta erailketa delituetarako, genozidio kasu larrietarako, adostutako hilketa larrietarako eta gidariarekiko indarkeriazko lapurketeterako aurreikusten da ¹⁴.

Hala ere, Alemaniako ordenamenduaren arabera, berrikuspena arau orokor bat da eta ez salbuespenezkoa. Berrikuspena eman ahal izateko, kondenatuak gutxienez hamabost urte pasatu beharko ditu kartzelan, aparteko baldintza batzuk betetzeaz gain ¹⁵. Gutxieneko eskakizun horiek honako hauek dira: kondenatuaren egoerak edo zirkunstantziek zigorraren betearazpen osoa ez betearaztea, iraupen zehaztuko zigor askatasun gabetzaileko aurretiazko baldintzak betetzea, batez ere, segurtasun publikoko interes orokorrerako bizikidetzarako. Horretaz gain, aipatu beharra dago askatasunera begirako erabaki judizialak kontutan izango dituela indibiduoaren ezaugarri pertsonalak, burututako delituaren zirkunstantziak eta kaltetutako onasun juridikoa.

Baldintza hauek ez betez gero, eta eskakizunaren ezeztapena ematen bada, auzitegiak bi urte baino gutxiagoko iraupeneko epea jarriko du eskakizun berria egiteko.

3.4. Belgika

Belgikan ere Espetxealdi iraunkor Berrikusgarriaren zigorra aurreikusten da. Berrikuspena emateko espetxean pasatu beharreko denbora hamabost urtetakoa da, hala ere, hogeita hiruko muga izango du berrerorleen kasuan. Orokorrean, zigor hau ez da oso ohikoa, bortxaketa eta erailketa larrietan aplikatuz. Baldintzapeko askatasunari dagokionez, hainbat

¹⁴ Sánchez Robert, M. J., (2016), “La prisión permanente revisable en las legislaciones española y alemana, análisis comparativo”, Anales de Derecho, Vol. 34, 1.zk. Online eskuragarri: <https://revistas.um.es/analesderecho/article/view/247661/193071>

¹⁵ López Díaz, C., Alemaniar Zigor Kodea, “Código Penal Alemán del 15 de mayo de 1871, con la última reforma del 31 de enero de 1998”. Online eskuragarri: https://perso.unifr.ch/derechopenal/assets/files/legislacion/l_20080616_02.pdf

epailez osatutako auzitegi baten esku geratzen da, espetxeetako funtzionario baten eta ordezkari sozial baten partaidetzaz baliaturik ¹⁶.

4. Aurrekari historikoak Espainian

4.1. Bilakaera historikoa

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren marko historikoa, nahiz eta gure ordenamendu juridikoaren neurri berri bat dela pentsatu, oso kontzeptu zabala da. Gure zigor sistemaren historian zehar, gure gaur eguneko Zigor Sistemak batzen dituen oso antzekoak diren neurriak egon izan dira ¹⁷.

1822ko Zigor Kodean agertu zen lehenengo aldiz aipatutako neurri hauetariko bat, nahiz eta kode berean Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren oso antzekoak diren beste neurri batzuk dauden, adibidez betiereko lanak (*trabajos perpetuos*). Garai horretako kode horren 28.artikuluan zioen bezala, neurri hori soilik zitzaien aplikagarri foru militar eta eliztarrei. Era horretara, neurri honetara zigortuak ziren pertsonak, gizartetik banatu eta bizitza osorako aparteko establezimendu batean atxilotzen zituzten kateekin. Aipatutako kate hau beste kondenatu batekin elkarbanatu zezaketen, edota bestela indibidualki eramanez. Esan beharra dago, preso hauek erlaxatzeko edota deskantsatzeko oso tarte txikiak zituztela, jada estipulatuak, eta lana ezin zuten inondik inora utzi, gaixotasun arrazoiak izanez gero bakarrik.

Betiereko lan hauen katea, biziarteko kartzela (*cadena perpetua*) zigorraren aurrekaria dela esan daiteke. Cuerda Riezu autorearen arabera, zigor honen bitartez, biziarteko espetxe zigorrari egiten zaio erreferentzia, horren arrazoi katea objektu materiala izatea ¹⁸.

¹⁶ Oliver Olmo, P. eta Gargallo Vaamonde, L., (2016), “Ochenta años de cadena perpetua en España (1848-1928), a la luz del presente”, *La Cadena Perpetua en España: Fuentes para la Investigación Histórica*, Universidad de Castilla-La Mancha, Ciudad Real, 18. orrialdea.

¹⁷ Palladino Pellón & Asociados (2016), *Antecedentes Históricos de la Prisión Permanente Revisable*, online eskuragarri:

<https://www.palladinopellonabogados.com/antecedentes-historicos-de-la-prision-permanente-revisableen-espana/>

¹⁸ Cuerda Riezu A., (2011), “Cadena Perpetua y las Penas Muy Largas de Prisión”, *Atelier*, Barcelona, 16. orrialdea.

Aipatu beharra dago, betiereko lan hauek ezin zituztela hamazazpi urte baino gazteagoak ziren pertsonen, hirurogeita hamar urte baino zaharragoek ezta emakumeek bete. Esatekoa da ere, damua erakustearen bitartez posible zela kondenaz libratzea eta ondorioz erbesteratua izatea.

1822.urteko Zigor Kodeak zeresan handia ekarri zuen, izan ere, presoek kondena betetzeko erabiltzen zituzten tokiak edo establezimenduak ez ziren existitzen eta presoek kartzelaratuta jarraitzen zuten. Kode honen ondorioz, harremantzen da zigor hau nabarmenki betiereko espetxe-zigorrarekin.

1848ko Zigor Kodean jada aipatutako betiereko espetxe-zigorra indarrean agertzen da, zeinek biziarteko askatasuna gabetzen edo kentzen duen. Gainera, zigor mota hau nabarmendua zen presoek hanketatik gerrira edota beste kondenatu bati lotuta kateak eraman behar zituztelako.

Aipatutako biziarteko espetxealdi-zigorraren aplikazioa sendatu ezina zen portaera edota delitu bat gauzatu izanagatik ematen zen. Hau da, sortutako kalte konponezin bat gauzatzeagatik jasotako zigor konpongaitza.

Zigor Kodeak zigor honi esanahi bat ematerakoan, honako dau zioen: biziarteko espetxe zigorrera kondenatutako presoek lan neketsu eta penagarriak bete beharko dituzte, betiere Estatuaren onurarako. Presoek hankatik gerrira edota beste preso bati lotuta kate bat eraman beharko dute. Gainera, kondenatuak aurkitzen diren establezimendutik kanpo ezin izango dute ezer jaso.

Honen ostean moldatu zen Zigor Kodea 1870.urtekoa izan zen. Hemen, aipatutako biziarteko espetxe-zigorrak berdin planteatuta jarraitzen du, hau da, kondena betetzeko forma, helburua eta baldintzak (sexua, adina) berdinak dira. Hala ere, Zigor Kode honetan ematen den aldaketa berria indultua izango da, zein momentu horretan sartzen den indarrean lehenengoz. Aipatutako pieza berri hau, aplikagarri zen 30 urtez baino gehiago kondenatuta pasatako kondenatuen kasuan, hala ere, honek ere bazituen bere salbuespenak, hala nola, portaera txarra edota arriskugarritasun handiko jokabideak izaterakoan presoak indultu hori merezi ez zuela erabakitzen zen.

Aipatutako Zigor Kode honetan agertzen da azkenengoz bizi arteko espetxe-zigorra “bizi osorako” zigor askatasun gabetzaile bezala. Hemendik aurrera, zigor hau kondena normal bat bezala erabiltzen da, baina ez presoak beraien artean lotzeko erabiltzen ziren hanketako kateei erreferentzia egiteko, hil arteko bizi osorako askatasun gabetzeari erreferentzia egiteko baizik.

1928ko Zigor Kodea indarrean sartu aurretik, espainiar diktadurako 5 urteen omenaldi bezala, indultuaren lege-dekretu bat ateratzen da prentsa delituengatik, lesio ez arriskutsuengatik edota delitu ez larriengatik kondenaturiko presoen onurarako. Gainera, aipatutako lege-dekretu honek Zigor Kode berriak jasotzen ez zituen bestelako delituak ere barnebiltzen zituen, betiere beraien onurarako. Horretaz gain, aipatu beharra dago biziarteko espetxe-zigorrera kondenatutako presoen kasuan beraien zigorraren ehuneko hamarra murrizten zela.

Aipatu beharra dago baita, azken Zigor Kode honetan biziarteko espetxe-zigorra ezabatu egiten dela. Horrenbestez, hogeita hamar urteko gehieneko mugarekin beste espetxe-zigor bat gehiago izango litzateke. Era honetara, garai hartako zigorrak bi hilabete eta egun bat eta hogeita hamar urte bitartean irauten zuten. Honen ondorioz, biziarteko espetxe-zigorrera kondenatutako presoek indultua jasotzerakoan, zigorra 30 urteko zigor bezala ulertzen zen, izan ere, ezin zuen askatasuna lortu kondenaren $\frac{2}{3}$ bete arte. Salbuespen gisa, akats judizial bat egotea edota sujetuari amnistia ematea izango lirateke.

1932. urteko Zigor Kodean biziarteko espetxe-zigorra eta biziarteko isolamendua zigor askatasun gabetzaile bezala desagertzen dira, zigor gogorrena 20 urte eta bat egun eta 30 urte bitartekoa izanez. Aipatutako zigor hau gure zigor ordenamenduko zigor gogorrena bezala kontsideratzen da.

Azken Zigor Kode hau, aurreko kodeekin konparatuz bere malgutasunagatik eta gizatiartasunagatik ezaugarritzen edo ezberdintzen da. Izan ere, kode honekin batera zigor askatasun gabetzaileak leundu egiten dira eta heriotza zigorra desagertzen da ¹⁹.

¹⁹ García Valdés, C. (2001), “Estar mejor y salir antes: premios y beneficios condicionados a la conducta del recluso en la legislación penitenciaria del XIX y principios del XX”, Anuario de Derecho Penal y Ciencias Penales, Madrid.

1948ko Zigor Kodean berriz ere, aurreko kodean ezabatutako heriotza zigorra indarrean jartzen da, baina ez biziarteko askatasun gabetzea. 1978ko Konstituzioak berriz ere heriotza zigorra ezabatzen duenean, ez du biziarteko askatasunaren gabetzearen inguruan ezer esaten 2015.urtera arteko Zigor Kodearen erreforma egin arte.

Aipatzekoa da, espainiar zigor ordenamenduan beste herrialde batzuekin alderatuz, biziarteko askatasun gabetzea heriotza zigorra baino lehenago ezabatzen dela. Beste Europako herrialde batzuetan, heriotza zigorra ordezkatzeko erabiltzen dute.

Biziarteko espetxe zigorra ez da berria gure zigor ordenamenduan, izan ere, urte luzeetan zehar mantendu izan den zigor bat da. Kontutan izan behar da, XX.mendeko testu penaletan ez dela zigor honen inguruko informazio handirik ageri, hala ere, 2012an Zigor Kodearen erreforma egiteko aurreproiektuan zigor hau sartzeko eskakizuna egiten da. Aipatutako eskakizun honetan, iraupen zehaztu gabeko kartzela zigor berrikusgarria indarrean sartzea proposatzen da. Esan beharra dago eskakizun honen parte dela gaur eguneko Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria, martxoak 30eko 1/2015 Lege Organikoaren bitartez uztailaren 1ean indarrean sartu zena.

5. EIBren arauketa eta aplikazioa

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren arauketari dagokionez, hau Zigor Kodeko 36. artikuluan aurreikusi eta 92. artikuluan berrikusten da. Kode berdineko 140. artikuluari erreparatzen baldin badiogu, bertan Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren ezaugarriak eta arauketa ageri dira.

Zigor Kodeko 140.artikuluaren arabera, erailketa Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortuta egongo baldin eta:

- a) Biktima hamasei urte baino gazteagoa bada edota bai ezgaitasun, adin edo gaixotasun batengatik zaurgarria bada.
- b) Burututako delitua sexu askatasunaren aurkako delitua bada.
- c) Burututako delitua organizazio edota talde kriminal bateko partaide batek egiten duenean.

Bi erailketa baino gehiagotatik kondenatutako pertsonari Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren kondenarekin zigortuko zaio. Kasu honetan, 78 bis artikuluko bat eta bi ataletako b) zatia aplikatu daitezkeen²⁰.

Komunitate Internazionalaren aurkako delituei dagokienez, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortuko da atzerriko estatuburu edota tratatu baten bidez babestutako pertsona baten heriotza ematen baldin bada (Zk-ko 605.1. art.). Zigor Kodeko 607.1.1. eta 607.1.2. artikuluetako larritasun handiko genozidioen kasuan eta batez ere gizadiaren aurkako krimenetan (ZK-ko 607 bis 2.1. art.) ere zigor hau aplikatuko da. Azkenengoz, zigor honen tipifikazioak biltzen dituen ezaugarrien artean ere egongo dira 573 bis.1 1. artikuluan aurreikusitako erailketak, betiere, terrorismoa erabiliz²¹.

5.1.3. gradua eta irteera baimenak

Zigor Kodeko 78 bis 1 artikulura jotzen baldin badugu, hurrengo hau azaltzen da: Pertsona bat bi delitu edo gehiagorengatik kondenatuta dagoenean, eta horietako delitu bat Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortuta baldin badago, hirugarren gradua lortu ahal izateko, baldintza ezberdinak eskatuko dira.

Hurrengo hauek dira Zigor Kodeko 78 bis artikuluan ageri diren baldintzak:

- a) Hamazortzi urteko gutxieneko espetxe zigorra bete behar izango du, delitugilea bi delitu edo gehiagorengatik kondenatuta dagoenean, horietako bat Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortuta dagoenean eta bestelako delitu guztien batura bost urte baino handiagoa bada.
- b) Hogeitun urteko gutxieneko espetxe zigorra bete behar izango du, delitugilea bi delitu edo gehiagorengatik kondenatuta dagoenean, horietako bat Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortuta dagoenean eta bestelako delitu guztien batura hamabost urte baino handiagoa bada.

²⁰ Código Penal y legislación complementaria, 2021eko apirilak 23, Ministerio de Justicia Boletín Oficial, 140. artikulua, 52. orrialdea.

²¹ Martínez, Guerra A., (2018ko urtarrila), Revista de Derecho penal y Criminología, 3.a Época, 86-87.orrialdeak

- c) Hogeitabi urteko gutxieneko espetxe zigorra bete behar izango du, delitugilea hainbat deliturengatik kondenatua dagoenean, horietako bi edo gehiago Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortuta daudenean edota horietako bat zigor berarekin zigortzen denean baina bestelako delituen batura hogeitabost urte edo gehiagokoa bada.

Esan beharra dago, Zigor Kodeko 36.1. artikuluan aurreikusten den bezala, kondenatua 3.graduan sailkatu dadin, epaia eman duen epailearen eskutik baimena eman behar da. Horretarako, aurretiaz egindako bergizarteratzeko pronostiko indibidualizatu onuragarria beharrezkoa izango da. Epaia eman duen epaileak hartzen duen erabakia hartuta, Ministeritza Fiskalaren eta Espetxe Instituzioei komunikatu beharko zaie.

Salbuespenezko kasu batzuetan ezin izango da 3.gradurako sailkapena eman:

- a) Kondenatua Zigor Kodeko II. liburuko XXII. izenburuko VII. kapituluko delitu batengatik zigortuta baldin badago, gutxienez hogeitabi urteko espetxe zigorra osorik bete behar izango du.
- b) Bestelako kasuetan, hamabost urteko gutxieneko espetxe zigorra bete behar izango du kondenatuak.

Era horretara, Espetxealdi Iraunkor Berriskugarrira kondenatutako pertsonak, hirugarren graduan sailkatzeko eskakizuna egin ahal izateko, hamabost urte osorik bete bete behar izango dituzte kartzelan. Salbuespenezko kasuetan, hau da, terrorismo delituetan adibidez, espetxean pasatzeko gutxieneko muga hori hogeitabi urtetara igotzen da²².

Kondenatua hirugarren graduan sailka dadin, irailak 26ko 1/1979 Espetxe Lege Organiko Orokorreko (ELOO) 72. artikulua araberak, Zigor Kodean aurreikusitako baldintzez gain, delituaren ondorioz sortutako erantzukizun zibila ordaintzea eta kasuan kasu, jarduera terrorista guztiz uztea eta autoritaeekin aktiboki kolaboratuz eskatzen da. Erantukin zibila ordaintzearen helburua, sortutako kaltea konpontzea, indemnizatzea izango litzateke, horretarako, delitugileak biktimarengan sortutako kalte moral eta materialak ordaintzeko gaitasun erreala, jarduteko modua, baldintza pertsonalak, ondarea, delitua burutzearen

²² Castillo Felipe E, R., (2015), Anotaciones procesales acerca de la ejecución de la pena de Prisión Permanente Revisable, La Ley Penal nº 115. Consecuencias del delito en la LO 1/2015, 3. orrialdea.

ondorioz ateratako irabaziak, sortutako kalteen izaera, biktima kantitatea, etab. kontuan hartuko dira.

Aipatutako baldintza hau batez ere burututako delituaren bidez etekin ekonomikoa atera duten delitugileengana zuzenduta dago. Horrenbestez, baldintza hau ondarearen aurkako delituetan, orden sozioekonomikoarengan larriki eta pertsona askorengan eragin dutenenetan, langileen eskubideen aurka jardun dutenetan, terrorismo delituetan, Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren kontrako delituetan... aplikatuko da. Baita ere, Zigor Kodeko II. liburuko, XIX. izenburuko Vtik IXrako kapituluetan aurreikusten diren Administrazio Publikoaren aurkako delituetan²³.

Aipatzekoa da Zigor Kodeko 36.3. artikuluan aurreikusten den bezala, posible dela goian aipatutako baldintza horiek bete behar ez izatea eta bestelako arrazoiengatik hirugarren graduan sailkatua izatea. Zigor Kodeko 36.1. eta Espetxe Erreklamenduko 104.4.²⁴ artikuluen arabera, espetxe zaintzarako epaileak edota auzitegitegiak, kasuan kasu, Ministeritza Fiskalaren, Espetxe Instituzioen eta bestelako alderdien eskutik aurretiaz jasotako txostenaren arabera, larriki gaixorik, gaixotasun senda ezineko edota hirurogeita hamar urte baino gehiagoko kondenatuetan, arrazoi humanitarioak edo duintasun pertsonala dela eta, hirugarren gradurako aurreratzea adostu dezake. Batez ere, egoera larri hauetan aurkitu daitezkeen kondenatuek izan dezaketen arriskugarritasun txikia baloratuz²⁵.

Irteera baimenei dagokienez, Zigor Kodeko 36.1.4. artikuluan barnebiltzen dira:

- a) Terrorismo eta organizazio edota talde kriminalen inguruko delituen kasuan, hamabi urteko espetxe zigorra bete behar izango da.

²³ 7/2003 Lege Organikoa, ekainak 30, medidas de reforma para el cumplimiento íntegro y efectivo de las penas, 156. orrialdea.

²⁴ 190/1996ko Errege-dekretua, (1996ko otsailak 15), otsailak 9, Espetxe Erreklamendua onartzen duena. Ministerio de Justicia e Interior «BOE» núm. 40, 44. orrialdea.

²⁵ Código Penal y legislación complementaria, Edición actualizada, 2021eko maiatzak 4, Ministerio de Justicia Boletín Oficial, 36.3. artikulua, 14. orrialdea.

- b) Bestelako kasuetan zortzi urteko kartzela zigorra bete behar izango da irteera baimenen bat lortu ahal izateko ²⁶.

Aipatu beharra dago irteera baimena ez dela kondenatuari ematen zaion sari bat, baizik eta honen tratamenduan barnebildutako bergizarteratzeari zuzenduta dagoen zigortuaren eskubide bat da ²⁷.

Baldintza tenporalak egoteaz gain, irteera baimena lortu ahal izateko ELOOko 47.2. artikulua²⁸ jo behar dugu. Hemen bestelako eskakizunekin egingo dugu topo, hala nola, kondenatua bigarren edo hirugarren graduan egotea eta jarrera eta portaera ona izatea. Horretaz gain, Espetxe Erreglamenduko 156. artikulua²⁹ ere kontutan izan beharrekoa da, izan ere, bertan Tabla de Variables de Riesgos (TVR) eta Tabla de Concurrencia de Circunstancias Peculiares (TCCP) aurreikusten dira. Taula hauetan ageri diren baldintzen arabera ere emango zaio kondenatutako pertsonari irteera baimena. Aipatu beharra dago taula hauetan ageri diren baldintzak, kondenatuak berriz ere delitua ez burutzeko aurreikusten direla.

²⁶ Código Penal y legislación complementaria, Edición actualizada, 2021 maiatzak 4, Ministerio de Justicia Boletín Oficial, 36.1. artikulua, 14. orrialdea.

²⁷ Acale Sánchez, M. “Prisión permanente revisable”, Estudio crítico sobre el Anteproyecto de reforma penal de 2012. Valencia 2013, 183. orrialdea.

²⁸ Irailak 26ko 1/1979 ELOOko 47.2. artikulua: “*Igualmente se podrán conceder permisos de salida hasta de siete días como preparación para la vida en libertad, previo informe del equipo técnico, hasta un total de treinta y seis o cuarenta y ocho días por año a los condenados de segundo y tercer grado, respectivamente, siempre que hayan extinguido la cuarta parte de la condena y no observen mala conducta*”.

²⁹ Real Decreto 190/1996, de 9 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento Penitenciario. Espetxe Erreglamenduko 156. artikulua “ *El informe preceptivo del Equipo Técnico será desfavorable cuando, por la peculiar trayectoria delictiva, la personalidad anómala del interno o por la existencia de variables cualitativas desfavorables, resulte probable el quebrantamiento de la condena, la comisión de nuevos delitos o una repercusión negativa de la salida sobre el interno desde la perspectiva de su preparación para la vida en libertad o de su programa individualizado de tratamiento. 2. El Equipo Técnico establecerá, en su informe, las condiciones y controles que se deban observar, en su caso, durante el disfrute del permiso de salida, cuyo cumplimiento será valorado para la concesión de nuevos permisos*”.

TVRn ageri diren hamar aldagaiak honako hauek dira: atzerritastasuna, drogodependentzia, profesionalitatea, berrerortzea, 10. artikulua, irteera baimenen gabezia, bizikidetzarako hutsunea, urruntasuna eta barruko presioak.

Interno:

I. LA PERSONA	II. LA ACTIVIDAD DELICTIVA	III. LA CONDUCTA PENITENCIARIA	IV. EL PERMISO
1 Extranjería Valor: <input type="checkbox"/>	3 Profesionalidad Valor: <input type="checkbox"/>	5 Quebrantamientos Valor: <input type="checkbox"/>	8 Deficiencia convivencial Valor: <input type="checkbox"/>
2 Drogodependencia Valor: <input type="checkbox"/>	4 Reincidencia Valor: <input type="checkbox"/>	6 Artículo 10 Valor: <input type="checkbox"/>	9 Lejanía Valor: <input type="checkbox"/>
		7 Ausencia permisos Valor: <input type="checkbox"/>	10 Presiones internas Valor: <input type="checkbox"/>

Puntuación X de la fórmula:

Puntuación A de la fórmula:

Puntuación B de la fórmula:

Puntuación final de RIESGO = (A / B) x 1000 :

Puntuación baremada de riesgo:

Significación cualitativa de la puntuación baremada:

vºBº

EL SUBDIRECTOR DE TRATAMIENTO

Aipatutako aldagai bakoitza 0tik 3ra puntuatzen da, konkurrentziaren arabera. Ondoren, ekuazioa egin ostean, puntuazio globala lortuko genuke, era horretara ehuneko desberdinak lortuko dira zeintzuek arriskugarritasuna adierazten duten. Ehunekoen baorazioari dagokionez; %5 arriskugarritasun oso baxua, %10-15 arriskugarritasun baxua, %20-35 arriskugarritasun normala, %40-55 arriskugarritasun altua, %60-75 arriskugarritasun nahiko altua, %80-95 arriskugarritasun oso altua eta %100 gehieneko arriskugarritasuna³⁰.

Aipatutako aldagaiek ez dute jarraian irteera baimenen ematea erabakitzen, hala ere, honen eragina zuzena izan behar da. Bertan aurreikusten diren arriskuak kasu bakoitzera zehaztu behar dira, era horretara, prozesuaren indibidualtasuna bermatuz³¹.

³⁰ Férez Mangas, D., eta Andrés Pueyo, A., (2018), 'Eficacia predictiva en la valoración del riesgo del quebrantamiento de permisos penitenciarios.' La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario, Ed. Wolters Kluwer, Barcelona, 5. orrialdea.

³¹ Juanatey Dorado, C., (2016), "Lección 11: Derechos Penitenciarios de los internos en su relación con el exterior: Permisos de salida y salidas programadas", Manual de Derecho penitenciario. Ed. Iustel, 192. orrialdea.

	CIRCUNSTANCIAS	DEFINICION	<i>Presencia (x)</i>
A	RESULTADO EN T.V.R.	Puntuación de riesgo igual o superior a 65 en la T.V.R.	<input type="checkbox"/>
B	TIPO DELICTIVO	Condenado por delito/s contra las personas o contra la libertad sexual.	<input type="checkbox"/>
C	ORGANIZACION DELICTIVA	Pertenencia a banda armada o de carácter internacional.	<input type="checkbox"/>
D	TRASCENDENCIA SOCIAL	Existencia de especial ensañamiento en la ejecución, pluralidad de víctimas o que éstas sean menores de edad o especialmente desamparadas.	<input type="checkbox"/>
E	FECHA 3/4 PARTES	Le reste más de 5 años para el cumplimiento de las 3/4 partes.	<input type="checkbox"/>
F	TRASTORNO PSICOPATOLOGICO	Alteraciones psicopatológicas de la personalidad en situación descompensada, con mal pronóstico o con ausencia de apoyo exterior.	<input type="checkbox"/>

Aipatutako beste taulari dagokionez, hau da, TCCP (Tabla de Concurrencia de Circunstancias Peculiares), honen bidez irteera baimenak behar bezala emateko ponderazioan laguntzen du.

Bigarren taularen emaitza, TVR-ren emaitzen, tipo deliktiboa, organizazio deliktiboa, alarma soziala, zigorraren $\frac{3}{4}$ bete izana eta nahasmedu psikopatologikoaren arabera baloratzen da.

Bi taula hauen bidez egindako balorazioen emaitza irteera baimenen ematea urriarena da. Aztertutako datuen arabera, kondenatuen $\frac{2}{3}$ ek ez dute irteera baimenez gozatu, nahiz eta ez onartuen indiziek %0'60 ez gainditu ³². Era horretara, Rovirak espetxe datuen inguruan aztertu duen bezala, irteera baimenen ematea batez ere kondenaren azken fasean ematen da, izan ere, ELOOK baldintzatzen duenez, zigorraren laugarren partea bete baino beranduago

³² Ríos Martín J. C., Gallego M., Segovia J. L., eta Cabrera J. C., Andar 1 km en línea recta: La cárcel del siglo XXI que vive el preso, 2010, 133. orrialdea.

jasotzen dituzte baimen hauek. Baldintzatze honek, hirugarren gradurako eta baldintzapeko askatasunerako garapena oztopatzen du ³³.

Espetxe administrazioak irteera baimenak ezeztatze erabiltzen dituen argudioetako bat zigorraren 3/4ak betetzeko urruntasuna da. Hau da, kondenaren hiru laurdenak betetzeko 5 urte baino gehiago geratzea. Baldintzapen honek, zigor luze eta zehaztugabea denez, zuzenki Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako presoek eragingo die. Izan ere, kontutan izanda berrikuspena 25 eta 35 urte artean ematen dela, kondenaren hiru laurdenen betzea oso urrun geratzen da ³⁴.

Irteera baimenak ezeztatze erabiliko beste arrazoietako bat babes familiar eta sozialaren gabezia da. Pertsona batek hamabost urte baino gehiago preso pasatzen dituenean, bere harreman eta hari sozialak galtzen doaz, horrenbestez, probabilitate handikoa da zigor mota hauetan ezaugarri hau betetzea ³⁵. Beste argudio ohikoetako bat, TVR taulan ere aurreikusten dena lehenengo graduko aurretiazko sailkapena da. Baldintzatze hau Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako preso askok beteko dute, horrenbestez, honen ondorioz irteera baimenen ezeztatzea emanez ³⁶.

Beraz, aipatutako baldintzak direla eta Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako presoek zailtasun handiak dituzte irteera baimenak lortzeko.

³³ Rovira M., Larrauri E., eta Alarcón P., La concesión de permisos penitenciarios. Una aproximación criminológica a distintas fuentes de variación, 2018ko uratrila, 13-15. orrialdeak.

³⁴ Rodríguez Yagüe, C., (2017), «Las posibilidades de individualización en las penas de prisión permanente revisable y de larga duración: acceso a permisos, tercer grado y libertad condicional», Penas de prisión de larga duración. Una perspectiva transversal, Tirant lo Blanch, Valencia, 339. Orrialdea.

³⁵ Rios Martín, J. C., "La prision perpetua en España", razones de su ilegitimidad ética y de su inconstitucionalidad, ed. Gakoa, 46. Orrialdea.

³⁶ Rodríguez Yagüe, C., (2017), «Las posibilidades de individualización en las penas de prisión permanente revisable y de larga duración: acceso a permisos, tercer grado y libertad condicional», Penas de prisión de larga duración. Una perspectiva transversal, Tirant lo Blanch, Valencia, 93-94. orrialdeak.

5.2. Zigorraren etetea eta baldintzapeko askatasuna

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren etetea eta ondoren kodenatuaren baldintzapeko askatasuna eman daitezen, espainiar Zigor Kodean aurreikusten den bezala gutxieneko epe batzuk pasatu behar dira. Epe horiek burututako delitu tipo eta kantitatearen arabera baloratuko dira, eta hauen zentzua hobeto ulertu dadin, lehenengo eta behin EIBra kondenatutako pertsonak bete beharreko epeen taula bat azalduko dugu.

Epealdi orokorra	25 urte
Hainbat delitu: EIB + gainontzeko delituen batura 5 urte baino gehiago	28 urte
Hainbat delitu: EIB 1 edo 2 + gainontzeko delituen batura 25 urte baino gehiago	30 urte
Hainbat delitu: EIB terrorismo delituagatik denean + gainontzeko delituen batura 25 urte baino gehiago	35 urte

Zigor Kodeko 78 bis 2 artikulua arabera, zigorra betetzeko geratzen zaion bestelako kondenaren **etetea** emateko gutxieneko baldintza batzuk bete behar dira:

- a) Hogeita bost urteko gutxieneko espetxe zigorra, aurreko ataleko a) eta b) supostuen kasuan.
- b) Hogeita hamar urteko gutxieneko espetxe zigorra, aurreko ataleko c) supostuaren kasuan.

Organizazio kriminal edota talde terroristen eskutik burututako delituak balira, hirugarren graduaz gozatzeko gutxieneko betearazte muga, lehenengo ataleko a) eta b) supostuetan hogeita lau urtetakoa izango litzateke, hogeita hamar urtekoa, ordea, atal bereko c) supostuan.

Kasu hauetan, zigorra betetzeko geratzen zaion bestelako kondenaren etetea emateko, lehenengo ataleko a) eta b) supostuetan kondenatuak gutxienez hogeita zortzi urte pasatu

behar izango ditu kartzelan. Atal berdineko c) supostuan, ordea, hogeita hamabost urtez gutxienez egon behar izango da espetxean³⁷.

Zigor Kodeko 92. artikulura ere jotzen baldin badugu, zigorraren eteteaz hitz egingo dugu. Aipatutako artikulua horretan hurrengo hau dio etete eta baldintzapeko askatasunaren inguruan:

1. Auzitegiak Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren etetea baieztatuko du hurrengo baldintzak betetzen direnean:
 - a) Kondenatua hogeita bost urtez kartzelan egon izana, Zigor Kodeko 78 bis artikulua kontuan hartu gabe.
 - b) 3.graduan sailkatuta egotea.
 - c) Auzitegiak kondenatuaren nortasuna, aurrekariak, burututako delituaren baldintzak, kaltetuta suertatu daitezkeen ondasun juridikoak, zigorra betetzen duen artean izandako portaera, bere baldintza familiar eta sozialak eta etetearen eta burutuko bete beharreko neurrien ondorioz lortu daitekeen eragina kontuan hartuta, zigortuaren bergizarteratzeko pronostiko positiboaren existentzia baieztatu behar izango du. Horretarako, aurretiaz espetxean jasotako kondenatuaren eboluzioaren informeen eta auzitegiek zehaztutako espezialisten balorazioa eman behar da.

Kasuan kasu, kondenatua hainbat deliturengatik zigortuta baldin badago, c) atalean ageri diren baldintzak baloratzeko denak batera egingo da.

Horren ondoren, Ministeritza Fiskalaren eta kondenatuaren artean, bere abokatuaren laguntzarekin, ahozko prozedimendu kontraesankor bat izan ostean, auzitegiak zigortuaren kondenaren etetearen inguruan erabaki bat hartuko du.

2. Organizazio eta talde terroristen eskutik emandako delituak edota Kode honetako II. liburuko XXII. titutluko VII.kapituluan barnebiltzen diren terrorismo delituak ematen baldin badira, beharrezkoa izango da kondenatuak bere aktibitate terrorista utzi duenaren zeinu argiak erakustea. Horretaz gain, autoritatearekin elkarlanean,

³⁷ Código Penal y legislación complementaria, Edición actualizada, 2021eko apirilak 23, Ministerio de Justicia Boletín Oficial, 78 bis artikulua, 26. orrialdea.

kolaboratzen jardun behar izango du. Honen helburua, talde edota organizazio terroristak horien eskutik eman daitezkeen delituak ekiditea, burututako delituaren efektuak arintzea, identifikatzea, frogak jasotzea, etab. izango litzateke. Autoritatearekin elkarlan hau eman ahal izateko, berariazko aitoren baten bidez egin behar izango du kondenatuak, non bere aktibitate deliktibo horri uko egingo dion, biolentzia atzean utziko duen eta biktimei barkamena eskatuko dien. Kondenatuaren damua, talde kriminal horrekiko deslotura eta poliziarekin kolaborazioa frogatu ahal izateko, informe teknikoak erabiliz egiten da.

3. Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren eteteak bost eta hamar urte arteko iraupena izango du. Etetearen eta baldintzapeko askatasunaren epea kondenatua askatasunean ateratzen den momentutik hasiko da kontatzen. Kasu honetan, aplikagarriak izango lirateke Zigor Kodeko 80. artikuluko lehenengo paragrafoko arauak eta baita kode bereko 83, 86, 87 eta 91. artikulukoak. Kasuan kasu, baloratutako baldintzak aldatuz gero, auzitegiak edota epaileak, 83. artikuluan oinarrituta, aurretiaz hartutako erabakia aldatu dezake. Horrekin batera, auzitegi eta epaileak kondenatuari debeku eta eginbehar berriak akordatzeko aukera izango dute.

Era berean, espetxe zaintzarako epaileak kondenatuari emandako etetea eta baldintzapeko askatasuna ezeztatze edota baliogabetezko aukera izango du, aurretiaz baloratutako baldintza edo zirkunstantzietako bat aldatzen baldin bada. Hau da, lehendik aurreikusitako zigortuaren pronostiko onuragarria mantendu ezin denean hartu ahal izango du zaintzarako epaileak erabakia ³⁸.

Horretaz gain, etetea behar bezala eraman ahal izateko, auzitegiak edota epaileak betekizun edota debeku ezberdinak ezarri diezazkioke kondenatuari. Horren helburua delitu berriak ekiditea izango da. Aipatutako debeku eta betebehar horiek Zigor Kodeko 83.1. artikuluan aurreikusten dira:

1. Biktimarengana edota epaileak zehaztutako biktimen senideengana, beraien bizitokira, lantokira edota maiztasun handiz joaten diren lekuetara hurbiltzeko debekua. Baita ere horietako norbaitekin edozein medio dela ere komunikatzeko

³⁸ Código Penal y legislación complementaria, Edición actualizada. 2021eko maiatzak 4 Ministerio de Justicia Boletín Oficial, 92. artikulua, 34-35. orrialdeak.

debekua. Debeku honen ezarpena akordioarekin harremandutako pertsoneri ohartarazi edo komunikatuko zaie.

2. Pertsona zehatz edota talde bateko kide diren pertsonekin kontaktua izateko debekua. Betiere, aipatutako pertsona horiek sujetuari berriz ere delitua burutzeko erraztasunak edota horretara bultzatzen baldin badute.
3. Bizilekua duen tokitik irteteko debekua, auzitegi edo epailearen baimenik izan gabe.
4. Toki zehatz batean bizitzeko edota bertara joateko debekua, betiere bertan beste delitu bat burutzeko aukera edo arrazoia aurkitu ahal izanik.
5. Auzitegira, epailearengana edo adierazitako administrazio-zerbitzura pertsonalki bere kabuz joatea, bere jardueren berri emateko eta jarduera horiek justifikatzeko.
6. Heziketa, lan, kultura, bide-hezkuntza, sexu-hezkuntzako, ingurumen defentsako, animalien abbeseko, berdintasuneko... programetan eta antzekoetan parte hartzea.
7. Alkoholaren kontsumoaren, droga toxiko edo substantzia estupefazianteen edota bestelako portaera adiktiboen ohiturak aldatzeko programetan parte hartzea.
8. Motordun ibilgailuaren piztea eta funtzionamendua baldintzatzen duten gailu teknologikorik gabeko motordun ibilgailua gidatzeko debekua. Betiere, subjektuak bide segurtasunaren aurkako delitu bat burutu duenean, eta neurri hau beharrezkoa ikusten denean delitu berrien gauzatzea ekiditeko.
9. Zigortuaren birgizarteratze egokia eman ahal izateko, epaile edo auzitegiak egoki edo onuragarri bezala baloratzen dituen beste eginbeharrak betetzea eman beharko da zigortuaren eskutik. Betiere, delitugilearen aurretiazko adostasunarekin eta eginbehar horiek duintasunaren kontrakoak ez izanez.

Zigor Kodeko 83. artikuluko bigarren atalean, 1, 4 eta 6 arauekin harremandutako eginbehar eta debekuak zehazteko inposizioa aurreikusten da. Betiere emakumearen aurkako delituen inguruan ari garenean. Aipatutako eginbehar eta debeku hauen betearaztearen kontrolaz, 1,2, 3, edo 4. arauetan Estatuko Segurtasuneko Indar eta Gorputza arduratzen da,

6, 7 eta 8 arauetaz, ordea, Espetxe Administrazioiko zigorren kudeaketa eta bestelako arau alternatiboetako zerbitzuak³⁹.

Aipatu beharra dago epaileak edo auzitegiak kondenatuari ezarritako baldintzapeko askatasuna erreboka dezakeela. Hau da, beste edozein espetxe zigor bezala, berriz ere delitua burutzeko arriskua edo bestelako faktoreren bat ikusten baldin badu, erabaki hori hartzeko eskubidea izango du. Zigor Kodeko 86. artikuluan aurreikusten da aipatutakoa:

- a) Baldintzapeko aldian delituan berrerortzen bada (edozein deliturengatik kondenatua). Eta horrek bergizarteratze pronostikoa mantendu ezin dela erakustea.
- b) Era larri edo errepikatuan ezarritako baldintzak, debekuak edota betebeharrak ez betetzea.
- c) Era larri edo errepikatuan ezarritako Zigor Kodeko 84. d) artikuluan aurreikustako baldintzak ez betetzea.
- d) Konfiskatutako objektuak non dauden kontatzerakoan, informazio zehaztugabea edota eskasa erraztea. Erantzukizun zibila behar bezala ez asetzea, ez ordaintzea, gaitasun ekonomiko ez izanez gero salbuetsiz. Bere ondarearen inguruko informazio eskasa edo okerra ematea.

Kasuan kasu, epaileak edota auzitegiak kondenatuari ezarritako betebeharrak eta debekuak modu ez oso errepikakorrean eta ez horren larri ez betetzerakoan, auzitegiak edo epaileak beste debeku, betebeharrak eta baldintza berriak jarri diezazkioke. Horretaz gain, beraien eskuetan dago kondenatuaren zigorraren etetearen iraupena luzatzea, betiere, hasiera batean ezarritako etetearen iraupenaren erdia gaingaitzen ez duelarik.

Kondenatuaren zigorraren etetearen ezeztapena ematerakoan, zigortuak sortutako kalteak konpontzeko ordaindutako dirua, Zigor Kodeko 84.1. artikularen arabera ez da itzulita izango. Hala ere, epaileak edota auzitegiak, 2, 3 eta 4. neurrien arabera, kondenatuak ordaindutako gastuak eta egindako lanak gehituko dizkio.

³⁹ Código Penal y legislación complementaria, Edición actualizada, 2021 apirilak 23 Ministerio de Justicia Boletín Oficial, 83. artikulua, 28-29 orrialdeak.

Kasu guztietan, epaileak edota auzitegiak, fiskaltza eta bestelako alderdiak entzun ostean hartuko du erabakia. Hala ere, oso muturreko egoeretan, hau da, berriz ere delitua burutzeko edota ihes egiteko arriskugarritasun handia dagoenean, zigorraren etetea baliogabetu edota ezeztatu dezake kondenatua berriz ere zuzenean kartzelara bialduz.

Epaileak edota auzitegiak beharrezkoak izango liratekeen baieztapenerako eginbideak egitea akordatu dezake, arazoa konpontzeko ahosko bista noz egin ere akordatuz ⁴⁰.

Behin ezarritako zigorraren etetearen iraupena pasata eta kondenatuak etetearen erabakia hartzerakoan izandako jarrera onuragarria mantentzen duen deliturik ez burutuz, auzitegiak edota epaileak zerrendatutako betebeharrak eta debekuak betez emango da zigorraren azkentzea.

Beste alde batetik aipatu beharra dago, Zigor Kodeko 80. artikuluko 5. atalean oinarritutako eteteen kasuan, kondenatuak bere adikzioaren amaiera justifikatu edota tratamenduarekin jarraitzen duela baieztatu behar izango duela. Hau horrela emango ez balitz, epaileak edota auzitegiak zigorraren betearazpena ezarriko luke, betiere, kondenatuak tratamendua behar ez duenean. Hau da, zigortuaren txostenaren arabera, pertsonak tratamenduan jarraitu behar baldin badu eta ez badago kartzela zigorra betetzeko gaituta, posible izango da etetearen iraupena bi urtez gehienez ondo arrazoituz luzatzea ⁴¹.

1/2015eko Lege Organikoarekin batera, baldintzapeko askatasuna etete bezalako modalitate bat bihurtu zen, zigorra betearazteko forma bat izateari utziz. Doktrinaren zati batek baldintzapeko askatasunaren desnaturalizazio bat ekarri duela uste du ⁴². Izan ere, legearen aldaketarekin batera, baldintzapeko askatasuna jada etete modalitate bat izanik ez da zigorraren betearazpen bezala zenbatzen. Hau da, baldintzapeko askatasuna errebokatuz gero, geratzen zaion zigorraren zatia berriz zenbatzen hasi beharko litzateke.

⁴⁰ Código Penal y legislación complementaria, Edición actualizada, 2021eko maiatzak 4 MINISTERIO DE JUSTICIA BOLETÍN OFICIAL, 86. artikulua, 30. orrialdea.

⁴¹ Código Penal y legislación complementaria, Edición actualizada, 2021eko maiatzak 4 Ministerio de Justicia Boletín Oficial, 87. artikulua, 30. orrialdea.

⁴² Guisasola Lerma, C., (2017), Libertad condicional, Tirant lo blanch, 22. orrialdea.

Era honetara 3/2007ko LOk aurreikusten zuen baldintza terrorismo delituetarako, legearen aldaketarekin batera, gainera beste delituetan ere aplikatzen da ⁴³. Aldaketa honen ondorioz, preso askok baldintzapeko askatasunari ezetz esaten dio, kondena amaitu arte hirugarren graduan jarraituz.

5.3. Berrikuspena

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren berrikuspena eman ahal izateko, hainbat baldintza ezberdin eskatzen dira. Horretarako, Zigor Kodeko 92.4. artikulura joko dugu, non bertan aipatutako baldintzak aurreikusten diren:

4. artikuluko honetako 1. puntuko a) atalean edota Zigor Kodeko 78 bis artikuluan ageri den zigorraren azkentzea ematen denean, auzitegiak gutxienez bi urterik behin, baldintzapeko askatasunaz gozatzeko bestelako eskakizun edo baldintzak betetzen direla egiaztatu behar izango du. Auzitegiak kondenatuaren baldintzapeko askatasunaren eskakizunak ere ebatzi behar izango ditu. Hala ere, behin kondenatuaren aldetik emandako eskakizun bat ezeztatzean, honek urte bateko epea finkatu dezake berriz ere presoak eskakizuna egin ez dezan ⁴⁴.

Berrikuspena emateko eskatzen diren aipatutako baldintzen inguruan ere hainbat kritika ezberdin jaso izan dira. Izan ere, eskatzen diren betekizunen kantitatea oso altua da eta horiek guztiak betetzea oso salbuespenezko kasuetan ematen dela kritikitzen da. Horrenbestez, berrikuspenerako eskatzen diren baldintza horiek zigorraren etetea zailtzen dute ⁴⁵.

⁴³ Barber Burusco, S., (2016ko urria), La libertad condicional conforme a la LO 1/2015, de 30 de marzo: ¿INSTRUMENTO DISEÑADO PARA PROLONGAR EL CONTROL PENAL?, 704. orrialdea.

⁴⁴ Código Penal y legislación complementaria, Edición actualizada, 2021ko maiatzak 4 MINISTERIO DE JUSTICIA BOLETÍN OFICIAL, 92.4. artikulua, 35. orrialdea.

⁴⁵ Domínguez Izquierdo, E. M., (2015), “El nuevo sistema de penas a la luz de las últimas reformas”, en Morillas Cueva, L. (dir.), Estudios sobre el Código Penal Reformado (Leyes Orgánicas 1/2015 y 2/2015), Dykinson, 141. Orrialdea.

6. Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren konstituzio-kontrakotasuna

Gure gizartean delitu larri bat burutzen denean, hau berriz gerta ez dadin, herritarrok honen zigorra bilatzeko joera dugu. Delitu horrek eragindako kalteekin batera orekan joan daitekeen zigor antzeko bat. Hala ere, ulertu behar dugun zerbait da zigorra aplikatuz ez dugula delitua ezabatuko.

Lascuráin Sánchezen aburuz, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorrak ez gaitu babesten, ez gaitu askeago egiten, gainera, honen ondorioz oraindik eta inzibilizatuagoak gara, izan ere, gero eta ankerragoak, sujetuaren erruduntasunarekiko moldakaitzagoak... gure Carta Magnan aurreikusten den bergizarteratzea alderantziz ⁴⁶.

Doktrinaren zati handi bat, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren inguruko argudioak ateratzerakoan, honen konstituzio-kontrakotasunean zentratu da. Izan ere, Espainiar Konstituzioko 25.2 artikuluan eta Espetxe Lege Organiko Orokorreko lehenengo artikuluan biltzen den aurrezaintza bereziaren aurkakoa delaren argudioa banatzen dute.

Auzitegi Konstituzionalak dioen arabera, kondenatuaren bergizarteratzea edota berreziketa ez dira zigorraren helburu bakarrak. Hala ere, esan beharra dago gure ordenamendu konstituzionalean, aurreikusitako segurtasun neurri eta zigorren norabide nagusia kondenatuaren birgaitzera bideratuta dagoela. Horren ondorioz, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrian edota 15 urte baino gehiagoko beste edozein espetxe zigorrean ere, kondenatuaren bergizarteratze egokia emateko larriki eragiten duten hainbat eragozpen agertzen dira.

Hala ere, aipatutako bergizarteratze printzipio hau ez da Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren aplikazioaren bitartez urratzen den printzipio bakarra, izan ere, legezketasun, berdintasun, bergizarteratze, proportzionaltasun eta gizatasun printzipioak urratzen ditu.

⁴⁶ Lascuráin Sánchez, J. A.: «No solo mala: inconstitucional», en Rodríguez Yagüe, C. (Coordinadora): op. cit., 124. orrialdea.

6.1. Legezkotasun printzipioa eta babes juridikoaren urrapena

Zuzenbideko Estatuko Zigor Zuzenbidearen oinarriko zutabeetako bat da portaera tipifikagarri ororen zigorra ondorio juridiko bezala legeetan bakarrik aurreikusita egotea da. Hau da, *nulla poena sine lege, nulla poena sine crimine y nulla crimen sine poena legal* ⁴⁷. Aipatutako Espainiar Konstituzioko 25.1. artikuluan biltzen da.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren erregulazioa oso kritikatu izan da, batez ere, bere legezkotasun eta babes juridikoaren printzipioen inguruan. Hau izan zen Botere Judizialeko Kontseilu Orokorak aurkeztutako aurreproiektuaren txostena, non zigor hau konstituzioaren aurkakoa bezala identifikatzen zuten, izan ere, Espainiar Konstituzioko 9.3 eta 25.1. artikulua urratzen ditu. Aipatutako testuan oraindik ez ziren Zigor Kodeko 33. artikuluko zigorrak biltzen, ezta Kode bereko 35. artikuluko ⁴⁸ zigor askatasun gabetzaileen zerrenda.

Honen ondorioz, Botere Judizialeko Kontseilu Orokoraren aburuz, hirugarren graduaren sailkatzeko, irteera baimenak emateko edota zigorraren betearazpenaren etetea emateko baldintzak eskasak direla uste du aginduen eskakizunekin alderatuz. Honen ostean, hau da, hurrengo proiektuan aipatutako gabeziak konpondu zituzten. Hala ere, nahiz eta kondenatuak kartzelan bere bizitza osoa pasatu dezakeen, adostutako araudia ez dago behar bazalako argitasunarekin adierazita edota azalduta.

Gure ordenamenduan Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren erregimen juridikoan aldaketak egin zituzten. Alde batetik, espetxe izaerako arauak barneratzen dituzte Zigor Kodean, hala nola, hirugarren graduaren sailkapenarekin eta irteera baimenekin

⁴⁷ Espainiar Konstituzioko 25.1. artikulua: "*Ezin da inor kondenatu edo zigortua izan ekintza edo usteengatik berak egiteko unean delitu, huts edo administral arau hausteak izan ez badira, une hartan zutik dirauen legearen arabera*".

⁴⁸ Código Penal y legislación complementaria, Edición actualizada, 2021ko maiatzak 4 MINISTERIO DE JUSTICIA BOLETÍN OFICIAL, 35. artikulua, 14. orrialdea.

“ Son penas privativas de libertad la prisión permanente revisable, la prisión, la localización permanente y la responsabilidad personal subsidiaria por impago de multa. Su cumplimiento, así como los beneficios penitenciarios que supongan acortamiento de la condena, se ajustarán a lo dispuesto en las leyes y en este Código ”.

erlazionatutakoak. Beste alde batetik, erregimen berezi bat tarteratzen dute delitu pilaketa kasuetan aplikatzeko, delitu horietako bat Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortuta dagoenean eta bestelako delituak larritasun zehatzekoak direnerako. Gainera, antolatutako delinkuentzia eta terrorismo delitueterako beste arau berezi batzuk aurreikusten dituzte. Guzti horrek, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren erregulazio hedatua, argitasun gabekoa eragiten du. Era horretara, babes juridikoaren printzipioaren bat ez datorren erregulazioarekin aurkituz.

Vicenta Cervelló Donderisek espetxealdi iraunkorreko zigorra legezkotasun eta babes juridikoaren printzipioekin alderatzen duen analisisian, lau arazo ezberdin planteatzen ditu ⁴⁹:

1. Zehaztapen judizialeko bermea

Zehaztapen judizialeko bermeari dagokionez, epaileak zigorraren iraupena zenbatekoa izango den zehaztea bermatu behar da. Hau da, ezin da espetxeko organo administratiboan esku utzi gerora zigorraren betetzearen denbora zehaztea, izan ere, hauen funtzioa betearazpen modalitatearen inguruan erabakitzea mugatzen da. Horretarako, kondenatuak beteko duen zigorraren iraupena lehenagotik zehaztuta egon behar da, hau da, gutxieneko eta gehieneko markoarekin aurreikusita egon behar da legean. Aipatutako iraupen maximo eta minimo horien artean, gero epaileak zehaztuko du kondenatuak bete behar izango duen urte kopuru determinatua.

Sarritan goian aipatutako hori gertatzen da, non epaileak zigor honen betearazpenaren iraupen zehaztugabea adosten duen, eta gerora espetxeko organo administratiboek zigorraren betearazpenaren arabera iraupena zehatzen duten. Horrenbestez, kondenatuak bere jarrera deliktiboaren ondorio juridikoen ezagutza izan behar du.

Zigor honetara kondenatutako pertsonak, aurretiaz eta zehaztasun osoz izango duen informazio bakarra, kartzelan pasatuko duen gutxieneko iraupena izango da, berrikuspenera heldu arte. Espetxe zigor arrunt batean, ordea, bere jarrera edo

⁴⁹ Cervelló Donderis, V., (2016), Prisión perpetua y de larga duración. Régimen jurídico de la prisión permanente revisable, Tirant lo Blanch, Valencia, 109. orrialdea.

portaera eta bergizarteratze pronostikoak direnak izanda ere, zigortutako pertsonak badaki zehaztasun osoz zenbateko iraupena izango duen bere zigorrak ⁵⁰.

Horrenbestez, lehen esan bezala Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren gehieneko iraupena zehaztu gabe aurkitzen da, gainera, autoritateen diskrezionaltasunaren mende utziz. Honek argitasun falta eta inseguritate juridiko handia dakartza, zigorraren eduki garrantzitsuena ezin ezagutuz ⁵¹.

2. Zigor zehaztugabeen debekua eta iragankortasunaren bermea

Iragankortasunaren bermeari dagokionez, espetxe zigorraren iraupena legean argi eta garbi zehaztean datza. Hala ere, aipatutako berme honek hasiera batean zigor honen iragankortasuna alde batera uzten du.

Espetxealdiari dagokion gutxieneko eta gehieneko iraupena aurretiaz zehazten ez denean, lehen esan bezala, legezketasunaren printzipioaren urrapena ematen da. Horrenbestez, kartzelatik ateratzea ekidingo duen gutxieneko iraupena determinatu behar izango da, une hori heltzerakoan ateratzeko aukera izanez. Beste era betara planteatuz, ordea, posible da baita ere, kondenaren gehieneko iraupena zehaztea, betiere, kondenatuaren duintasuna errespetatzen delarik ⁵².

3. Berrikuspenerako bermea

Espetxealdi iraunkor orok, bere izendapena edozein delarik, kondenaren etenaldia edo azkentzea errazten duen berrikuspenerako aurreikuspen legala izan behar du. Legeak berrikuspenerako baliabide desberdinak erabili ditzake, betiere, erabilitako bideak eta jarritako baldintzak argitasun osoz adieraziz. Horrenbestez, honen zehaztapena gero eta argiagoa denean, aipatutako berme hau hobeto errespetatuko da. Alderantziz, baliabide hauek ondo determinatuta geratzen ez direnean, eta dagozkion organoen

⁵⁰ Cámara Arroyo, S.; Fernández Bermejo, D., (2016) : La prisión permanente revisable: el ocaso del humanitarismo penal y penitenciario, Aranzadi, Cizur Menor.

⁵¹ Juanatey Dorado, C., (2013), “Una moderna barbarie: la prisión permanente revisable” RGDP, 20 zenbakia, 5. orrialdea.

⁵² Cervelló Donderis, V., (2016), Prisión perpetua y de larga duración. Régimen jurídico de la prisión permanente revisable, Tirant lo Blanch, Valencia, 113-114. orrialdeak.

arbitrariotasunaren esku uzten direnean, hautapenerako instrumentu bezala erabiltzeko arriskua handitzen da.

Orokorrean, berrikuspenerako erabiltzen den baliabide ohikoena baldintzapeko askatasuna dela esan daiteke. Horrenbestez, baldintzapeko askatasuna lortzeko behar diren baldintzak behar bezalako argitasunarekin bildu behar dira, ahalik eta objektiboenak izaten saiatuz. Hau horrela ez emanez gero, askatasuna lortzeko oztopo garrantzitsu bat izan daiteke. Honetaz gain, mota honetako zigor luze eta iraunkorretan, narriadura psikiko eta fisikoa dela eta, gaixotasun larri baten edota adinaren ondoriozko askatasuna lortzea ere nahiko ohikoa izaten da ⁵³.

4. Babes juridikoaren bermea

Berme honekin batera, legezkotasun printzipioak aurretiaz aipatutako askatasuna lortzeko baldintzak zehaztasun osoz eta behar bezala adieraztea bermatzea eskatzen du.

Aldi baterako epeei buruz hitz egiten dugunean, aipatutako zehaztasun hori nahiko babestuta geratzen da, izan ere, osagai objektiboak dira honen askatasuna onartu edo ezeztatu dezaketenak. Balorazioa baldintza zehaztugabeen esku uzten baldin bada, ordea, orduan ematen da babesgabetasun juridikoa eratzeko probabilitate handiena. Bi elementu dira espetxealdi iraunkorraren askatasuna lortzeko maiztasun handienarekin eskatzen direnak: bergizarteratzeko egindako ahalegin eta aurrerapenak eta arriskugarritasunaren gabezia ⁵⁴.

Bergizarteratzerako egindako ahaleginak askotan gertaera deliktiboa kontatzearekin, barkamena eskatzearekin edota damutzearekin harremantzen dira. Gertaerak aitortzearen kasuan, aipatzekoa da Frantzian izandako kasua, Léger kasua, non ez zioten baldintzapeko askatasuna ematen. Egoera honetan, ez zen kondenatuaren eskutik aitormena eman, izan ere, bere hitzetan berak ez zuen portaera deliktibo horretan parte hartu. Horrenbestez, zigortuaren jarrera hau garapen pertsonalaren

⁵³ Cervelló Donderis, V., (2016), Prisión perpetua y de larga duración. Régimen jurídico de la prisión permanente revisable, Tirant lo Blanch, Valencia, 114-115. orrialdeak.

⁵⁴ Cervelló Donderis, Op.Cit., 115. orrialdea.

gabeziarekin erlazionatu zuten, era horretara bergizarteratzeko ahaleginak egin ez zituela determinatuz. Era honetara, gizarteratze hori barne-damu bezalako elementu moralizatzailearekin nahasten da, eta ez kanpo-portaerarekin, izan beharko litzatekeen bezala ⁵⁵.

Beste alde batetik, barkamena eskatzeko beharizana, baldintzapeko askatasuna aplikatzeko asko erabili izan den elementuetako bat da, batez ere, terrorismo delituetan. Espainian aipatutako aitorpena edota damua, zigorra arintzeko instrumentua izatetik, baldintzapeko askatasuna emateko beharrezko baldintza edota eskakizun izatera iritsi da. Baldintzapen hau, askatasun ideologikotik pixka bat aldentuta dagoela esan daiteke.

Lehen esan bezala, arriskugarritasun gabezia izatea baldintzapeko askatasuna lortzeko beste baldintzetako bat da. Hala ere, kasu honetan balorazioa egiteko irizpide objektibo eta zorrotzen gabeziarekin aurkitzen gara, horrenbestez, organo erabakitzailearen hautapenean uzten da, berme eskaseko erabakia izanez. Sarritan aipatutako kondenatuaren arriskugarritasun hori, zigortuak burututako portaera deliktiboaren larritasunaren arabera neurtzen da, eta ez etorkizunera begirako arriskugarritasunaren arabera.

Era honetara, bergizarteratzeko ahaleginak eta arriskugarritasunaren gabezia gizarteratzeko pronostiko onuragarri bezala, espetxean izandako jarreraren garapena, kanpoan dituen lan-aukerak, kondenatuaren parte hartzea, bizitza sozialaren normalizazioa... erreparatu behar dira. Puntu hauek kontuan hartu ahal izateko, espetxe administrazioak egindako lana ere kontutan izan behar da. Hau da, tratamenduarekin harremandutako jardueretan parte hartu ahal izateko, lehenengo eta behin programa eskaintza anitz eta egokia egon behar da. Berdina gertatzen da kondenatuaren harreman sozialekin edota familiakideen laguntzarekin, izan ere,

⁵⁵ Sanz-Díez de Ulzurrun, M., (2006), “La sentencia del TEDH del asunto Léger c. Francia de 11 de abril de 2006. Sobre la compatibilidad de las penas de larga duración con las exigencias del Convenio europeo para la protección de los derechos humanos”. *Revista europea de Derechos Humanos* 7. zk.

erlazio horiek mantendu ahal izateko beharrezkoak dira zigortuak irteera baimenak, bisitak edota komunikazioak izatea ⁵⁶.

6.2. Berdintasun printzipioaren urrapena

Goiko puntuetan aipatutako kondenaren iraupen zehaztugabeak, zigorra delituarekiko desproporzionala izatea eragiten du, izan ere, iraupen zehaztugabeko bi kondena berdinen artean, beterazpen epeak ez lirateke berdinak izango. Era horretara, baliteke Espainiar Konstituzioko 14. artikuluan biltzen den berdintasun printzipioa urratzera heltzea. Zigor iraunkor hau jende gazteari inposatzen baldin bazaio, beraien bizitzan zeharreko aldaketa galarazten zaie. Ordea, berrogei edota berrogeita hamar urteko jende helduari zigor berbera aplikatzen bazaie, betearazpen tarte hori askoz txikiagoa izango da. Horregatik, gazteek orokorrean erakusten duten bizitzarekiko esperantza handiagoa dela eta eragiten die latzago zigor honek ⁵⁷.

Espetxe zigorraren alde tenporalaren inguruan ari garenean, batez ere zigortua jende gaztea denean, oso garrantzitsua da bizitakoa eta bizitzeko geratzen zaiguna konparatzea. Izan ere, konparazioen plano horretan, pertsona gazteen kasuan zigorraren iraupena eraginda suertatzen da, hau da, zigorraren iraunkortasun horrek pertsona helduei baino gehiago irauten die ⁵⁸.

Daunis Fernándezen aburuz, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriak zigorraren hautaketa legegilearen fasean, 4 supostutan gutxienez, ez ditu berdintasun printzipioaren baldintzak betetzen:

1. Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatuta dagoen pertsona batek partzialki edo bere osotasunean talde nazional, etniko, arrazial, erlijioso... apurtzeko helburuz, beste pertsona batengan lesio larri bat edota honen askatasun sexualaren aurka jotzen duenean, egoera larri baten aurrean aurkitzen gara. Hala ere, aipatutako portaera

⁵⁶ Cervelló Donderis, V., (2016), Prisión perpetua y de larga duración. Régimen jurídico de la prisión permanente revisable, Tirant lo Blanch, Valencia, 117. orrialdea.

⁵⁷ Cervelló Donderis, Op.Cit. 118.orrialdea.

⁵⁸ Messuti A., (2005), “Tiempo de pena, tiempo de vida. Reflexiones sobre la prisión perpetua a menores”. Panóptico 7. zk.

honek ez luke subjektu pasiboaren heriotza dakarren beste supostu batzuen gaitzespen berdina jasan behar.

2. Sexu askatasunaren aurkako erailketak direnean eta Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortzen denean. Alde batetik, ez da mugatzen ezta zehazten askatasun sexualaren aurkako zein atentatu edota portaera diren merezidunago zigor mota hau betetzeko. Izan ere, portaera anitz eta desberdin asko barnebiltzen dira Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren barruan. Beste alde batetik, ez da argudiagarria kasu hauekiko gaitzespena, izan ere, beste portaera batzuen desbaliohabetasun bera erakusten du, non hilketa ondasun juridiko pertsonal batetik eratortzen den.
3. Talde terrorista baten kide izanda hilketa bat burutzen bada, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorrarekin kondenatzen da. Organizazio kriminal baten parte izanda eta antzeko delitua burututa, ordea, ez da zigor berarekin zigortzen.
4. Terrorismo delitu batengatik kondenatutako pertsonaren kasuan, zigorraren betearazpenean dispersio politika aplikatzen du gobernuak. Julián Carlos Ríos Martínek dioten bezala, *“El gobierno aplica criterios penitenciarios que ponen en duda la interpretación adecuada de la legalidad penitenciaria: políticas de dispersión de presos en cárceles alejadas de su comunidades autónomas, limitación en las comunicaciones, permisos denegados a personas que han rechazado la violencia, de los cuales, algunos tienen que ser posteriormente concedidos por la Audiencia Nacional, y exigencia, en algunas situaciones de la delación para la aplicación del régimen abierto o del régimen mixto de régimen ordinario y abierto”*⁵⁹. Honen ondorioz, desberdintasun handia sortzen da terrorismo delituengatik preso dauden pertsonen eta preso “arruntan” artean. Izan ere, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortua izateaz gain, etxetik, jatorriko lekutik urrun eramaten dituzte presoak, familia, lagun eta herriarengandik aldentuz.

Daunis Fernándezen iritziz, zigorraren zehaztapen judizialeko fasean ere berdintasun printzipioa urratzen da. Izan ere, ez dio auzitegiari subjektu aktiboak burututako portaera

⁵⁹ Ríos Martín J. C., (2017ko urriak 26), La gestión de la ejecución de la pena de prisión en relación con las personas presas por delitos de terrorismo, Girona.

deliktiboarekiko zigor proportzionalena behar bezala zehazten. Hau da, ez direnez Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren gutxieneko eta gehieneko mugak zehazten, ez da posible auzitegiak erabakitzeke tarte hori izatea ⁶⁰

6.3. Bergizarteratze printzipioaren urrapena

Onartu beharra dago kondena guztien betearazteak zigor bat, kondenatuarentzako beldurra eta gizarte osoarentzako orokorrean mehatxu bat suposatzen duela. Hala ere, Espainiar Konstituzioaren arabera, helburu jakin bat nabarmendu nahi izan da, berreziketa edota bergizarteratzea, zigorrarekiko edo askatasun gabetzearekiko loturarik izan gabe, denbora eta espazio jakin bat hartzea etorkizunari begira delitu berrien burutzea ekiditeko.

Hala ere, Espainiar Konstituzioko 25.2. artikulua ⁶¹ ez du bergizarteratzea oinarrizko eskubide bat bezala ulertzen, baizik eta berreziketara zuzendutako zigor eta espetxe politika bideratzeko legegilearen printzipio programatiko bat ⁶².

Orokorrean, bergizarteratzea espetxe zigorrera kondenatutako pertsonentzat berme bat izan behar da. Hau da, bidean aurkitu ditzaketan oztopoak bergizarteratzera zuzenduta behar bezala kudeatzen lagundu behar die estatuak. Horretarako, beharrezko baliabide eta instrumentuak erakutsi eta praktikan jarriko dituzte. García Valdésekin dioen moduan, *“a nadie se le enseña a vivir en sociedad si se le aparta de ella”* ⁶³.

⁶⁰ Daunis Rodríguez, A, (2013).: «La prisión permanente revisable. Principales argumentos en contra de su incorporación al acerbo punitivo español», Revista de Derecho Penal y Criminología, 3.^a época, 10. zk. UNED.

⁶¹ Espainiar Konstituzioko 25.2. artikulua: *"Askatasun bazterte zigorrek eta seguritate neurriek birheziketa eta gizartean bersartzera joko dute eta ez dira izango lan-bortxatuak. Presondegira kondenatuak, hura betetzen ari baldin bada, kapitulu hontako oinarrizko eskubideez goza dezake, baina ez espreski huts kondenatorio arazoagatik, zigor zentzu eta presondegi legeagatik mugaturik daudenak. Edonola ere, lan ordaindu batetara eskubidea izango du, eta baita giza asegurantzari dagozkion etekinetara ere, kultura sarbidera eta bere nortasun osoko hazkundera"*.

⁶² Cervelló Donderis, Op.Cit., 130. orrialdea.

⁶³ García Valdés, C., (1978), La reforma de las cárceles, Ministerio de Justicia, Madrid, 17. orrialdea.

Bergizarteratzeak bi eskakizun ditu, alde batetik, zigorrak oso iraupen luzekoak ez izatea, hau da, kondenatua ez suntsitzea eta helburu konstituzionala erreala izatea, eta beste alde batetik, zigortuaren harreman sozialak, kanpoaldearekiko hurbiltasuna bultzatzea.

Horrenbestez, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorraren puntu ahulena bergizarteratzearena dela esan dezakegu. Zein Auzitegi Konstituzionalaren arabera, gutxieneko iraupen bateko edozein zigor askatasun gabetzailek izan behar duen.

Gure zigor sisteman, Zigor Kodeko 78 bis artikulura jotzen baldin badugu, gerta daiteke Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako pertsonak 32 urte pasatu arte itxaron behar izatea hirugarren gradua lortzeko, eta 35 urte lehenengo berrikuspena egiteko. Arrazoi horiengatik, horren ortzi-muga urruna izaterakoan, baliteke dudan jartzea Europar Gorteak edota Alemaniako Auzitegi Konstituzionalak zehazten duen hori betetzea: "oportunidad concreta y realizable de recuperar su libertad en el futuro"⁶⁴.

Gure estatuko Auzitegi Gorenak zehazten duen bezala, hogeita hamar urte baino gehiagoko edozein zigor konstituzioz kontrakoa izan daiteke. Izan ere, honen aburuz, oso zaila izan behar da aipatutako bergizarteratze hori ematea horren zigor luze eta sumingarriekin. Horrenbestez, konstituzioan barnebiltzen diren berreziketa eta bergizarteratzeari jaramonik egiten ez badiegu, tratu ankerrak eragingo ditugu.

Kondenatua espetxean hainbeste urtez kartzelaratua izaterakoan, bere bergizarteratzeko aukera horretaz gabetzen zaio. Era horretara, zigortua den pertsonak doilortze sentsazio handiagotua sentituko du kondena arrunt batean baino. Horrenbestez, oso zaila da ulertzea horren iraupen luzeko espetxe zigorra bergizarteratze edota berreziketara bideratuta egotea. Pentsatu behar duguna da, kondenatuta dagoen pertsona kartzelan pasatuko dituen urte kopuruaz kontziente dela, eta era horretara bere bergizarteratzeko predisposizio hori urteekin batera txikitzen joango dela⁶⁵.

⁶⁴ Roig Torres, M., (2016), La cadena perpetua en el derecho alemán y británico. La prisión permanente revisable, Iustel, Madrid, 184. orrialdea.

⁶⁵ Zúñiga Rodríguez, L., (2010), «El tratamiento penitenciario», en Berdugo Gómez de la Torre, I. (Coordinador): Lecciones y materiales para el estudio del Derecho Penal, tomo V, Derecho Penitenciario, Iustel, Madrid, 156. orrialdea.

Gaur egun, espetxe zigorrera kondenatutako pertsonen sarritan tratamendura bideratutako programetan parte hartzen dute, izan ere, parte hartze horrek positiboki eragiten du irteera baimenen eta baldintzapeko askatasunaren lorpenean (irailak 26ko ELOO 1/1979, 65 eta 67.art.) ⁶⁶. Horrenbestez, ulergarria da kondenatuaren aipatutako predisposizio hori gutxitzea, baldintzapeko askatasuna eta kaleratzea horren urrun ikusita.

Zigor mota honetan eskatzen diren baldintzetaz gain, ezin dugu ahaztu Zigor Kodeko 92. 2. artikuluan eskatzen dien bestelako betekizunak. Artikulu honetan, terrorismo delituagatik Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako pertsonen, zigorraren etetea eman ahal izateko, beraien portaera deliktiboaren uztea edo amaiera argi eta garbi baieztatuz egin behar dute, autoritatearekin aktiboki kolaboratuz. Horretarako, bere aktibitate deliktibo

⁶⁶ Irailak 26ko 1/1979 ELOO, 65 eta 67.artikuluak. 65. artikulua:

"1. La evolución en el tratamiento determinará una nueva clasificación del interno, con la consiguiente propuesta de traslado al establecimiento del régimen que corresponda, o, dentro del mismo, el pase de una sección a otra de diferente régimen.

2. La progresión en el tratamiento dependerá de la modificación de aquellos sectores o rasgos de la personalidad directamente relacionados con la actividad delictiva; se manifestará en la conducta global del interno y entrañará un acrecentamiento de la confianza depositada en el mismo y la atribución de responsabilidades, cada vez más importantes, que implicarán una mayor libertad.

3. La regresión de grado procederá cuando se aprecie en el interno, en relación al tratamiento, una evolución desfavorable de su personalidad.

4. Cada seis meses como máximo, los internos deberán ser estudiados individualmente para reconsiderar su anterior clasificación, tomándose la decisión que corresponda, que deberá ser notificada al interesado.

Cuando un mismo equipo reitere por segunda vez la calificación de primer grado, el interno podrá solicitar que su próxima propuesta de clasificación se haga en la central de observación. El mismo derecho le corresponderá cuando, encontrándose en segundo grado y concurriendo la misma circunstancia, haya alcanzado la mitad del cumplimiento de la condena".

67. artikulua: *"Concluido el tratamiento o próxima la libertad del interno, se emitirá un informe pronóstico final, en el que se manifestarán los resultados conseguidos por el tratamiento y un juicio de probabilidad sobre el comportamiento futuro del sujeto en libertad, que, en su caso, se tendrá en cuenta en el expediente para la concesión de la libertad condicional".*

eta indarkeriaren uztea eta biktimei zuzenki barkamena eskatzea eskatuko da adierazpen baten bidez. Hau da, kasu hauetan kondenatuak badaki gutxienez hogeita hamabost urtera aterako dela kartzelatik, betiere, eskakizunak betetzen baldin baditu ⁶⁷. Terrorismo delituetan eskatzen diren baldintzetaz gain, gorago aipatutako dispersio politikoaren inguruan hitz egitea ondo legoke. Izan ere, gobernuaren eskuhartze honek bergizarteratze printzipioan modu oso gogorrean eragiten du. *“El alejamiento no es, en absoluto, una medida eventual o transitoria, sino permanente. Tampoco es una medida destinada a los penados: Presas y presos políticos vascos, desde su ingreso en prisión y, como ya hemos dicho, incluso antes de ser juzgados, permanecen alejados hasta su excarcelación. Esto significa que deben añadir al cumplimiento de su condena, una pena que no ha dictado ningún tribunal: el alejamiento sistemático y permanente de su entorno familiar, afectivo, cultural y social. Este alejamiento se puede vestir de maneras diferentes, más o menos adornadas, pero tiene un significado inequívoco: destierro. Y en abierta oposición a la pretendida finalidad de reinserción y resocialización de la política penitenciaria, sólo puede propiciar el desarraigo”* ⁶⁸.

Horrenbestez, aipatutako dispersio politika horrek azken finean presoak beraien etxe, familia eta lagunengandik urruntzea eragiten dute. Era horretara, komunikazioak edota bisitak eduki izan ahal ezker, terrorismoagatik kondenatutako presoek familiakideak kilometro luzez egin behar dute bidea. Baldintza honek bergizarteratzeko printzipioa gogorki urratzen du.

Roig Torresen arabera, pertsona bat gutxieneko iraupen bezala 25, 30 edota 35 urtez kartzelan dagoenean, bergizarteratu ezin dela erakusten da, urte guzti horietan gizarteaz baztertuz berriz ere deliturik burutzeko aukerak murriztuz. Estatuaren jokaera hau kondenatuarekiko isolatze sinple eta gogor bat baino ez da, nahiz eta zigorra maiztasun handiko berrikusenez apaindu. Hau da, kondenatua den pertsona, hogeita hamabost urte kartzelan pasa ondoren, oraindik arrikutsu bezala kontsideratzen bada, suposatzen da nahiz eta urte bat edo bi gehiago pasa bere bergizarteratzeko pronostikoa ez dela aldatuko.

⁶⁷ Roig Torres, M., (2016), La cadena perpetua en el derecho alemán y británico. La prisión permanente revisable, Iustel, Madrid, 185. orrialdea.

⁶⁸ Política de Dispersión: Alejamiento. Etxerat.

Online eskuragarri: https://www.etxerat.eus/descargas/informes/dossier/Alejamiento_es.pdf

Beraz, nahiz eta Giza Eskubideen Europar Auzitegiak Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorra ankerra ez delaren argudioarekin mantendu, esan daiteke zigor mota honek beste zigorrekin alderatuz, sufrimendu edota doilortze askoz handiago eragin dezakeela. Hala ere, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren inkonstituzionalitatea gehien erakusten duena, zigor honen berrikuspenerako eskatzen diren baldintza edo eskakizunen zehaztapen eskasera mugatzen da ⁶⁹.

6.4. Proporzionaltasun printzipioaren urrapena

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrian proporzionaltasun printzipioari dagokionez, bi aspektu aztertu behar dira. Alde batetik, legegileak zigor honen beharrezkotasuna eta egokitasuna baloratzeko izan beharreko proporzionaltasunean zentratuko gara. Beste alde batetik, epaileari zuzendutako proporzionaltasuna landuko da, hau da, iraupen bakarreko zigor batean, supostu bakoitzeko egoera espezifikoak baloratu daitezkeen edota horren kontrara, tratamendu bateratua eman behar den ⁷⁰.

Legileari zuzendutako aldean, printzipio honek subjektu aktiboaren askatasunean gehiegizko sakrifizioerik ez eragitea du muga bezala. Horretarako, egokitasuneko, beharrezkotasuneko eta proporzionaltasuneko baldintzak bete behar dira. Honen inguruan, Auzitegiak Konstituzionalak dioen bezala, hartzen den neurria konstituzionalki legitimoa izateaz gain, bakarra izan behar da. Hau da, behar bezala arrazoitua agertu behar da ez dagoela helburu bera jarraitzen duen neurri gizatiarrago eta eraginkorragorik ⁷¹.

Zigorraren egokitasuna aztertzen dugunean, bere helburua zein den galdetu behar dugu. Hau da, bere helburua zigorra, aurrezaintza berezia edo aurrezaintza orokorra den aztertu behar dugu. Zigorraren beharrezkotasunaz ari garenean, helburu berdina lortzeko beste neurri gizatiarrago eta eraginkorragorik ez dagoenean oinarritu behar gara. Baliteke puntu hau izatea arazo gehien sortzen dituen, izan ere, zigor iraunkorra kondena askatasun gabetzaile luzeekin tartatzen denean, ez da ulertzen oso ondo zein den bere erregulaziorako

⁶⁹ Cervelló Donderis, V., (2016), *Prisión perpetua y de larga duración. Régimen jurídico de la prisión permanente revisable*, Tirant lo Blanch, Valencia, 136. orrialdea.

⁷⁰ Cervelló Donderis, Op.Cit., 120. orrialdea.

⁷¹ Juanatey Dorado. C., (2013), "Una moderna barbarie: la prisión permanente revisable" *Revista General de Derecho Penal* 20.

beharrizana. Argi dagoena da, batez ere sektore sozialen asebetetzeaz arduratzen den Zigor Zuzenbidearen interes populista eta propagandistak zerbitzatzen dituela, eta ez pertsona bakoitzaren berme eta eskubideak.

Proporzionaltasun zorrotzari dagokionez, interes orokorraren eta kalte indibidualaren arteko ponderazioa edo neurritasuna eskatzen da. Horrenbestez, balantza norantz okertuko den aztertzeke asmoz, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren onurak interes indibidualentzako kostuekin alderatu behar dira. Gizartearentzako onurak anitz eta ezberdinak dira, hasteko, zigor mota honen erregulazioarekin batera, beldurraren erabileraz, delitu larriak ekidingo dira. Gainera, delitu larri hauei ematen zaien erantzun penala dela eta, zigorgabetasun sentimendua handiagotuko da, Justiziarenganako konfidantza ere handituz. Hau guztia aurrezaintza orokorraren helburuarekin bat dator, izan ere, aurrezaintza bereziari eta bergizarteratzeari dagokienez, efektua nulua da.

Ríos Martínen arabera, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren eta arauak duen aurrezaintzaren helburuaren artean, disfuntzionaltasun argia ageri da. Izan ere, helburu berdina oinarrizko eskubideak era lasaiagoan kaltetzen dituen beste neurri batzuen bitartez lortu daiteke. Gainera, erantzun penala eskubide konstituzionalengatik mugatuta egon behar da, batez ere, duintasuna, zigor eta tratu ankerren debekua eta bergizarteratzea ⁷².

Zigor honen proporzionaltasunari dagokionez, kontuan hartzekoa da baita ere zigor honen aplikazio judizialeko betearazpena. Izan ere, bere inposizio automatikoa dela eta sortzen den flexibilitate falta eta graduaziorako tarte txikia, delituen larritasunaren eta subjektuen ezaugarri indibidualen arteko desberdintasunak baloratzea oztopatzen du. Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren marko legalean ez denez zigor honen gehieneko eta gutxieneko iraupena zehazten, epaileak ez du portaeraren larritasun desberdina delitu tipoarekin harremanetan baloratzeko tarterik ⁷³.

⁷² Cervelló Donderis, V., (2016), Prisión perpetua y de larga duración. Régimen jurídico de la prisión permanente revisable, Tirant lo Blanch, Valencia, 123. orrialdea.

⁷³ Cuerda Riezu A., (2011), “Cadena Perpetua y las Penas Muy Largas de Prisión”, Atelier, Barcelona, 86. orrialdea.

6.5. Gizatasun printzipioaren urrapena

Babes internazional handieneko printzipioetako bat da gizatasun printzipioa. 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 5. artikulua dioen bezala “*nadie será sometido a torturas ni a penas o tratos crueles, inhumanos o degradantes*”. 1966. urteko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 7. artikuluan ere Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko aldarrikapen berdina egiten da. Hainbat itun eta hitzarmen desberdinetan, giza duintasunaren aspektu guztiak biltzen dituen osotasun moralarekiko errespetua eskatzen da ⁷⁴.

Espainiar Konstituzioko 15. artikuluan ere goian aipatutako eskakizun berdina aldarrikatzen da, hau da, inor ezin izango da tortura, zigor edota tratu ankerrengatik menderatua izan. Aldarrikapen honek bi zentzu izan ditzake, alde batetik, bat zabala eta beste alde batetik, beste bat zehatzagoa. Zentzu zabalean, zigorren gizatasuna kondena hauen iraupenaren arabera neurtu daiteke, izan ere, hainbetse denborako zigor askotasun gabetzaile bat betetzeak tratu anker eta iraingarriak pairatzea suposatzen dezake. Horren ondorioz, horren espetxe zigor luzeek gizakion duintasunean zein modutara eragiten duten baloratu beharko genuke. Zentzu hertsian, baloratu beharrekoa da zein espetxe baldintza edota betearazte moduk eragiten dituen tratu anker horiek ⁷⁵.

Iraupen oso luzeko edozein espetxe zigorren izaera ankerra, zigortuak denboraren poderioz pairatuko dituen ondorioetan oinarritzen da. Era horretara, kondenatuta dagoen pertsona gauza bihurtzen doa, denboraren objektu bat izango balitz bezala, ondorioz tratu ankerrak sortzen dira. Presoaren egoera hau autonomia indibidualeko eta oreka emozionaleko “gaixotasunagatik” gauzatzen da, izan ere, hainbeste denbora segidan espetxe erregimenean murgilduta egonik eta askatasuna noiz iritsiko den jakin gabe, mesfidantza oraindik eta handiagoa egiten da. Era horretara, kondenatuak izango duen askatasunerako esperantza eskasa dela eta, bere bizitzarako oinarritzko helburuak alde batera uzten dira,

⁷⁴ Cervelló Donderis, V., (2016), Prisión perpetua y de larga duración. Régimen jurídico de la prisión permanente revisable, Tirant lo Blanch, Valencia, 125. orrialdea.

⁷⁵ Cervelló Donderis, Op.Cit., 125. orrialdea.

bergizarteratzerako asmoan ere pentsatu gabe. Ondorioz, kondenatuaren nortasuna suntsitzen eta desmoralizatzen bukatzen da ⁷⁶.

Ferrajoliren aburuz, espetxealdi iraunkorra heriotza zigorra bezain ankerra da, izan ere, lehenengo honek ez du askatasuna kentzen, bizitzarako esperantza baizik. Gainera, zigortuko den pertsona gizartetik botatzerakoan ezabatua izango balitz bezala sentituko da ⁷⁷. Horretaz gain, aipatu beharrekoak dira Laura Pascual Matellaránen hitzak: *"También atendería esta medida, desde mi punto de vista, contra el artículo 15 de la Constitución, el cual prohíbe los tratos inhumanos y degradantes, ya que, a mi parecer, la cadena perpetua es exactamente igual de inhumana que la pena de muerte; para los reclusos es incluso peor. Un ejemplo de ello lo tenemos en Italia, cuando en el año 2007, 310 presos italianos condenados a pena de prisión permanente revisable presentaron un escrito al presidente de la República, Giorgio Napolitano, que señalaba lo siguiente: "Señor presidente de la República, estamos cansados de morir un poco todos los días. Hemos decidido morir una sola vez, pedimos que nuestra pena a la cadena perpetua se convierta en pena de muerte"* ⁷⁸.

1978ko Espainiar Konstituzioa onartu zenetik, Auzitegi Gorenaren eskutik oso jurisprudentzia zabala aurkitzen dugu. Izan ere, honen aburuz, iraupen oso luzeko espetxe zigorrek bergizarteratzea eman dadin oztopatzen dute, gainera, tratu oso iraingarri eta ankerrak dira. Era horretara, baliteke Espainiar Konstituzioko tratu krudelen debekua urratzea.

Torturaren aurrezaintzarako Europar Batzordeak dioenez, iraupen oso luzeko espetxealdira kondenatutako pertsonen aplikatzen zaien tratamenduetan, isolamendu horrek

⁷⁶ Cervelló Donderis, V., (2016), Prisión perpetua y de larga duración. Régimen jurídico de la prisión permanente revisable, Tirant lo Blanch, Valencia, 126. orrialdea

⁷⁷ Ferrajoli, L. (1992), "Ergastolo y derechos fundamentales". *Dei delitti e delle pene*, 2. zk, *El sistema de penas del Nuevo Código Penal*, itzulpena. Asociación peruana de Derecho Penal 1999.

⁷⁸ Pascual Matellán, L., (2015), "La prisión permanente revisable. Un acercamiento a un derecho penal deshumanizado", Barcelona, 62.orrialdea.

eragiten dizkien sentimendu negatibo horiek orekatzeko asmoz, mekanismo positiboak erabili beharko lirateke ⁷⁹.

Hain iraupen luzeko espetxe zigorren ankerkeriaz hitz egiterakoan, ez dugu soilik honen iraupena kontutan hartu behar zigor krudela dela determinatzeko. Hau da, kontutan izan behar den beste faktore bat zigorra betearazteko modua da.

Kondenatuta dagoen pertsona batek askatasuna lortzeko figurez gozatzeko aukera badu ere, horrek ez du esan nahi tratu ankerrak pairatzea oztopatzen denik. Izan ere, figura horiek lortzeko eskatzen diren baldintza zorrotzak direla eta, sarritan gozamen hori ezinezkoa izatea eragiten dute ⁸⁰.

Horrenbestez, gizatasun printzipioaren protagonismoa dela eta, doktrinaren gehiengoak, nahiz eta ados egon delituaren gehiegizko iraupenak bergizarteratzean oztopatzen duela, benetan urratzen den printzipioa gizatasunarena da. Izan ere, iraupen luze eta askatasun gabetze jarraia dela eta, kondenatuak tratu anker eta iraingarriak pairatzen ditu⁸¹.

6.6. Askatasun eskubidearen urrapena

Barne Ministeritzako urteroko kriminalitate estadistikak begiratuta, eta batez ere Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutakoak kontutan izanda, 2020. urtetik 2021. urtera arteko kriminalitate tasa %29,4 jaitsi da ⁸². Horrenbestez, zigor mota honekin

⁷⁹ Comité Europeo para la prevención de la tortura y de las penas o tratos inhumanos o degradantes, Undécimo Informe general de actividades, 2001eko irailak 3an argitaratua, 17. orrialdea.

⁸⁰ Ríos Martín, J.C., (2013), La prisión perpetua en España. Razones de su ilegitimidad ética y su inconstitucionalidad. San Sebastián, 156. orrialdea.

⁸¹ García Arán, M.. (2006), “La ejecución penitenciaria en una sociedad cambiante: hacia un nuevo modelo”. *La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, 30.zk, 7. orrialdea.

⁸² Anuario Estadístico del Ministerio del Interior de 2020, lehenengo hiruhileko kriminalitate balantza. Online eskuragarri:

<https://estadisticasdecriminalidad.ses.mir.es/publico/portalestadistico/portal/datos.html?type=pcaxis&path=/DatosBalanceAnt/20211/&file=pcaxis>

zigortzen diren delituak ez dira areagotu, era horretara, ulertu dezakegu Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren aplikazioa gure ordenamendu juridikoan beharrianik gabe egin dela.

Aldi berean, Botere Judizialeko Kontseilu Orokorraren aburuz, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren erregulazioak ez du justifikazio handirik. Izan ere, Espainia ez da bizitzaren aurkako delitu asko burutzen dituen herrialde nabarmendu bat ⁸³. Gainera, aipatu beharra dago erreforma planteatu zenean, delitu terroristak edota banda armatuen portaera deliktiboak ekiditeko asmoz, talde hauen erasoak nabarmenki gutxitu ziren. Horrenbestez, puntu honetan ere ez du zentzu handirik Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren erregulazioak. Zigor honek kondenatuaren askatasuna ia bere osotasunean gabetzen du, gainera ez du gertaeraren ezta erruduntasunaren balorazio bat egiteko tarterik ezta ematen.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren marko legalean ez denez iraupen zehatzik determinatzen, ezin izango dira Zigor Kodeko 21. artikuluan barnebiltzen diren aringarriak aplikatu, hala nola, droga edota alkohol adikzioa, damua, aitorpena, etab ⁸⁴.

Laburbilduz, burututako delituaren larritasunak ez du Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria justifikatzen, izan ere, hau ezin da abstraktuki zehaztu. Izan ere, era horretara egoeraren edota portaeraren zirkunstantziak, subjektuaren erruduntasuna... baloratzeari utziko litzaioke, azken finean delitu ez hain larria dela baloraturaz. Horregatik, mota honetako zigor

⁸³ Eurostat Statistics Explained, Estadísticas sobre la delincuencia, 2014ko urtarrila. Online eskuragarri:

https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Archive:Crime_statistics/es

⁸⁴ Zigor Kodeko 21. artikulua: “*Son circunstancias atenuantes: 1.ª Las causas expresadas en el capítulo anterior; cuando no concurrieren todos los requisitos necesarios para eximir de responsabilidad en sus respectivos casos. 2.ª La de actuar el culpable a causa de su grave adicción a las sustancias mencionadas en el número 2.º del artículo anterior. 3.ª La de obrar por causas o estímulos tan poderosos que hayan producido arrebatos, obcecación u otro estado pasional de entidad semejante. 4.ª La de haber procedido el culpable, antes de conocer que el procedimiento judicial se dirige contra él, a confesar la infracción a las autoridades. 5.ª La de haber procedido el culpable a reparar el daño ocasionado a la víctima, o disminuir sus efectos, en cualquier momento del procedimiento y con anterioridad a la celebración del acto del juicio oral. 6.ª La dilación extraordinaria e indebida en la tramitación del procedimiento, siempre que no sea atribuible al propio inculpado y que no guarde proporción con la complejidad de la causa. 7.ª Cualquier otra circunstancia de análoga significación que las anteriores*”.

bat inposatzean, hau da, bestelako zigor alternatiboren bat aurkitzeko tarterik ez egotean, kondenatuaren askatasun pertsonalaren aurka atentatzen da.

7. Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria indarrean jartzearen aldeko eta kontrako argudioak

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorraren erregulazioari dagokionez, hainbat iritzi ezberdin aurkitu ditzazkegu. Hainbat autore zigor honen aplikazioaren alde eta kontra posizionatzen dira, era horretara, argudio ezberdinak aurkeztuz. Autore ezberdinak hartuko ditugu kontuan alderaketa hau egiteko, Juan Antonio Lascuráin, Laura Pascual Matellán eta Ramón Rodríguez Arribas.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorraren aldeko argudioei dagokienez Ramón Rodríguez Arribasen aburuz, zigor mota hau ez doa bergizarteratze printzipioaren aurka. Izan ere, bere iritziz Espainiar Konstituzioko 25.2. artikuluan ageri den bezala, bergizarteratzea ez da zigorraren helburua, horretara bideratutako kondena baizik. Hurrengo hau dio Ramón Rodríguez Arribasek bere Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria kondenatutako pertsonen inguruan: *“en el caso de gravísimos crímenes, si transcurrido el tiempo de una condena prolongada, aunque mínima inicialmente, el delincuente sometido al tratamiento resocializador, continuara siendo un peligro para los demás, es patente que aquel remedio había resultado insuficiente y es razonable pretender continuarlo por un tiempo mayor; porque lo que no es justo de ninguna manera es someter al resto de los ciudadanos al riesgo, más que probable, de que el delincuente no resocializado cometa nuevos crímenes; y ello es así porque, de paso, hay que afirmar que también son dignos de protección los derechos humanos de quienes son víctimas de terroristas no arrepentidos o de psicópatas no curados”*⁸⁵.

Autore honen iritziz, delitu oso larrietan kondenatuak nahiz eta bergizarteratzeko tratamenduetan parte hartu, bere berreziketa behar bezala ematen baldin ez bada, eta oraindik gizarteari begira pertsona arriskutsu bat bada, ondo ikusten du kondenatuak kartzelan jarraitzea. Izan ere, bere ustetan, ez da justua herritar orori delitu bat pairatzeko arrisku hori gehitzea.

⁸⁵ Arribas Rodríguez, R., (2015), Prisión Permanente Revisable, Ex-Vicepresidente del Tribunal Constitucional, Diario del Derecho, Iustel, 2015eko otsailak 4.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren kontrako argudioei dagokienez, ordea, Juan Antonio Lascurainen iritzia hartuko dugu kontuan. *“La pena no es un conjuro para corregir la historia sino una estrategia para que el futuro no sea tan malo. Solo en ello encuentra sentido el sinsentido de encerrar a una persona. Si no miramos hacia delante, si nos quedamos en que “se lo merece” o en que “el que la hace la paga”, la cárcel no será sino un mal que se sume al mal que generó el encerrado. Ya lo dijo Séneca, en boca de Platón: nemo prudens punit quia peccatum est, sed ne peccetur. Como sociedad prudente no penamos porque se haya delinquido, sino para que no se delinca. Es esa eficacia la que debemos buscar. Y la que va a imponernos límites, porque penar más allá de lo que requiere esta función disuasoria no es más que “un derroche inútil de coacción”*⁸⁶.

Lascurainen hitzak irakurtzerakoan, delitu eta indibiduoarekiko zigor eraginkor baten bila joan behar dugula ulertu dezakegu. Hau da, Ramón Rodríguez Arribasen iritziz gizartean behar bezala bizitzeko gai ez den pertsonak kartzelaratu jarraitu behar du, nahiz eta gehieneko espetxe muga gainditu. Honen ustez, injustua da herritarrak arriskugarritasun horretara aurkeztuta egotea. Bigarren autore honen kasuan, ordea, bere iritziz zigor mota hau guztiz iraunkorra da. Izan ere, behin berrikuspena eman ahal izateko gutxieneko iraupena pasata eta berrikuspenak ezeztatuta, ulertuko da pertsona horrek ez duela bergizarteratzeko pronostiko onuragarria, horrenbestez, kartzelan isolatuta jarraituko du. Kasu honetan, nahiz eta berrikuspen horren bermea eman kondenatutako pertsonari, hau ezeztatzerakoan jada iraunkortasun horrekin aurkitzen da. Era horretara, Espainiar Konstituzioan aurreikusten diren printzipioak urratuz.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria indarrean sartzearen aurkako argudioei dagokienez, kontutan izatekoa da baitaere, iraupen oso luzeko zigor askatasun gabetzaileen beharizanaren zergatia eta honen eraginkortasuna. Izan ere, Laura Pascual Matellanek dioenez, *“lo primero en lo que se piensa, debido a la dureza de la pena, es en un aumento de los delitos especialmente graves que haya podido llevar a nuestro Gobierno a plantearse una forma de hacerles frente por medio de una pena privativa de libertad de por vida, con el fin de inocuizar a los autores de estos delitos. No parece ser este el motivo, debido a que justo está ocurriendo lo contrario: no sólo no se ha producido un aumento de la criminalidad, sino*

⁸⁶ Lascuraín J.A., (2018ko otsailak 13), ¿Prisión permanente revisable?; Catedrático de Derecho Penal en la Universidad Autónoma de Madrid, Diario del Derecho, Iustel.

que ésta ha disminuido. Por si esto no fuera suficiente motivo, cabría reseñar que tampoco existe ningún estudio realizado por expertos que señale que un endurecimiento de las penas sirva para conseguir una disminución de la criminalidad en nuestro país" ⁸⁷. Autore honen iritziz, justizia zigortzaileago bat egotearen arrazoia, delitu larrien areagotzean oinarritzen dela suposatzen da. Hala ere, Laura Pascual Matellanak ere dioenez, hori ez da argudio erreala, izan ere, gorago aipatu dugun bezala, kriminalitate-maila ez da areagotu, txikitu baizik. Horretaz gain, esan beharra dago ez dagoela adituen eskutik egindako bestelako ikerketarik, non zigorren gogortzeak kriminalitatearen murriztea dakarren erakusten duen.

Horrenbestez, Espainiar estatuak Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria indarrean sartzeko erabilitako argudioak oinarri eskasekoak direla esan daiteke, izan ere, kriminalitate maila jaisten dago, igotzen baino. Gainera, esan dugun bezala iraupen oso luzeko zigorren areagotzeak, kodenatutako pertsonak periodo luzeagoan isolatuta eta baztertuta egoteak, ez du kriminalitatea murrizten.

Horretaz gain, aipatzekoa da ere komunikabideek Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren erregulazioan izan duten eragina. Izan ere, lehen aipatu dugun bezala, herritar gehienek Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria indarrean sartzerakoan, delitu larriak nabarmenki areagotzearen erantzuna dela pentsatu dezakegu. Gainera, telebista, egunkari, irrati edota bestelako komunikabideetan zenbait kasu deliktibori ematen zaien etengabeko lausengua dela eta, jende asko delitu horiek beraiek biktima izanda burutuko direnaz arduratuta eta beldurrarekin bizi da. Ez da bakarrik EIBren kasua, alarma soziala sortu dezaketen delitu larri eta ez hain larrien kasuan, komunikabideek ematen dioten garrantzi sozial eta politiko hori dela eta, manipulazioaren bitartez nahi dutena sinestarazten digute, bai beldurra sartuz zein gure kritika pertsonala oztopatuz. Era horretara, gizatasuna, enpatia... direnaz ahaztu eta delitua ulertzeko ikuspuntu desberdinak alde batera uzten ditugu, etsaitasun perspektiba horretan murgildurik. Aipatutako hitz hauek arrazoitzeko asmoz, Laura Pascual Matellanak honako hau dio: *"A pesar del descenso generalizado de los delitos en nuestro país, la atención que los medios de comunicación dedican al asunto ha ido en aumento. Esto lleva a la ciudadanía a pensar que el número de delitos ha aumentado, en lugar de haber disminuido. Los programas televisivos, en particular los denominados*

⁸⁷ Pascual Matellán, L., (2015), "La prisión permanente revisable. Un acercamiento a un derecho penal deshumanizado", Barcelona, 59.orrialdea.

“programas espectáculo”, han visto que todos los temas que se traten relacionados con el derecho penal, especialmente con los casos más graves, tienen un alto índice de audiencia. Todo lo que tiene que ver con homicidios, asesinatos, parece interesar mucho; de ahí que se realicen numerosos programas tratando este tipo de asuntos, haciendo juicios paralelos con diversos fines: políticos, ideológicos o simplemente económicos, con el objetivo de aumentar la audiencia a base de explotar las emociones humanas, conversando con la víctima de la violación, hablando con los padres de la persona asesinada... Todo esto va a desembocar en un aumento de la preocupación y del miedo al delito de la población, que pedirá mayor seguridad, mayor protección y, por tanto, reformas penales. Ante este deseo popular, no hay partido en el poder que se resista a intentar ganar votos a golpe de Código Penal y, por tanto, endureciendo las penas, endurecimiento que, como he dicho anteriormente, no sirve para frenar la delincuencia”⁸⁸.

8. EIBra kondenatutako presoen bergizarteratzea

Berdintasun eta gizatasun printzipioetan oinarritutako gizartean, delitua burutu duten pertsonen bergizarteratzea edota berreziketa bermatuko dien zigor sistema bat izan behar dugu. Horregatik, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria ez da aipatutako bergizarteratze horretan lagunduko duen neurrietako bat. Izan ere, nahiz eta honen konstituzionalitatea bere berrikuspenetan oinarritu, kondenatuak bergizarteratzeko pronostiko onuragarria baldin ez badu, gizartearentzako arriskutsua denaren argudioarekin, espetxean isolatuta jarraituko du. Horrenbestez, kartzela zigorraren iraupena gero eta handiagoa bada, orduan eta urrunago egongo da bergizarteratze printzipiotik⁸⁹. Laura Pascual Mantellaren hitzetan ere honako hau irakurri dezakegu: *“El hecho de condenar a una persona de por vida parece que atenta de forma directa contra el artículo 25.2, que señala que la reeducación y resocialización son los fines de la pena. El añadir el término “revisable” no cambia la situación. Ya Röder, famoso jurisconsulto alemán creador del correccionalismo penal, señalaba que pasar largas temporadas en el presidio (superiores a seis años) era incompatible con una corrección; así como la convivencia de presos, ya que, lejos de conseguir que los buenos contagien a los*

⁸⁸ Pascual Matellán, L., (2015), "La prisión permanente revisable. Un acercamiento a un derecho penal deshumanizado", Barcelona, 60. orrialdea.

⁸⁹ Cuerda Riezu, A., (2011), “Cadena perpetua y las penas muy largas de prisión, Altetier, Barcelona, 59-81. orrialdeak.

malos, los malos convertían en malos a los buenos. De ahí que toda su teoría se articulara en base a los principios de separación de presos y terapias intensivas, ninguna de ellas superior a los seis años de encierro”⁹⁰.

Beraz, nahiz eta zigor mota hau berrikusgarria izan, lehenengo berrikuspenerako pasatu beharreko gutxieneko denbora oso luzea da, gainera, horri zigorraren gehieneko iraupena zein den ez jakitea gehitu behar zaio, bizitza osoa bertan pasatuko ote duen jakin gabe. Gainera, hainbat ikerketa egin ondoren, hainbat autorek diote sei urte baino gehiagoko kartzela zigorretan ez dela behar bezalako berreziketa ematen, horren ondorioz, kurtsadura kriminala ematen da. Hau da, espetxe zigorrera kondenatutako pertsona asko sartzen direna baino "txarrago" ateratzen dira. Beraz, aipatutako ezaugarriak direla eta orokorrean oso zaila da bergizarteratze hori bermatzea. Azken finean, kartzelara sartzearen esperantza hori noz ateratzean oinarritzen da, beraz, kondenatuak espetxetik noiz aterako den ez jakiterakoan bergizarteratzeko probabilitate hori gutxitzen doa.

Horretaz gain, aipatu beharreko beste puntu bat Cuerda Riezu dudan jartzen dituen espetxe gastuak dira⁹¹. Hau da, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorrera kondenatua izaterakoan, urte kopuru luzez egongo da zigortua kartzelan. Lehen esan bezala, bergizarteratzeko pronostiko onuragarria ez izanez gero, kondenatuak kartzelan jarraituko du. Izan ere, gizartearentzako arriskutsua dela ulertuko da. Kasu honetan, kondenatuak espetxean pasatuko du bere bizitzako zati oso handi bat, horrenbestez, honen mantenturako, bizi kalitatea bermatzeko asmoz gutxieneko gastu batzuk egin behar dira.

El Confidencial aldizkari digitalak bere artikulu batean adierazten duen bezala, *“cada preso que cumple condena en una de las más de 80 prisiones dependientes de la administración del Estado, todas las cárceles excepto las de Cataluña, supondrá para las arcas públicas en 2021 una media diaria de 70,92 euros, lo que convierte al sistema penal español en uno de los más caros de la UE”⁹²*. Beraz, aipatutako datu hauek kontutan izanda,

⁹⁰ Pascual, Manterán, Op.Cit. 61.orrialdea.

⁹¹ Cuerda Riezu, A., (2011), "Cadena perpetua y las penas muy largas de prisión, Altelier, Barcelona.

⁹² Cada preso en España costará casi 71 euros al día al Estado en 2021, El Confidencial, 2020ko azaroak 6.

pertsonalki indibiduo ororentzako bergizarteratzea garrantzitsua izateaz gain, ekonomikoki ere, herritar orori eragiten digun egoera da. Horrenbestez, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorrarekin bergizarteratzea alde batera utzi eta isolamenduarekin bat doa, kartzela gastuak handituz. Beraz, horretarako bergizarteratzeko modelorik egokiena aplikatu beharko litzateke, era horretara, iraupen luzeko espetxe zigorretara kondenatutako presoak berreziketaren bidez modu eraginkor eta baketsuan bergizarteratzen direlarik.

Gaur egungo kartzeletan erabiltzen den bergizarteratzeko metodo nagusia espetxe tratamendua da, ELOOko III. izenburuko 59-72. artikuluetan eta Espetxe Erreglamenduko V. izenburuko 110-153. artikuluetan aurreikusten eta erregulatzen dena.

ELOOko 71. artikulua⁹³ arabera, espetxeek preso bakoitzaren tratamendua erraztea dute helburu. Tratamendu honen helburua, zigorrera kondenatuta dauden pertsonak gizartean modu baketsuan bizitzeko gaitasuna lortzea da, delituan berriz ez berreroriz. Hori dela eta, oso garrantzitsua da bai maila sozial zein idibidualean pertsona hauen erantzukizuna garatzea eta indartzea.

Gaur egun espetxeetan aurrera eramaten den tratamendua jarduera eta formakuntza multzo edo konbinazio bat dela esan daiteke. Zeinen helburua bai zigor askatasun gabetzaile zein segurtasun neurrietan, berreziketa eta bergizarteratzea ematea den⁹⁴.

Online

eskuragarri:https://www.elconfidencial.com/espana/2020-11-06/coste-presos-estado-euros-dia-2021_2822979/

⁹³ 1/1979ko irailak 26ko ELOOko 71. artikulua: “1. *El fin primordial del régimen de los establecimientos de cumplimiento es lograr en los mismos el ambiente adecuado para el éxito del tratamiento; en consecuencia, las funciones regimentales deben ser consideradas como medios y no como finalidades en sí mismas.*

2. *Las actividades integrantes del tratamiento y del régimen, aunque regidas por un principio de especialización, deben estar debidamente coordinadas La Dirección del establecimiento organizará los distintos servicios de modo que los miembros del personal alcancen la necesaria comprensión de sus correspondientes funciones y responsabilidades para lograr la indispensable coordinación”.*

⁹⁴ 1/1979ko irailak 26ko ELOOko 59. artikulua: “1. *El tratamiento penitenciario consiste en el conjunto de actividades directamente dirigidas a la consecución de la reeducación y reinserción social de los penados.*

ELOOko 62. artikuluan aipatutako tratamendu hau aurrera eramateko portaerak zehazten dira ⁹⁵. Artikulu honetako lehenengo bi atalak kondenatuaren nortasunaren ikerketan oinarritzen dira. Zigortutako pertsonaren ikerketa zientifikoa egin behar da, hau da, bere eraketa, izaera, jarrera, gaitasunak, bere sistema dinamiko-motibazionala, nortasunaren garapena... aztertu behar dira. Era horretara, bildutako informazioa kondenatuaren

2. El tratamiento pretende hacer del interno una persona con la intención y la capacidad de vivir respetando la Ley penal, así como de subvenir a sus necesidades. A tal fin, se procurará, en la medida de lo posible, desarrollar en ellos una actitud de respeto a sí mismos y de responsabilidad individual y social con respecto a su familia, al prójimo y a la sociedad en general”.

⁹⁵ 1/1979ko irailak 26ko ELOOko 62. artikulua: *“El tratamiento se inspirará en los siguientes principios:*

a) Estará basado en el estudio científico de la constitución, el temperamento, el carácter, las aptitudes y las actitudes del sujeto a tratar, así como de su sistema dinámico-motivacional y del aspecto evolutivo de su personalidad, conducente a un enjuiciamiento global de la misma, que se recogerá en el protocolo del interno.

b) Guardará relación directa con un diagnóstico de personalidad criminal y con un juicio pronóstico inicial, que serán emitidos tomando como base una consideración ponderada del enjuiciamiento global a que se refiere el apartado anterior, así como el resumen de su actividad delictiva y de todos los datos ambientales, ya sean individuales, familiares o sociales, del sujeto.

c) Será individualizado, consistiendo en la variable utilización de métodos médico-biológicos, psiquiátricos, psicológicos, pedagógicos y sociales, en relación a la personalidad del interno.

d) En general será complejo, exigiendo la integración de varios de los métodos citados en una dirección de conjunto y en el marco del régimen adecuado.

e) Será programado, fijándose el plan general que deberá seguirse en su ejecución, la intensidad mayor o menor en la aplicación de cada método de tratamiento y la distribución de los quehaceres concretos integrantes del mismo entre los diversos especialistas y educadores.

f) Será de carácter continuo y dinámico, dependiente de las incidencias en la evolución de la personalidad del interno durante el cumplimiento de la condena”.

Online eskuragarri:<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1979-23708>

protokoloan ordenatuz. Horretaz gain, datu pertsonal, familiar eta sozialekin batera bere historia eta jarduera deliktiboa kontutan izan behar dira. Artikulu honetako azken lau atalek tratamendua indibidualizatua izan behar dutela aurreikusten dute, kondenatuaren pertsonalitatean oinarrituz.

Beste alde batetik, gaur egungo Espetxe Erreglamenduak, bere 110. artikuluan, tratamendu honek izan beharko lituzkeen hiru helburu oinarritzko aipatzen ditu. Hala nola, formakuntza, gaitasun psikosoziala eta bergizaretratzea. Horrenbestez, tratamendu honen helburu nagusia, zigortutako pertsonaren jarrera aldatuz, behin askatasunean dagoenean, modu egoki eta baketsuan gizartean bizitzeko gaitasuna izatea izango litzateke ⁹⁶.

Aipatu beharra dago, kondenatuen tratamendurako gehien erabilitako programak tipo kognitibo-konduktualekoak direla. Tratamenduaren ezaugarri nagusietako bat kondenatuaren borondatea, izan ere, borondate hau derrigorrezkoa da tratamenduaren eraginkortasuna bermatzeko eta zigortutako pertsonaren eskubideak errespetatzeko. Horretaz gain, garrantzitsua izango da tratamendua aurrera daraman pertsonak portaera horretatik onurarik ez ateratzea. Tratamenduak derrigorrezko izaera hori ez izaterakoan, presoak hau baztertzeko aukera izan dezake, era horretara, teorikoki bazterketa horrek kalte edota ondorio negatiboak ez suposatu ⁹⁷.

⁹⁶ Real Decreto 190/1996, de 9 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento Penitenciario. Espetxe Erreglamenduko 110. artikulua: *“Para la consecución de la finalidad resocializadora de la pena privativa de libertad, la Administración Penitenciaria:*

a) Diseñará programas formativos orientados a desarrollar las aptitudes de los internos, enriquecer sus conocimientos, mejorar sus capacidades técnicas o profesionales y compensar sus carencias.

b) Utilizará los programas y las técnicas de carácter psicosocial que vayan orientadas a mejorar las capacidades de los internos y a abordar aquellas problemáticas específicas que puedan haber influido en su comportamiento delictivo anterior.

c) Potenciará y facilitará los contactos del interno con el exterior contando, siempre que sea posible, con los recursos de la comunidad como instrumentos fundamentales en las tareas de reinserción”.

⁹⁷ Real Decreto 190/1996, de 9 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento Penitenciario. Espetxe Erreglamenduko 112.3. artikulua: *“3. El interno podrá rechazar libremente o no colaborar en la realización de cualquier técnica de estudio de su personalidad, sin que ello tenga consecuencias disciplinarias, regimentales ni de regresión de grado”.*

Espetxe tratamenduen beste ezaugarri bat bere orokortasuna da, izan ere, honetarako oso faktore anitzak hartzen dituzte konuan, eta ez faktore konkretu eta espezifikoak. Vicenta Cervelló Donderisek dioenez, tratamenduaren orokortasun honek edozein presok parte hartzeko aukera duela azpimarratzen da. Ezaugarri honek, preso orok bergizarteratze metodora sarrera izatea errazten du, prebentiboak diren pertsonak ere barneratuz ⁹⁸.

Hala ere, aipatutako tratamenduaren bidez lortutako emaitzak direla eta, hainbat desadostasun sortu dira. Alde batetik, profesional askok uste dute tratamendua ez dela medio nahikoa preso dauden pertsonen bergizarteratzea lortu ahal izateko. Izan ere, nahiz eta tratamendua jaso beraien egunerokotasunean bestelako pertsonengandik aparteko leku isolatu batean aurkitzen dira. Non sortu daitezkeen gatazkak askoz ere anitzagoak diren eta ezin den ezta ondokoarekiko enpatia sentitu. Hala ere, faktore asko eta anitzak dira tratamenduaren eraginkortasunean eragiten dutenak. Hala nola, espetxeetan lan egiten duten profesionalen formakuntza, tratamenduan parte hartzen duten kondenatuen motibazioa, etab. Esan beharra dago gaur egunera arte ez direla tratamenduaren ondorio positiboak baloratu, horrenbestez, ez da honekiko konfidantza asko islatzen ⁹⁹.

Espetxe zigorrera kondenatutako presoek tratamendurako erreferentzia gisa izan beharreko modeloa bergizarteratzean oinarritutakoa izan behar da. Suposatzen da tratamenduaren aplikazioarekin batera, honen eboluzio egokia emanez gero, iraupen luzeko espetxe zigorrak laburtzen direla, zehaztugabeko sententziak baztertuz. Horrenbestez, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriko zigorraren gehieneko iraupena zehaztugabea denez, oso zaila da bergizarteratzea ematea. Izan ere, soilik sententzia zehaztuko eta gehieneko iraupena determinatuta duten zigorrek parte hartu ahal izango dute bergizarteratzeko modelo honetan. Horrenbestez, zigorraren izaera malguagoa izan beharko litzateke, era horretara, zigorraren iraupena laburtzeko aukera izanez, betearazpenerako baldintzak modifikatuz, etab¹⁰⁰.

⁹⁸ Murillo Valiño, A., eta Ruiz Torres, A. B., (2004), Un programa de tratamiento destinado al interno y su actitud frente al delito. *Revista de Estudios Penitenciarios*, 97-131. orrialdeak.

⁹⁹ Gallego Díaz, M., (2010), Tratamiento penitenciario y voluntariedad. *Revista de Estudios Penitenciarios*, 99-108. orrialdeak.

¹⁰⁰ Fernández Bermejo, D., (2014), El fin constitucional de la reeducación y reinserción social ¿un derecho fundamental o una orientación política hacia el legislador español?.

Goian esan bezala, tratamendua era egoki eta eraginkor baten aplikatu ahal izateko, zigorraren gehieneko iraupena zehaztuta egon behar da, eta ez Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren kasua Espainian, behintzat. Europar Kontseiluko Ministro Batzordeak bere Europar Espetxe Erreglamenduko gomendioan, tratamendurako neurrizko modelo errealista jarraitzea proposatzen du. Honen aburuz, lan-formakuntza, kirol, hezkuntza, kultura... formakuntzen bidez errazago emango da presoen bergizarteratzea ¹⁰¹.

Horrenbestez, bergizarteratzera bideratutako tratamendu modeloak modu eraginkorrean eragiteko, beste hainbat ezaugarri aipatu beharko lirateke:

- Bergizarteratzera bideratutako modelo honen inguruko kritikak, espetxeetan dagoen gehieneko biztanleriagatik eta baliabideen eskasiagatik ematen dira. Horregatik, sarritan bergizarteratzera zuzendutako programa hauen porrota ematen da, kondenatuen bergizarteratzea behar bezala ezin emanez.
- Denbora luzez kartzelan isolatuta egotea ez da ona inorentzat. Izan ere, honek kondenatutako pertsonaren itxaropen soziala, profesionala eta pertsonala oztopatzen ditu. Gizarteak, kartzelak eragiten dituen ondorio negatibo hauek ahultzen lagundu behar du, horretarako, presoengan sortutako karentzia edo gabezia horiek betetzeko instrumentuak erabiliz ¹⁰².
- Espainiar Konstituzioak berreziketa eta bergizarteratzearen inguruan hitz egiten du eta ELOOK zentzu klinikoan aplikatu beharreko tratamenduak erregulatzeko dituen.
- Datu estatistikoaren arabera, espetxe tratamendua jaso duten kondenatuen artean berrerortze urriagoa ematen da. Horretaz gain, aipatu beharra dago berrerortze tasa ere

¹⁰¹ Recomendación del Comité de Ministros de los Estados miembros sobre las reglas penitenciarias europeas, (Adoptado por el Comité de Ministros el 11 de enero de 2006 en la 952ª Reunión de Delegados de Ministros).

¹⁰² Roldán Barbero, H.: “El uso de la libertad condicional y su influencia en el tamaño de la población reclusa en España”, 4-16. orrialdeak.

txikiagoa dela presoak bere kondenaren parte bat hirugarren graduan pasatzen duenean ¹⁰³.

- Espetxe Administrazioak kartzelaren helburua bergizarteratzea delaren ideiarekin jardun behar du, horrenbestez mugatuta dago. Muga hauek gainditzen badira, presoek beraien errekursoak tarteratu ditzazkete. Gainera, legegilearentzako muga bat ere bada, izan ere, ezin ditu helburu hau jarraitzen ez duten zigorrak sortu ¹⁰⁴.

BIGARREN ATALA: Analisi kriminologikoa

1. Analisi kriminologikoa

- Helburua

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren inguruko gradu amaierako lan honen analisi kriminologikoari dagokionez, bi ataletan sailkatu dut. Alde batetik, maila sozialean, herritar orori zuzendutako inkesta bat egin eta zabaldu dut, horren bitartez, herritarrek zigor honen inguruan daukaten informazioan oinarrituta, beraien iritzia zein den aztertuz. Helburua, zigor hau etsaitasun ikuspuntutik ulertzen den ala gizatiarragoa den perspektibatik ematen den ikertzea da, herriaren ustez kondena hau beharrezkoa den ala ez aztertzea.

Inkestaz gain, zuzenbide arloan adituak diren profesionalen iritzia ere jaso nahi izan dut. Horretarako, Zigor eta Espetxe Zuzenbidean aditua den abokatu bat, Gipuzkoako Audientzia Probintzialeko magistratu bat, Martuteneko kartzelan lanean ibili izan den erizaina eta 23 urte kartzelan pasa izan dituen gaur eguneko abokatua elkarrizketatu ditut. Honen helburua, ikasketa, esperientzia eta ezagutza espezifikokoak biltzen dituzten pertsonen ikuspuntua aztertzea izan da. Oinarri juridiko batetik, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren beharrezkotasuna eta eraginkortasuna zenbatekoak diren aztertzea.

- Zailtasunak

¹⁰³ Cerezo Domínguez A. I. eta García España, E., (2007), “La prisión en España: una perspectiva criminológica”, Granada, 240. orrialdea.

¹⁰⁴ 1998ko martxoak 31ko Auzitegi Konstituzionaleko 75/98 sententzia. Oinarri juridikoa.

Esan beharra dago, atal analitiko hau lantzeko zailtasun zirkunstantzialak izan direla. Kontuan izanik pandemia garaian egon garela eta gaudela, ez da oso erraza izan elkarrizketak egiteko kontaktuak aurkitzea.

- Lagina

Lan honen analisi kriminologikoa landu ahal izateko erabilitako laginak hiru izan dira: herri mailan egindako inkesta, Zigor eta Espetxe Zuzenbidean aditua den abokatuari elkarrizketa, Gipuzkoako Audentzia Probintzialeko magistratuari, Martuteneko kartzelan lanean ibili izan den dem erizainari eta 23 urtez espetxean egon izan den gaur egungo abokatuari elkarrizketa.


1.1. Inkesta

Ikestaren 106 erantzunak biztanleria orokorra objektuaren adierazle ditugu, baliagarria izango zaigun datua gero gai honetan adituak diren profesionalekin alderatzeko.

- 1. Grafikoa: parte hartzaileen adina.

Indica tu edad

106 respuestas



Inkesta hau osatu duten pertsonen adina nahiko anitza da, hala ere, ikusi daitekeenez, batez ere gaztediak erantzun du. Gehien bat 25 urte baino gazteagoak diren pertsonak osatzen dute ikerketa, %39'6, 42 pertsonak. 25 eta 40 urte arteko pertsonen erantzuna ere izan dugu, %35'8 hain zuzen ere, guztira 38 pertsona izanik. Erantzunen %15'1, 40 eta 55 urte bitarteko jendeak osatu du, 16 erantzunekin. Inkestaren galderen %8'5, 55 eta 70 urte bitarteko pertsonak osatu dute, 9 pertsonak, eta azkenik, %0'9rekin, 70 eta 85


urte arteko pertsona batek erantzun du.

- 2. Grafikoa: parte hartzaileen sexua.

Bigarren grafiko honetan inkestan parte hartu duten pertsonen sexua bildu dugu. Esan beharra dago erantzunen erdia baino gehiago emakumeenak direla, %62'3, 66 erantzunekin. %36'8 ordea, gizonezkoen erantzunak dira, 39 guztira. Beste alde batetik, sexu batean ez bestean identifikatzen ez dek pertsona bat dugu, %0'9arekin.

Indica tu sexo

106 respuestas




- 3. Grafikoa: Espetxe zigorraren helburua.

Hirugarren grafikoan espetxe zigorraren helburuaz aritu gara, ea herritarren iritziz kartzela zigorrak, zigorra, bergizarteratzea edota mendekua jarraitzen duen. Kasu honetan, inkestatutakoen erdiak baino gehiagok, %61'3, hau da, 65 pertsonak, kartzelaren helburua zigorra dela uste du. Beste %36'8ak bergizarteratzeko helburuan sinisten du, 39 erantzunekin. Beste pertsona batek, 0'9, mendekua dela aipatu du, eta azkenengoz, beste 0'9ak ez dio erantzunik eman.


¿Cuál te parece que es la finalidad de la pena de cárcel?

106 respuestas



¿Crees que se respetan los derechos de lxs condenadxs?

106 respuestas



- 4. Grafikoa: presoen eskubideekiko errespetua.

4. Galdera honetan, presoen eskubideak bermatzen edo urratzen diren galdetu dugu. Galdera honen aurrean, %54'7ak, hau da, 58 pertsonak presoen eskubideak ez direla


errespetatzen uste dute. %35'8aren aburuz, 38 pertsona, bai errespetatzen dira, hala ere, %8'5ak, 9 pertsona, ez du erantzunik eman. Azkenengoz pertsona batek, %0'9arekin, presoek eskubideak batzuetan errespetatzen direla eta batzuetan urratzen direla uste du.

- 5. Grafikoa: kartzelan eman behar den behar bezalako berreziketa bergizarteratze egokirako.

Bosgarren grafiko honetan ezberdintasun handiko tartearekin, inkesta bete duten pertsonen %78'3ak uste du ez dela presoekiko behar bezalako berreziketa ematen. Hau da, 83 pertsonak uste dute kartzelan ez dela presoek behar bezalako berreziketa ematen bergizarteratze egokirako. Inkestatuen %11'3ak, 12 pertsona, uste du bai ematen dela, %9'4ak, 10 herritar, ez du erantzun zehatzik eman, eta pertsona batek, %0'9arekin ez du galdera hau erantzuten jakin.

¿Opinas que en la cárcel se da la reeducación debida para la correcta reinserción social del preso?

106 respuestas




- 6. Grafikoa: pertsona bat 35 urtez kartzelan sartzeko beharria.

Seigarren grafikoan, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako pertsona bat 35 urtez kartzelaratua izatea beharrezko ikusten duten galdetu dugu. Honen erantzunak nahiko antzekoak izan direla esan daiteke, hala ere, ezezko erantzunak gailentzen du %42'5arekin, 45

¿Te parece necesario meter una persona condenada a PPR 35 años en la cárcel?

106 respuestas




erantzun. Honen atzetik datoz baiezko erantzunak, %34, 36 pertsonen parte hartzearekin. Azkenengoz, %23'6ak ez dio galdera honi erantzuten jakin. Galdera honekin batera, honen zergatia ere jaso nahi izan dut, jende askoren aburuz, espetxe zigorraren iraupena ez dator bergizarteratzearekin bat, hau da, gero eta zigor gogorragoekin ez da bergizarteratze egoki edota eraginkorrago bat emango. Beste batzuen ustez, kondenatutako pertsonak bai ala bai bete behar du iraupen oso altuko espetxe zigorra, izan ere, hauen ustez, beste pertsona baten bizitza suntsitzerakoan edota amaitzerakoan zigor oso gogorra jaso behar du.

- 7. Grafikoa: Iraupen oso altuko Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren eraginkortasuna.

Zazpigarren grafiko honetan oso iraupen altuko espetxe zigorraren eraginkortasunaz aritu gara. %50'9aren ustez, 54 pertsona, ez da bergizarteratzeko eraginkorra pertsona bat hainbeste denboraz kartzelan, gizartetik baztertua izatea. Erantzun hau eman duten gehienek, uste dute pertsona bat hain epe luzez kartzelaratzean bergizarteratzearen aurka doala. Beste %33aren aburuz, 35 pertsona, eraginkorra da pertsona bat adibidez 30 urtez kartzelan giltzaperatzea. Galdera honi baiezkoa eman dioten pertsona askoren ustez, tipo honetako delituak burutu izan dituen presoak ez du bergizarteratzeko aukerarik. Hau da, beraien ustez kartzelan pasatako denborak gizartearentzako lasaitasuna dakar. Beste %15'1ak, 16 pertsona, ez du erantzun zehatzik eman. Azkenengoz, pertsona batek, %0'9, ez du jakin baiezko ala ezezko erantzuna ematen, izan ere, delitu honek hainbat portaera ezberdin aurreikusten ditu, zeintzuen gaineko ikuspuntua desberdina den delitu bat edo beste bat ematen denean.

¿Te parece eficaz meter en la cárcel durante un largo período (ej. 30 años) a una persona condenada a PPR?

106 respuestas



- 8. Grafikoa: kartzela persoaren bergizarteratzeko alternatiba egokiena?


Grafiko honetan, kartzela presoan bergizarteratzeko alternatiba edota bide egokiena den galdetu dut. Tarte handiko ezberdintasunaz, %64'2k, 68 pertsona, uste du espetxea ez dela presoaren bergizarteratzea emateko bidea.

Erantzun honen zergatiari dagokionez, baiezkoa eman duten pertsonen aburuz, kartzelan ez da behar bezalako berreziketa ematen, estatua zigorra bila bait doa. Horretaz gain, mota honetako hainbat erantzun jaso ditut: "No creo que sea lo mejor separar de la sociedad a alguien que tiene que aprender a vivir en ella".

Beste alde batetik, %19'8ak, 21 pertsona, ez du galdera hau zehaztasunez erantzun, honen zergatia gai honen inguruko informazio gabezia delarekin argudiatzen dute. Galdera honen aurrean baiezkoa eman dutenen 13 pertsonak %12'3 osatzen dute, eta hauek erabilitako arrazoiketa ez dutela kartzelaz aparteko alternatibarik aurkitzen da.

¿Crees que la cárcel es la mejor vía para reinsertar a un preso en la sociedad?

106 respuestas




- 9. Grafikoa: Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako pertsonen bergizartzea posible al da?

Grafiko honetan Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako presoan bergizarteratzean sinisten den ala ez jasotzen da.

%59'4ak, 63 pertsona, preso hauen bergizatzean sinisten du. Beste %25'5ak ezezko erantzuna eman du, 27 pertsona, hauen argudio ohikoena hurrengo hau izanik: "Si está toda la vida en la cárcel, difícilmente se la va a reinsertar. Además, parece la venganza del estado". "Una estancia en esas condiciones, no suele llevar a una reinsertión en la

¿Crees en la reinsertión social de una persona condenada a PPR?

106 respuestas



sociedad, ya que generalmente se tiende a criminalizar a cualquier preso".

Azkenengoz, geratzen den %15'1ak, 16 pertsona, ez du erantzuna zehaztu. Erantzun hau eman duten inkestatuek erabilitako argudioa, honen inguruko informazio gabezia izan da.

Laburbilduz, inkesta hau bete duten pertsonen aburuz, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriak jarraitzen duen helburua ehuneko handi batean zigorra da, gainera, inkestatuen beste portzentai handi baten ustez ez dira kondenatu hauen eskubideak errespetatzen. Bergizarteratzeari buruz galdetzerakoan, inkesta bete duten pertsonen %78,3aren ustez, ez da presoen behar bezalako bergizarteratzea ematen eta nahiz eta portzentaiak nahiko parekatuak atera, gehiengoak Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorra ez dela beharrezkoa uste du.

Gizartearen lagin txiki honen bitartez argi geratu zaiguna, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako pertsona bat hainbeste urtez kartzelaratua izatea ez dela eraginkorra ezta beharrezkoa da.

1.2. Elkarrizketak

Analisi kriminologikoa osatu ahal izateko, inkestaz gain beste baliabide batzuk ere erabili ditut, elkarrizketak. Kasu honetan, Zigor Zuzenbidean aditua den abokatu bat, Martuteneko kartzelan lan egin izan duen erizain bat eta hogeita hiru urte kartzelan pasa izan dituen gaur egungo abokatu bat elkarrizketatu ditut.

1.2.1. Zigor Zuzenbidean aditua den abokatua

Lehen pertsona elkarrizketatua, Zigor eta Espetxe Zuzenbidean espezializatutako letratua da. Nafarroako unibertsitatean graduatu zen eta gaur egun, "Estudio Jurídico Intrapenitenciario y Extrapenitenciario" bulegoan egiten du lan. Horretaz gain, Zigor eta espetxe Zuzenbideko arloko irakaslea da Big Datan, Ekonomia eta Zuzenbideko Goi-Institutuan. Bere bokazio osoz, hitzarekin hiritar ororen askatasun eta eskubideak defendatu daitezkeela baieztatzen du. Lehenengo Zigor Zuzenbidean espezializatu zen eta beranduago, adar pixka bat ahaztua delaz ohartu zenean Esperxe Zuzenbidean formatu zen.

Bere lan karrera intentsu horretan, askatasun gabetuen kolektiboen sufrimendua lehenengo pertsonan bizi izan du, zuzenean pertsonarekin tratatzen edota bere oinarrizko

eskubideen pribatzearen defentsan. Honen hitzetan: "denuncia que cuando llega el momento de la condena, es como si el condenado desapareciera a efectos del derecho, como si dejara de ser ciudadano o incluso como si dejara de existir".

Profesional honi zuzendutako lehen galderan, bere ezagutza eta esperientzian oinarrituta Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriak jarraitzen duen helburuaz aritu gara. Bere aburuz, zigorra da hiritar askok jarraitzen duten helburua, eta askotan tipo honetako delituak kondenatzen direnean jende askori zigor eskasa iruditzen zaio. Hala ere, profesional honen hitzetan: "el Estado no puede quedar atado a la opinión que una buena parte de los ciudadanos tienen en torno al fenómeno delictivo y que se expande y consolida a través de los medios de comunicación". Honen ustez, estatua ezin da soilik hiritarren zati handi batek komunikabideen bidez hedatutako fenomeno deliktiboaren inguruan duen iritzian oinarritu.

Hurrengo galdera, presoen eskubideak errespetatzen diren ala ez izan da. Profesional honen iritziz, iraupen oso luzeko espetxe zigorrak orokorrean edota Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria zuzenean inkonstituzionalak dira. "No cuentan con un nivel mínimo exigido de compatibilidad con el derecho a la dignidad y el libre desarrollo de la personalidad -artículo 10 de nuestra Carta Magna- ; con la prohibición de penas inhumanas y tratos crueles o degradantes – artículo 15 de nuestra Carta Magna- y no respetan el mandato constitucional de que las penas están orientadas a la reeducación y reinserción social. También quebranta el principio de inseguridad jurídica. Esta pena, con consecuencias tan graves para las personas y una afectación tan inmensa de derecho a la libertad- artículo 17 de nuestra Carta Magna.-, no tienen suficiente legitimidad ya que no existe una explicación técnico-científica que permita justificar su inclusión en el ordenamiento punitivo".

Hirugarren galdera, EIBra kondenatutako pertsona bat horren denbora luzez kartzelaratua izatea beharrezkoa den ala ez izan da. Honen erantzuna argia izan da, ezezkoa. Berak dioenez, gure estatuko kartzeletan kondenatu asko zigor eternalak betetzen ari da, askatasuna lortzeko ezta gizartean bergizarteratzeko etorkizunik ikusi ahal gabe.

Hurrengo galderan, zigor honen iraupen altuaren eraginkortasunaz aritu gara. Profesional honen ustez, ez da eraginkorra horren iraupen luzeko kartzela zigorrak ezartzea. Izan ere, kondenatu bat hainbeste urtez gizartetik bazterterakoan, nahasmen psikiko larriak sortzen dira, orokorrean harremantzeko eta harreman enpatikoak izateko zailtasunak ematen

dira, lanarekin lotutako trebetasunak eta trebetasun sozialen gabezia eragiten da, etab. Eta kasu askotan tratamendu mediko baten beharrezana egoten da, kartzelan hainbeste urtez pasatzeagatik sortutako osasun arazo larriak direla eta. Horregatik guztiagatik, profesional honen iritziz ezinezkoa da tipo honetako delitu bategatik kondenatutako pertsonaren bergizarteratzea ematea.

Hurrengo galdera ea espetxeek mota honetako zigorretara kondenatutako presoen bergizarteratzea behar bezala emateko baliabideak dituzten izan da. Elkarrizketatuaren erantzuna oraingotan ere argia izan da, ezezkoa. Honen hitzetan: "Las consecuencias de los internamientos prolongados son tan demoledoras que no sólo imposibilitan la aplicación de los permisos, tercer grado etc. sino que lanzan a las personas a un abismo psicológico que impide la reinserción social. Los derechos sólo son válidos si se establecen mecanismos con un mínimo de viabilidad para su realización, de lo contrario, devienen ineficaces".

Profesional honen ustez, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira edota tankera bereko iraupeneko beste zigor batzuetara kondenatutako presoak, behin kondena amaitzerakoan, ez daude gizartean behar bezala elkarbizitzeko gaituak. Izan ere, 25 urtez baztertua pasatu ondoren, nola izango da gai pertsona bat berriz ere gizarte horretan elkarbizitzeko?

Hurrengo galdera gure ordenamendu juridikoan zigor mota honen beharrezkotasunaren ingurukoa izan da. Bere erantzuna honako hau izan da: "Los fines preventivos del Derecho penal se pueden alcanzar mediante otras penas y otras medidas de política criminal en las que el sacrificio de los derechos fundamentales no sea tan intenso e irreparable". Beraz honen ustez, badaude politika kriminala jarraitzen duten beste zigor edota neurri batzuk zeintzuek ez duten oinarrizko eskubideengan horren gogor eragiten.

Azkenengo galderan EIBaren erregulazioaren inguruan aldaketarik egingo lukeen galdetu diot. Bere iritziz, Zigor Kodeko 76. artikulua eta honen arau prozesal korrelatiboaren erreforma egin beharko litzateke. Horretaz gain, Prozedura Kriminaleko Legeko 988. artikuluko hirugarren paragrafoa ere aldatuko luke.

Laburbilduz, profesional honen aburuz Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira edo iraupen oso altuko bestelako espetxe zigorretara kondenatutako presoen bergizarteratzea ia ezinezkoa da. Alde batetik, ez dagoelako behar bezalako baliabiderik hori bermatu dadin, eta beste alde batetik, hainbeste urtez isolatuta egotea bergizarteratzearen aurkakoa delako.

1.2.2. Magistratuari elkarrizketa

Bigarren elkarrizketatua Gizpuzkoako Audientzia Probintzialeko 1. sekzio penaleko magistratua da. Zuzenbidean eta Kriminologian graduatu zen, eta 1998an epailetzarako oposizioak atera zituen.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren helburuaren inguruan hasi gara hitz egiten. Profesional honen iritziz, zigorra egokia da baina ez du bergizarteratzeko ezta berreziketarako helbururik jarraitzen.

Presoen eskubideak errespetatzen diren galdetu diodanean, bere iritziz berrikuspena behar bezala ematen baldin bada, eskubide minimoak errespetatzen dira. Horretaz gain, profesional honek uste du zigor hau beharrezkoa dela, ez delitugileentzako, baizik eta gizarte osoarentzako.

Hurrengo galderan Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako pertsonen bergizarteratzea eman daitekeen ala ez komentatu dugu. Honen iritziz, planteamendu hau beste espetxe zigorretara ere zabaldu beharko genuke. Izan ere, orokorrean espetxeen eskutik ez dago behar bezalako baliabiderik. Honen hitzetan: "La reeducación y reinserción social de todos los penados, es una asignatura pendiente para la Administración Pública en general. Deben destinarse medios a este fin, valorarse la reincidencia en aquellos penados a los que se les imponen penas de corta duración, el número de veces que delinquen, la intensidad de la intervención penal que debe realizarse los penados, en especial, cuando estén próximos a pasar al tercer grado o con una pena de larga duración, ya cumplida, o próxima a cumplir".

Azkenengoz, gure ordenamendu juridikoan Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren beharrianaz hitz egin dugu. Magistratuaren aburuz, talde edota organizazio kriminal baten kasuan, Zigor Kodeko 140.3. artikulua, ez du bere inposizioa oso logiko ikusten. Izan ere, bere ustez supostu hauetan ez dago zigorra astuntzeko arrazoirik.

Laburbilduz, profesional honen ustez teorikoki presoen eskubideak errespetatzen dira, hala ere, ez du Administrazio Publikoaren eskutik kartzelaratuaren bergizarteratzerako laguntza handirik ikusten. Beraz, puntu honetan estatuaren aldetik lan handia egin beharko litzateke. Hala ere, zigor honen beharrianaz ulertzen du, gizartearentzako bake, lasaitasun eta arriskugarritasun eza bermatu behar baita.

1.2.3. Martuteneko kartzelan lan egin izan duen erizaina

Denboraldi batez Martuteneko kartzela lanean ibili zen erizainari Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren edota iraupen oso altuko kartzela zigorren helburuaz galdetu diodanean, jarraian erantzun du zigorra topatzen dela. Izan ere, bere aburuz, zigor mota hauek bergizarteratzearen aurkakoak dira, beraien bizitokitik hainbeste denboraz urruntzean gizartean elkarbizitzeko trebetasunak, gaitasuna, motibazioa, etab. galtzen doaz.

Erizain honen iritziz, ez dira presoek eskubide eta askatasunak errespetatzen. Izan ere, ez dira oinarrizkoak diren eskubideak ere bermatzen. Horretaz gain, ez du uste zigor askatasun gabetzaileen bidez berreziketa eta bergizarteratze egokiak eman daitezkenik. Hau da, pertsona batek delitua burutu ostean, kartzela bezalako eraikin batean isolatzen baldin bada, normalena kalte psikologiko larriak eragitea izango litzateke. Beraz, era horretara kontrako efektu bezalako bat sortuko litzateke, bergizartetatu ezean oraindik eta egoera larriagoa eraginez.

Profesional honen iritziz, zigor mota hau pixka bat ilogikoa da, izan ere, presoan bergizarteratzeko helburuaren aurka doa. Etorkizun batean askatasunean biziko den gizartearekin hainbeste urtez kontaktua ez izatean, ezinezkoa da bapatean bergizarteratze egokia ematea. Preso askok beldurra izaten dute berriz ere askatasuna izateaz, izan ere, hain iraupen altuko kartzela zigorra bete ostean, sarritan espetxea bere presoaren bizitoki bihurtzen da, segurtasuna ematen dion lekua eta ingurugiroa izanez.

Presoen bergizarteratzeari begira, espetxeetan dauden baliabideak nahikoa direnari buruz hitz egiten aritu gara. Erizain honen aburuz, ez daude kartzelaratu hauen bergizarteratze egokia emateko behar bezalako medioak. Izan ere, espetxeetan lan gogorra egin beharko litzateke, gaur egun, kartzelek egiten duten bakarria presoak zigortu eta isolatzea baita. Beraz, planteamendu hau pixka bat utopikoa iruditzen zaio erizainari.

Profesional honek bere lanean ikusi ahal izan duenez, Osakidetzatik droga edota bestelako substantzia adiktiboengatik nahasmenduak eramaten dituen psikologo bakarria dago. Adibidez Madrileko espetxeetan eta, genero indarkeriaren inguruko programa eta tratamenduak eramaten dituen profesionalak ere badaude. Zein delitu hori oso ohikoa den Martutenen kartzelaratuak dauden presoetan. Baina hemen bergizarteratzeko behar diren baliabideak berak dioenez “brillan por su ausencia”, izan ere, entitate gutxi dira berreziketa

hori sustatzen dutenak. Hala ere, badaude Loiola Etxea bezalakoak, astero dinamikak egiten dituen baina jende askok ez du interes ez gaitasun nahikorik programa horietan parte hartzeko. Berak dioenez, badaude terapia okupazionalerako aukerak, hala ere, bere izenak adierazten duen bezala, denbora baino ez du hartzen, ez du berreziketan edota bergizarteratzean laguntzen.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako presoak behin kondena betetzen dutenean, erizain honen iritziz, ez da oso posiblea kartzelaratu hauek bergizarteratzeko prestatuta egotea. Izan ere, hainbeste urtez kartzela bezalako etsaitasunezko tokian pasatu ostean, bergizarteratzeko inongo laguntzarik izan gabe ezinezko ikusten du pertsona hauek horretarako gaitasuna izatea. Adibidez pertsona bat hogeita bost urtez kartzelaraten baldin badute, normalena pertsona horrengan inpaktu oso esanguratsu eta gogorra ematea da. Horrenbestez, behin kalera ateratzean ez du harremantzeko, bizitza normala eramateko gaitasun nahikorik izango.

Erizain honen iritziz, aipatutako espetxeetako baliabide gabeziagatik, estatuaren aldeko interes faltagatik eta presoengan eragiten den motibazio eta indar eskasiagatik, ez da posible presoen bergizarteratze egokia ematea. Beraz, geroz eta iraupen altuagoko espetxe zigorrek, bergizarteratzeko geroz eta zailtasun handiagoak jartzen dituzte.

1.2.4. Hogeita hiru urte kartzelan pasa izan dituen gaur egungo abokatua

Hirugarren elkarrizketatua 23 urte kartzelan pasa izan dituen gaur egungo abokatua da. ETA talde terroristako kide izan zen bere emaztearekin batera, eta 68 urteko zigorrarekin kondenatu zuten 1992an.

Delitu ezberdinengatik kondenatu zuten, baina garai hartan 1973ko Zigor Kodea zegoenez indarrean, “kode zaharra”, zigor akumulazioarengatik, gehieneko muga 30 urtetakoa zen. Gero 95eko Zigor Kodeak ere 30 urtetako gehieneko betearazte muga mantentzen du, ondoren, 7/2003arekin batera proposamen berriak egiten hasten dira, eta gutxinaka-gutxinaka gehieneko betearazte muga hori handitzen joan da. Garai horretan ere, luditzeak martxan zeuden, “redenciones”, eta hauek ikasketak edota lanak burutzean ematen ziren. Era horretara, gehieneko mugatik denbora kantitate zehatz bat deskontatzen zen. Kasu honetan, gure elkarrizketatuak ikasi egiten zuen espetxean zegoen bitartean, Euskal Filologia eta Zuzenbidiko graduak hain zuzen ere. Deskontatu zioten denbora kantitateari dagokionez,

ez da oso ondo gogoratzen, baina badaki muga bat egoten zela. Alde batetik, ludiketa ohikoak eta beste alde batetik, ez ohikoak zeuden, hiruhilabeteko gehienez 45 egun kendu ahal zirelarik. Gero egun guzti horien zenbaketa amaieran egiten zen, hala ere, elkarrizketatuaren arabera, beraiek urte batzuetan ez zuten ludiketa horietan parte hartzeko eskubiderik, izan ere, santsio disziplinarrak izaten zituzten, gose grebak, planteak, etab. egiten zituzten.

Iraupen altuko espetxe zigorren helburuaz hitz egin dugunean, bere ustetan, konstituzioan aurreikusten den presoaren bergizarteratze eta berreziketa hori dena gezurra da, praktikan ez da ematen. Izan ere, helburu hori eman ahal izateko behar bezalako medio eta baliabideak egon beharko lirateke espetxean, eta ez daude. Bere aburuz, espetxea zabortege bat da. Non kalean “sobratzen” den jende gehiena bertan batzen duten, bazterketa soziala eraginez. Elkarrizketatua bere esperientzia pertsonalean oinarritzeaz gain, bere gaur eguneko abokatu lanetako esperientzian ere oinarritzen da. Eta ikusi ahal izan duenez, nahiz eta legeetan bergizarteratze hori helburutzat izan, ez da betetzen. Bere ustetan, sistema inkisitiboa edota oso zigortzailea da, eskarmentua, mendeku hori bilatzen doana.

Presoen eskubideak bermatu eta errespetatzen diren galdetu diodanean argitasun osoz erantzun du, ezezkoa. Berak euskal presoen kolektiboarekin egiten du lan abokatu bezala, baina gero bulego batean ohikoagoak diren delituak burutzen dituzten pertsonekin ere dabil lanean. Bertan ere, nahiz eta politika medio ez egon, kasu hauetan ere ez dira bermatu beharreko eskubide eta askatasunak errespetatzen. Bere ustez, kartzelak presoak ofizio bat ikasteko edota balore batzuk lortzeko erraztasunak eman beharko lizkioke, hau da, bere bizitza “behar bezala” bideratzeko baliabideak. Hala ere, honek ez dio sistemari interesatzen. Bitxia da, izan ere, delitu mediatiko bat, alarma sozialekoa ematen denean, bai komunikabideen eskutik zein botereetatik beldurtarazte hori eragiten da herritarrengan, eta hauek “lelo” gisa atzetik jarraitzen dute zigor gogoragoak eskatuz.

Kartzela zigor gogoragoa edota iraupen altuagokoa jartzen denean, ez da pertsona horren bergizarteratzea topatzen. Bere hitzetan, hori demostratuta dago, izan ere, heriotza zigorra dagoen herrialdeetan delinkuentzia tasa ez da gutxitzen.

Hurrengo galderan, bere kasura eramanda, pertsonalki berreziketa eta bergizarteratze hori eman direnari buruz aritu gara. Horretaz gain, prozesu horretarako parte hartutako programa eta tratamenduez hitz egin dugu. Bere hitzetan, bera espetxean egon zen denboran,

oso garai gogorak ziren, non enfrentamendu zuzena zegoen beraiek ziren Ezker Abertzale eta gobernuaren artean. Horrenbestez, beraien aldetik ez zuten nahi espetxeak eskaintzen zizkien programetan parte hartu, errefuxatu egiten ziren, hauek ukatzen zituzten. Abokatu honen kasuan, 23 urtez kartzelan pasatu zuen, baina beti lehenengo graduan. Gaur egun, Ezker Abertzaleak eta ETAREN erabakia borroka armatua uztearena eman ondoren, kolektiboak lege orokorrari jarraitzea erabaki zuen, eta orduan orain badaude tratamendu horiek jasotzen.

Tratamendu horiek ez jasotzearen zergatia, azken finean, beraien taldeko pertsonak bergizarteratze hori behar ez dutelako izan ohi da. Azken finean, beraiek beraien familia, lagunak, etxea, etab. izaten jarraitu izan dute behin kartzelatik ateratzean. Hala ere, kasuan kasu berarena ere zortezkoa izan da, kasu gehienetan urruntze horrek bergizarteratzea guztiz oztopatzen du. Elkarrizketatuak burututako delituei dagozkien zigorren betearazpenerako damua eskatzen dute, baina preso arrunten kasuan ez zaie baliabiderik ematen, nolabait, barruan droga kontuak daudenean, familia desestrukturatu batetik datozenen... ez zaie beraien bizitza behar bezala bideratzeko beharrezko laguntza ematen. Salbuespenak badaude, baina bera bere esperientzian oinarri Tratamendu Batzordea normalean zigortzeko erabiltzen dute, eta gainera funtzionarioen lana kontutan hartzen baldin badugu, tratamendua ez da inondik agertzen, kontrola baino ez. Orokorrean espetxeetan lan egiten duten funtzionarioek ez dute konpromisorik hartzen, lana bete eta etxera, eta horrela egunero.

Elkarrizketatua kondenatutako garaian, zigorraren betearazte muga 30 urtetakoa zen, urteak pasa ahala, muga hori 40 urtetara pasatu da. Honen aurrean, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren erregulazioaz eta orokorrean iraupen oso altuko espetxe zigorren beharrezkotasunaz aritu gara. Galdera honi erantzunez, abokatuaren aburuz, presoan aldetik ez da beharrezkoa horren iraupen altuko zigorrak ezartzea. Azken finean, honen arrazoia bake soziala, gizartearen segurtasuna eta lasaitasuna topatzen da. Behin herriarengan beldurra eraginda, horren aurrean erantzun zigortzaile bat ematen dute. Delitua burutu duten pertsonetikiko bazterketa eta estigmatizazioa ematen da, kriminaltzat hartuz, bigarren aukerarik izango ez dutelakoan. Hala ere, Espainiako Konstituzioan jasotzen den bezala, preso orok askatasunerako eskubidea izan behar du, eta hau bermatu egin behar da.

Elkarrizketatuaren kasuan, honek askatasuna lortzeko Doktrina Parota aplikatu zioten, atera behar zena baino bi urte lehenago irten zen. Doktrinarekin Europak bertan behera utzi

zuen, eta hori izan zen nolabait 30 urte bete behar izatea derrigorrez. Horretaz gain, espetxe onura guztiak ez ziren 30 urte horietatik deskontatzen, zigor guztien baturatik baizik. Baldintzapen honek, azken finean, askatasunerako itxaropenean eragiten du. Pertsona bat 25-30 urterekin EIBra edota iraupen oso luzeko espetxe zigorrera kondenatzen dutenean, espetxe barruan oso egoera gogorra izateaz gain, ez du laguntza ezta euskarri sozialik izango. Beraz, tratamendu bat jarraitzeko motibazioa, gogoaz ez daude, hogeita bost edota hogeita hamar urtetan kalea ikusteko esperantza non geratzen da? 65 urterekin aterako da bere bizitzaren zati handi bat kartzelan pasatu duelarik. Horrenbestez, kondenatutako pertsona horrek behin ateratzen denean ez du berriz ere deliturik burutuko, hala ere, behin kondena ezartzen denean, zigorraren iraupena behar bezala zehaztu beharko litzateke. Nahiz eta berrikusiko denaren bermea ezarri, urte asko pasatzen dira berrikuspen hori eman arte.

Hurrengo galdera kartzela bergizarteratzeko medio denaren inguruan hitz egin dugu. Elkarrizketatuaren ustez, kartzela ez da inondik inora horretarako alternatiba. Baina berak bizitako esperientziaren arabera, oso ehuneko txiki bat da kartzela bergizarteratzeko baliabide egoki bezala ateratzen dena. Horretaz gain, aipatu beharra dago espetxeetan ematen den kutsadura kriminala. Hau da, delitua burutu duen pertsona kartzelaraten dutenean, establezimenduan bertan kriminalitatearen inguruko ezagutza berriak jasotzen dira. Kartzelan isolatutako pertsona, sufritzen, denbora galtzen, aukera gabe aurkitzen da. Horrenbestez, presoak bergizarteratzeko izan behar lukeen motibazioa ez da kartzelan sustatzen ezta bultzatzen. Gehienetan, behin preso horrek askatasuna lortzen duenean, berriz ere bere lehengo eta betiko tokira bueltatuko da. Hau da, lehenago delitua burutzea eragin dioten zirkunstantziak eta inguruarekin egingo du topo.

Elkarrizketatuak ez du Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako pertsonen bergizarteratzean sinisten. Hau da, estatuak mota honetako zigorra ezartzen duenean, zuzenean ez du presoaren bergizarteratzea bermatzen. Izan ere, honen aburuz zigor hau eskubide horren aurka doa, beste eskubide eta askatasun batzuen artean presoaren askatasunerako itxaropena urratzen baita. Horretaz gain, presoaren aldetik ere ez du konfidantza handia erakusten, izan ere, aipatutako eskubide eta askatasunak urratuta jada ez da ia motibaziorik geratzen.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrira kondenatutako pertsona batek bergizarteratzeko behar duen denboraz hitz egiterakoan, elkarrizketatuaren iritziz, 20 urte astokeri bat da. Muga

bat jartzekotan, askoz jota hori izan beharko litzateke llimitea, hala ere, gizagabea iruditzen zaio. Madrileko Audientzia Probintzialeko 5.sekzioan, auto edota ebazpen askotan agertzen den moduan, preso batek espetxe zigor oso luzea baldin badauka, lehenengo momentutik hasi behar da berarekin bergizarteratze lanetan, bai irteera baimenetan, hirugarren graduan, programetan, etab. Logikoa da presoarengan kontrola egon behar dela, baina betiere kontrol terapeutiko, kontrukzional bat denean.

Elkarrizketatutako pertsona honen ustez, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren gaur eguneko erregulazioa atzera pauso bat da. Ondo dago delituak gutxieneko iraupen batekin zigortzea, baina ezin da zehaztugabeko iraupenarekin edota iraupen oso altuekin kondenatu. Horretaz gain, lehen esan bezala, bergizarteratze prozesu egoki bat eman dadin da pertsona bat preso sartzen den momentutik hasi behar da berarekin lanean.

Dispertsio politikaz hitz egiterakoan, terrorismo delituak jasotzen duen ezaugarrietako bat izanik, bere ikuspuntu pertsonala kontatzen du. 1987. urtean, PSOE eta hemen PNV boterean zeudela, preso politiko guztiak dispertsatzea erabaki zuten. Horrela, erakunde eta Ezker Abertzalearen barruko mugimendu eta komunikazioak zailtzeko helburuz. Era horretara, preso batzuen sakabanatzea ematen hasten da, Soriara, Puertora, Badajozera... gero, 89an “tacada finala” ematen da. Kasu honetan, elkarrizketatua beti bizi izan da dispertsatuta, Valladolid, La Roca, Madril, Salamanca, Murciako... kartzeletan egon izan da, beti familiagandik urrun. Horretaz gain, aipatu beharra dago kartzela barruan ere presoan arteko sakabanaketa ematen zela, harremanak asko mugatuz. Berak ulertzen du hori zigor bat izatea, ez beraiei guztiz zuzendutakoa, baizik eta batez ere presoan familiakideei zuzendutakoa. Izan ere, estauaren helburua senideak preso hauen aurka jartzea zen, hauek bakartasun hori senti zezaten. Eta orain, momentu honetan, geroz eta preso politiko gehiagoren hurbiltzea ematen ari da, urrun daudenak oraindik eta gutxiago izanez. Hala ere, oraindik badira Espainia eta Frantziako kartzeletan beraien familia, lagun eta bizitokitik urrunduta aurkitzen diren presoak.

2. Ondorioak

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria aurrera ala atzera pauso bat denaren galderari erantzun bat topatu nahi izan diogu. Historian atzera eginez gero, ikusi ahal izan dugunez, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren aurrekariak aspaldikoak dira, zeintzuk denborarekin,

gizartearen eskakizunekin eta estatuaren interesarekin batera aldatzen eta eboluzionatzen joan diren. Zigor honen gaur egunera arteko garapena, pixka bat inbolutiboa dela esan dezaket, izan ere, gizaki orori ezaugarritzen gaituen enpatia, arrazionalitate eta gizatasun horien gabezia somatzen da zigor honen gaur eguneko arauketa eta erregulazioan.

Egia da 80ko hamarkadan elkarbizitza baketsu bat mantentzeak bere zailtasunak zituela, izan ere oso mediatikoak izan ziren hainbat erailketa, bortxaketa, atentatu... eman ziren. Egoera horren aurrean, komunikabideek informazioa nahi bezala erabiltzen zuten, bai jendea beldutarazteko, arduratzeko zein kontrolatzeko. Aipatutako gizatasuna eta enpatia guztiz baztertuak geratu ziren Alcasserreko nesken erailketan eman zenean adibidez. Komunikabideetan biktimen senideen elkarriketak, bideo pribatuak, informazio konfidentziala, etab. elkarbanatzen eta hedatzen ziren. Era horretara, bai telebista, aldizkari zein irradian herritar ororengan estatuari interesatzen zitzaion beldurtarazte hori zabaltzen hasi zen. Horrenbestez, herritarren ezinegon eta babesgabetasun hori zela eta, herriak lasaitasun eta bake hori lortzeko asmoz, estatuari hainbat alditan eskatu zion zigor kodearen erreforma egitea. Esan beharra dago, interes politikoak zirela medio, Alderdi Popularra Gobernuburuan izanda, Ministro Kontseiluak onartu zuela zigor hau 2012an. Azkenean, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigor hau 2015eko uztailaren 1ean, 1/2015 LOaren bidez, 10/1995 LOren erreforma, sartu zen indarrean. Hasieran aipatu dudana bezala, zigor honek herritarrengan sortutako beldur eta babesgabetasuna eragiten duten deliturik larrienak aurreikusten ditu.

Gaur egun, jada 2021.urtean, 80ko hamarkadan herritar askoren egunerokotasunaren barruan zeuden delituak ez dira ematen. Hau da, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorraren barruan aurreikusten diren delitu desberdinen artean, terrorismoa adibidez larrienetariko bezala zigortzen da. Eta kasu honetan, ETAren disoluzioa, armen uztea 2011.urtean eman zen, hala ere, oraindik indarrean jarraitzen du mota honetako delituaren zigortze gogorrak. Suposatzen da, garai hartan banda armatu honen mugimeduak, atentatuak oso anitzak zirela, horrenbestez, gizartearengan eragiten zen ezinegon horrek sortzen zuen ardura eta beldur hori baretzeko asmoz estatuak oraindik eta zigor gogorragoak jartzearen bidea hartu zuen. Era horretara, 2015.urtean eman zen erreformarekin, espetxe zigorraren gehieneko iraupena 30 urtetatik 40 urte izatera pasatu zen, beste hainbat baldintza eta eginbeharren aldaketa zigortzaileagorekin batera.

Erreforma honekin batera, hainbat kritika ezberdin tarteratzen hasi ziren. Izan ere, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorrak preso ooren hainbat eskubide eta askatasun urratzen dituen hainbat iritzi sortu ziren. Era horretara, kolokan jartzen hasi zen zigor mota horretara kartzelaratuak pertsonen bermatu beharreko eskubideak ematen ziren ala ez. Beraz, sortu ziren eta sortu zaizkidan galdera horiei erantzun bat eman nahiez, lan hau osatzeko egindako inkesta eta elkarrizketen bitartez kontrako iritzi eta argudioak alderatu ahal izan ditut. CISen inkestekin edota beste iturri batzuekin konparatu beharko litzatekeen arren, inkestako laginoko ehuneko handi batek, elkarrizketako hiru pertsonekin batera, mota penal honen beharrizan eta eraginkortasuna zalantzan jartzen dutenaren intuizioa dut.

Ildo horretatik, Gradu Amaierako Lan honetan aztertu ahal izan dugun bezala, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria konstituzio-kontrakoa dela baieztatu dugu. Izan ere, zigor mota honen aplikazioak bergizarteratze, berdintasun, proportzionaltasun, legezotasun eta gizatasun printzipioak urratzen ditu, askatasun eskubidearen zapaltzearekin batera.

Pertsona orok dituen berme hauen urratzearen azterketari ekin diogunean, argi ikusi dugu Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren arauketan eta betearazpenean hainbat gabezi sortzen direla. Izan ere, hasteko zigor mota honetara kondenatzen zaion pertsonari ez zaio espetxean pasatuko duen gehieneko iraupena inondik inora zehazten. Horrenbestez, kartzelaratuak duen informazio gabezi horrek, konstituzioak helburutzat hartzen duen berreziketa eta bergizarteratze horretan efektu handiz eragiten du. Izan ere, presoak kartzelan gehienez zenbat denbora pasatuko duen ez jakitean, sarritan berreziketarako programetan, tratamenduetan... parte hartzeko motibazioa galtzen doa. Horretaz gain, hainbeste denboraz kartzela bezalako eraikin batean isolatuta pasatu ostean, harreman sozial eta afektiboak garatzeko trebetasun, gaitasun eta interesa galtzen doaz. Gainera, kondenatu bat hainbeste urtez gizartetik bazterterakoan, nahasmen psikiko larriak sortu izan ohi dira, orokorrean harremantzeko eta harreman enpatikoak izateko zailtasunak emanez eta lanarekin lotutako trebetasunak eta trebetasun sozialen gabezia eraginez. Preso askoren kasuetan tratamendu mediko baten aplikazioaren beharrizan egoten da, kartzelan hainbeste urte pasatzeagatik sortutako osasun arazo larriak direla eta.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren beharrizan eta eraginkortasunaz hitz egin dugun bakoitzean, ideia bakarrera iritsi gara. Alde batetik, zigor honek jasotzen duen konstituzio-kontrakotasunaz hitz egin dugunean, hainbat eskubide eta askatasun urratzen

dituela baieztatu dugu. Beste alde batetik, bai inkestan zein hainbat elkarrizketetan zigor mota honetara kondenatutako presoek eskubideak bermatzen ez direla ondorioztatu da. Beraz, kontutan izanda urratzen diren printzipio eta askatasun guztiak zeintzuk diren, zigor mota hau ez da bergizarteratzeari begira inondik inora eraginkorra. Izan ere, zigor mota hau ezaugarritzen den gehieneko iraupen zehaztugabea dela eta, hain kondena altuek ez dute presoengan bergizarteratzeko inongo eragin positiborik sortzen. Lehen esan bezala, sozialki ematen den espazio eta denbora urruntze horrek bergizarteratzearen aurka egiten du zuzenean. Hain denbora altuko kondenen zergatia, azken finean, gizartearen lasaitasuna eta bakea bermatzeko egiten dira. Izan ere, delitu larri bat burutu duen pertsona, hau da, alarma sozial handikoa, gizartetik baztertu behar da zuzenean. Estatuaren ustez, gizarte ezin da arriskugarritasun horretara aurkeztuta egon, horrenbestez, periodo luze batez herriaren lasaitasuna bermatu ahal izateko, delitua burutu duen pertsona kartzelaratzen da. Beraz, espetxe zigorra betetzeko gehieneko iraupen-muga horren igoera ez da herriaren ezinegona baretzeko erantzuna baino ez. Izan ere, kartzelaratu bat geroz eta denbora gehiagoz espertxean isolatuta egon, gero bergizarteratze eskasagoa emango da. Azken finean, lehen esan bezala, espetxean bakardadea, harreman sozial eta afektiboen gabezia, bizitokiko urruntasuna, kutsadura kriminala...ematen dira.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren beharrezana ere, goian aipatutako zigor honen eraginkortasunarekin bat eskutik helduta dator. Izan ere, behin zigor mota hau presoek bergizarteratzeko eraginkorra ez dela baieztatu dugunean, egin beharreko galdera zera da, zein da orduan benetan eraginkortasunez betetzen den estatuaren helburua? Zigorra. Alde batetik edo bestetik, bai delituarengan zein honen familiakideengan ematen den helburua zigorra eta mendekua da. Izan ere, lehen esan bezala, urte kantitateen igotzeak ez du bergizarteratzean inondik inora positiboki eragiten. Horretaz gain, nahiz eta zehazki espetxe zigor mota honi buruz edota iraupen oso luzeko espetxe zigorren inguruan hitz egiten egon, edozein kasutan ere ez da bergizarteratzea topatzen. Gainera, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria indarrean sartu baino lehenago bazegoen tankera honetako delituak ere aurreikusten zituen espetxe zigor arrunta. Beraz, zehazki zigor mota honen beharrezana nahiko eskasa da, izan ere, espetxe zigor arruntarekin ere aurreikusi ahalko liriteke mota horretako delituak, ez baitago pertsona bat hainbeste urtez kartzelaratzeko beharrezana.

Hala ere, nahiz eta zigor mota hau indarrean egoteko ideia ez elkarbanatu, kondena honek aurreikusten dituen delitu larriak era batera edo bestera zigortu ahal izateko alternatiban pentsatzen dugunean ez datorkigu kartzela ez den beste aukerarik. Kasu honetan, nire ustez kartzela desagertu ezin den zerbait da, beraz, kartzela aplikatzen den kasuetan eta kasu orotan, espetxe administrazioa zuzenean, hasieratik hasi beharko litzateke lanean presoarekin. Pertsona kondenatuari, behar bezalako tratamenduak, programa ezberdinak proposatu eta berreziketa eta bergizarteratzea sustatu behar zaizkio. Era horretara, hain oinarrizkoa den bergizarteratzeko helburua eraginkortasun osoz bete ahalko litzateke. Horretaz gain, ezinbestekoa izango litzateke Administrazio Publikoak ere horretan jardutea, izan ere, elkarrizketa ezberdinetan jaso izan ahal izan dudanez, espetxeetan ez dago ez baliabide ez interes nahikoa kartzelaratuta dauden pertsonen berreziketa eta bergizarteratzea emateko.

Horrenbestez, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriari buruzko lan honetan, nahiz eta inkesta zein elkarrizketetan erantzun anitz eta desberdinak jaso, bai atal teoriko zein praktikoan azaldu dudan bezala, zigor honen eraginkortasun positiboaren gabezia dela eta nire ustez ez dago gure ordenamendu juridikoan zigor hau indarrean egoteko beharizanik. Hori dela eta, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriak indarrean egotea atzera pauso bat dela esan dezaket.

Bibliografía

Acale Sánchez, M. (2013), “Prisión permanente revisable”, Estudio crítico sobre el Anteproyecto de reforma penal de 2012. Valencia.

Arribas Rodríguez, R., (2015), Prisión Permanente Revisable, Ex-Vicepresidente del Tribunal Constitucional, Diario del Derecho, Iustel, 2015eko otsailak 4.

Barber Burusco, S., (2016ko urria), La libertad condicional conforme a la LO 1/2015, de 30 de marzo: ¿instrumento diseñado para prolongar el control penal?

Cámara Arroyo, S.; Fernández Bermejo, D., (2016): La prisión permanente revisable: el ocaso del humanitarismo penal y penitenciario, Aranzadi, Cizur Menor.

Carbonell Mateu, J.C. (2013), “El proyecto de reforma del Código Penal: un retroceso histórico. *Al revés y al derecho*, abenduak 18.

Castillo Felipe E, R., (2015), Anotaciones procesales acerca de la ejecución de la pena de Prisión Permanente Revisable, La Ley Penal nº 115. Consecuencias del delito en la LO 1/2015.

Cerezo Domínguez A. I. eta García España, E., (2007), “La prisión en España: una perspectiva criminológica”, Granada.

Cervelló Donderis, V., (2016), Prisión perpetua y de larga duración. Régimen jurídico de la prisión permanente revisable, Tirant lo Blanch, Valencia.

Cuerda Riezu, A., (2011), “Cadena perpetua y las penas muy largas de prisión, Atelier, Barcelona.

Daunis Rodríguez, A., (2013): «La prisión permanente revisable. Principales argumentos en contra de su incorporación al acerbo punitivo español», Revista de Derecho Penal y Criminología, 3.ª época, 10. zk. UNED.

Domínguez Izquierdo, E. M., (2015), “El nuevo sistema de penas a la luz de las últimas reformas”, en Morillas Cueva, L. (dir.), Estudios sobre el Código Penal Reformado (Leyes Orgánicas 1/2015 y 2/2015), Dykinson.

Férez Mangas, D., eta Andrés Pueyo, A., (2018), 'Eficacia predictiva en la valoración del riesgo del quebrantamiento de permisos penitenciarios.' *La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, Ed. Wolters Kluwer, Barcelona.

Fernández Bermejo, D., (2014), El fin constitucional de la reeducación y reinserción social ¿un derecho fundamental o una orientación política hacia el legislador español?.

Ferrajoli, L. (1992), "Ergastolo y derechos fundamentales". *Dei delitti e delle pene*, 2. zk, *El sistema de penas del Nuevo Código Penal*, itzulpena. Asociación peruana de Derecho Penal 1999.

Gallego Díaz, M., (2010), Tratamiento penitenciario y voluntariedad. *Revista de Estudios Penitenciarios*.

García Arán, M.. (2006), "La ejecución penitenciaria en una sociedad cambiante: hacia un nuevo modelo". *La ley penal: revista de derecho penal, procesal y penitenciario*, 30.zk.

García Valdés, C., (1978), La reforma de las cárceles, Ministerio de Justicia, Madrid.

García Valdés, C. (2001), "Estar mejor y salir antes: premios y beneficios condicionados a la conducta del recluso en la legislación penitenciaria del XIX y principios del XX", *Anuario de Derecho Penal y Ciencias Penales*, Madrid.

Guisasola Lerma, C., (2017), Libertad condicional, Tirant lo blanch.

Juanatey Dorado. C., (2013), "Una moderna barbarie: la prisión permanente revisable" *Revista General de Derecho Penal* 20.

Juanatey Dorado, C., (2016), "Lección 11: Derechos Penitenciarios de los internos en su relación con el exterior: Permisos de salida y salidas programadas", *Manual de Derecho penitenciario*. Ed. Iustel.

Lascuraín J.A., (2018ko otsailak 13), ¿Prisión permanente revisable?; Catedrático de Derecho Penal en la Universidad Autónoma de Madrid, *Diario del Derecho*, Iustel.

Lascuraín Sánchez, J. A.: "No solo mala: inconstitucional" Rodríguez Yagüen, C. (Coordinadora).

Martínez, Guerra A., (2018ko urtarrila), Revista de derecho penal y criminología, 3.a Época.

Messuti A., (2005), "Tiempo de pena, tiempo de vida. Reflexiones sobre la prisión perpetua a menores". Panóptico 7. zk.

Murillo Valiño, A., eta Ruiz Torres, A. B., (2004), Un programa de tratamiento destinado al interno y su actitud frente al delito. Revista de Estudios Penitenciarios.

Oliver Olmo, P. eta Gargallo Vaamonde, L., (2016), "Ochenta años de cadena perpetua en España (1848-1928), a la luz del presente", La Cadena Perpetua en España: Fuentes para la Investigación Histórica, Universidad de Castilla-La Mancha, Ciudad Real.

Palladino Pellón & Asociados (2016), Antecedentes Históricos de la Prisión Permanente Revisable, online eskuragarri:

<https://www.palladinopellonabogados.com/antecedentes-historicos-de-la-prision-permanente-revisableen-espana/>

Pascual Matellán, L., (2015), "La prisión permanente revisable. Un acercamiento a un derecho penal deshumanizado", Barcelona.

Ríos Martín, J.C., (2013), "La prisión perpetua en España. Razones de su ilegitimidad ética y su inconstitucionalidad", San Sebastián.

Ríos Martín J. C., Gallego M., Segovia J. L., eta Cabrera J. C., (2010) , "Andar 1 km en línea recta: La cárcel del siglo XXI que vive el preso".

Ríos Martín J. C., (2017ko urriak 26), "La gestión de la ejecución de la pena de prisión en relación con las personas presas por delitos de terrorismo", Girona.

Rodríguez Yagüe, C., (2017), "Las posibilidades de individualización en las penas de prisión permanente revisable y de larga duración: acceso a permisos, tercer grado y libertad condicional", Penas de prisión de larga duración. Una perspectiva transversal, Tirant lo Blanch, Valencia.

Roig Torres, M., (2016), "La cadena perpetua en el derecho alemán y británico. La prisión permanente revisable", Iustel, Madrid.

Roldán Barbero, H.: “El uso El uso de la libertad condicional y su influencia en el tamaño de la población reclusa en España”.

Rovira M., Larrauri E., eta Alarcón P., (2018ko urtarrila), "La concesión de permisos penitenciarios. Una aproximación criminológica a distintas fuentes de variación".

Sánchez Robert, M. J., (2016), “La prisión permanente revisable en las legislaciones española y alemana, análisis comparativo”, *Anales de Derecho*, Vol. 34, 1.zk.

Sanz-Díez de Ulzurrun, M., (2006), “La sentencia del TEDH del asunto Léger c. Francia de 11 de abril de 2006. Sobre la compatibilidad de las penas de larga duración con las exigencias del Convenio europeo para la protección de los derechos humanos”. *Revista europea de Derechos Humanos* 7. zk.

Zúñiga Rodríguez, L., (2010), "El tratamiento penitenciario", en Berdugo Gómez de la Torre, I. (Coordinador): *Lecciones y materiales para el estudio del Derecho Penal*, tomo V, *Derecho Penitenciario*, Iustel, Madrid.

- **Legeria**

Irailak 26ko 1/1979 Espetxe Lege Orokor Organikoa.

190/1996ko Errege-dekretua, (1996ko otsailak 15), otsailak 9, Espetxe Erreglamendua onartzen duena. Ministerio de Justicia e Interior «BOE» 40. zk.

1998ko martxoak 31ko Auzitegi Konstituzionaleko 75/98 sententzia. Oinarri juridikoa.

Comité Europeo para la prevención de la tortura y de las penas o tratos inhumanos o degradantes, Undécimo Informe general de actividades, 2001eko irailak 3an argitaratua.

Código Penal y legislación complementaria, Edición actualizada, 2021ko maiatzak 4 Ministerio de Justicia Boletín oficial.

Espainiako Zigor Kodea, Gorteengatik Diputatuen Kongresuak eta Senatuak 1978 urriaren 31an ospatutako osoko bileran onartua, 1978ko abenduaren 6ko erreferendumean espainako hirriarengatik berretsia eta Berorren Maiestateak Erregeak 1978ko abenduaren 27an Gorteen aurrean berretsia.

Frantziar Zigor Kodea. Code Pénal (Version consolidée au 25 mars 2019). Itzulpena online eskuragarri: <http://www.wipo.int/wipolex/es/details.jsp?id=14297>

López Díaz, C., Alemaniar Zigor Kodea, “Código Penal Alemán del 15 de mayo de 1871, con la última reforma del 31 de enero de 1998”. Online eskuragarri: https://perso.unifr.ch/derechopenal/assets/files/legislacion/l_20080616_02.pdf

Real Decreto 190/1996, de 9 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento Penitenciario. Espetxe Erreglamendua.

Recomendación del Comité de Ministros de los Estados miembros sobre las reglas penitenciarias europeas, (Adoptado por el Comité de Ministros el 11 de enero de 2006 en la 952ª Reunión de Delegados de Ministros).

- **Albisteak**

Anuario Estadístico del Ministerio del Interior de 2020, lehenengo hiruhileko kriminalitate balantza.

<https://estadisticasdecriminalidad.ses.mir.es/publico/portalestadistico/portal/datos.html?type=pcaxis&path=/DatosBalanceAnt/20211/&file=pcaxis>

Cada preso en España costará casi 71 euros al día al Estado en 2021, El Confidencial, 2020ko azaroak 6. Online eskuragarri:

https://www.elconfidencial.com/espana/2020-11-06/coste-presos-estado-euros-dia-2021_2822979/

El asesino de una niña de 13 años en Francia ya violó a otra menor de la misma edad en 1994, La Vanguardia, 2018ko maiatzak 1. Online eskuragarri:

<https://www.lavanguardia.com/sucesos/20180501/443170024193/asesino-nina-13-anos-francia-reincidente-david-ramault.htm>

Eurostat Statistics Explained, Estadísticas sobre la delincuencia, 2014ko urtarrila. Online eskuragarri:

https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Archive:Crime_statistics/es

Política de Dispersión: Alejamiento. Etxerat. Online eskuragarri:
https://www.etxerat.eus/descargas/informes/dossier/Alejamiento_es.pdf


Eranskinak

- Inkesta

Inkestari dagokionez, lan hau burutzeko hasieratik izan ditudan zalantzetatik bideratu dut. Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren inguruan nituen zalantzak argitzeko asmoz, zuzenean egin dizkiet galderak herritarrei. Inkesta hau egiteko, Drive programa erabili dut, era horretara, sare sozialen bidez (Whatsapp, Facebook, Instagram, Twitter, etab.) ahalik eta gehien hedatzen saiatu naiz.

Erabilitako galdetegia:

1. irudia



The image shows a screenshot of a survey interface. At the top, the title is 'Test sobre la prisión permanente revisable'. Below the title, there are navigation options: 'Preguntas' (selected), 'Respuestas', and '106' (indicating the number of responses). To the right, it says 'Puntos totales: 0'. Below this, there is a section indicator 'Sección 1 de 2'. The main content area has a title 'Test sobre la prisión permanente revisable' and a subtitle 'Test sobre la prisión permanente revisable'. The text of the survey is as follows:

Hola, soy Nerea Asteinza, estudiante de Criminología en la UPV/EHU. Os agradezco que rellenéis el siguiente formulario ya que me va a ser de gran ayuda para realizar el Trabajo de Fin de Grado. La siguiente encuesta es anónima, por lo que se agradecería sinceridad.

A través de esta encuesta me gustaría obtener datos estadísticos sociales acerca de la Prisión Permanente Revisable (PPR). Desde una perspectiva social, ver cómo se entiende la prisión, como un método de reinserción o más de castigo.

Concepto de PPR:
La prisión permanente revisable es una pena grave que prevé el sistema penal para castigar hechos ilícitos de gran peligrosidad (asesinatos graves, terrorismo, crímenes de lesa humanidad, etc.) Con esta pena el reo permanecerá en la cárcel hasta que se considere que está preparado para la reinserción social, mínimo 25 años.

2. irudia

Indica tu edad *

- Menos de 25 años
- Entre 25 y 40 años
- Entre 40 y 55 años
- Entre 55 y 70 años
- Más de 70 años

Indica tu sexo *

- Mujer
- Hombre
- Otro

¿Cuál te parece que es la finalidad de la pena de cárcel? *

- Castigo
- Reinserción del preso en la sociedad
- Venganza
- Otro

3. irudia

¿Crees que se respetan los derechos de lxs condenadxs? *

- Sí
- No
- Otro

¿Opinas que en la cárcel se da la reeducación debida para la correcta reinserción social del preso? *

- Sí
- No
- Otro

¿Te parece necesario meter una persona condenada a PPR 35 años en la cárcel? *

- Sí
- No
- Otro

4. irudia

¿Por qué?

Texto de respuesta larga

¿Te parece eficaz meter en la cárcel ^{*}
durante un largo período (ej. 30 años) a
una persona condenada a PPR?

- Sí
- No
- Otro

¿Por qué?

Texto de respuesta larga

¿Crees que la cárcel es la mejor vía para ^{*}
reinsertar a un preso en la sociedad?

- Sí
- No
- Otro

5. Irudia

¿Por qué?

Texto de respuesta larga

¿Crees en la reinserción social de una persona condenada a PPR? *

Sí

No

Otro

¿Por qué?

Texto de respuesta larga

- Elkarrizketak

Elkarrizketak Zigor eta Espetxe Zuzenbidean aditua den abokatu bati, Gipuzkoako Audientzia Probintzialeko magistratu bati, Martuteneko kartzelan lanean ibili izan den erizainari eta 23 urte kartzelan pasa izan dituen gaur eguneko abokatuari zuzenduak izan dira. Horiek burutzeko erabilitako galdetegiak beraien artean nahiko antzekoak izan dira, hala ere, hemen txertatzen ditut:

- Espetxe eta Zigor Zuzenbidean aditua den abokatuari elkarrizketa

1. Preséntate, por favor. ¿En qué trabajas? ¿Qué estudios has llevado a cabo para poder ejercer esta labor?
2. Teniendo en cuenta lo que supone la pena de prisión permanente revisable, según tus conocimientos y experiencia, ¿cuál opinas que es el objetivo de esta condena? ¿Por qué?
3. ¿Crees que se respetan los derechos de los/as presos/as? ¿Por qué?
4. ¿Opinas que es necesario encarcelar a una persona condenada a PPR durante tan largo periodo? ¿Por qué?
5. ¿Crees que es efectivo mantener a una persona en la cárcel durante tanto tiempo? ¿Por qué?
6. ¿Opinas que se puede dar la reeducación y reinserción social de la persona condenada a prisión permanente revisable? ¿Por qué?
7. ¿Consideras que hay suficientes medios para poder reeducar y reinsertar a la persona condenada a PPR?
8. ¿Crees que los/as presos/as condenados/as a prisión permanente revisable, una vez terminada su condena, están preparados/as para vivir en la sociedad? ¿Por qué?
9. ¿Piensas que la prisión permanente revisable es necesaria en nuestro ordenamiento jurídico? ¿Por qué?
10. ¿Harías alguna modificación respecto a la regulación de esta pena? ¿Cuál y por qué?

- Gipuzkoako Audientzia Probintzialeko magistratuari elkarrizketa

1. Preséntate, por favor. ¿En qué trabajas? ¿Qué estudios has llevado a cabo para poder ejercer esta labor?
2. Teniendo en cuenta lo que supone la pena de prisión permanente revisable, según tus conocimientos y experiencia, ¿cuál opinas que es el objetivo de esta condena? ¿Por qué?
3. ¿Crees que se respetan los derechos de los/as presos/as? ¿Por qué?
4. ¿Opinas que es necesario encarcelar a una persona condenada a PPR durante tan largo periodo? ¿Por qué?
5. ¿Crees que es efectivo mantener a una persona en la cárcel durante tanto tiempo? ¿Por qué?
6. ¿Opinas que se puede dar la reeducación y reinserción social de la persona condenada a prisión permanente revisable? ¿Por qué?
7. ¿Consideras que hay suficientes medios para poder reeducar y reinsertar a la persona condenada a PPR?
8. ¿Crees que los/as presos/as condenados/as a prisión permanente revisable, una vez terminada su condena, están preparados/as para vivir en la sociedad? ¿Por qué?
9. ¿Piensas que la prisión permanente revisable es necesaria en nuestro ordenamiento jurídico? ¿Por qué?
10. ¿Harías alguna modificación respecto a la regulación de esta pena? ¿Cuál y por qué?

- Martuteneko kartzelan lanean ibili izan den erizainari elkarrizketa

Prisión permanente revisable: La prisión permanente revisable es una pena grave que prevé el sistema penal para castigar hechos ilícitos de gran peligrosidad (asesinatos graves, terrorismo, crímenes de lesa humanidad, etc.) Con esta pena el reo permanecerá en la cárcel hasta que se considere que está preparado para la reinserción social, mínimo 25 años encarcelado.

Preséntate, por favor. ¿En qué trabajas? ¿Qué estudios has llevado a cabo para poder ejercer esta labor?

Teniendo en cuenta lo que supone la pena de prisión permanente revisable, según tus conocimientos y experiencia, ¿cuál opinas que es el objetivo de esta condena? Reinserción, castigo, etc.

¿Crees que se respetan los derechos de los/as presos/as? ¿Por qué?

¿Opinas que es necesario encarcelar a una persona durante tan largo periodo? ¿Por qué?

¿Crees que es efectivo para la reinserción social mantener a una persona en la cárcel durante tanto tiempo? ¿Por qué?

¿Opinas que se puede dar la reeducación y reinserción social de la persona condenada a prisión permanente revisable? ¿Por qué?

¿Consideras que hay suficientes medios para poder reeducar y reinsertar a las personas presas?

¿Crees que los/as presos/as, una vez terminada su condena, están preparados/as para vivir en la sociedad? ¿Por qué?

¿Piensas que las condenas de tan larga duración son necesarias en nuestro ordenamiento jurídico? ¿Por qué?

- 23 urtez kartzan egon izan den gaur egungo abokatuari elkarrizketa
 1. Aurkeztu zure burua.
 2. Esan didatenez, kartzelan egon izan zara. Zein sententziarekin kondenatu zizuten?
 3. Zenbat urte pasatu dituzu espetxean?
 4. Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarrian edota bestelako iraupen oso altuko espetxe zigorretan, zein uste duzu dela kartzela aplikatzearen helburua?
 5. EIBra kondenatutako presoek eskubideak errespetatzen direla uste duzu?
 6. Kartzelan helburu diren berreziketa eta bergizarteratzea ematen direla uste duzu?
 7. Kartzelan egon zaren artean, programa edota tratamenduren baten parte hartu al duzu? Bai bada, zeinetan?
 8. Beharrezko ikusten duzu pertsona bat adibidez hogeita hamabost urtez kartzelaratzea?
 9. Bergizarteratzeko eraginkor ikusten al duzu hain epe hain luzez pertsona bat kartzelaratua izatea?
 10. Zure ustez, kartzela bergizarteratzeko bide edo alternatiba egokiena da? Zergatik?
 11. Zein beste alternatiba proposatuko zenuke behar bezalako bergizarteratzea emateko?
 12. Sinisten al duzu EIBra kondenatutako presoek bergizarteratzean?

TXOSTEN EXEKUTIBOA

Gradu Amaierako Lan honen bitartez, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorraren eraginkortasuna eta beharizana zenbatekoak diren aztertu nahi dira. Horretarako, lana bi ataletan banatu dut, alde batetik, marko teorikoa eta beste alde batetik, analisi kriminologikoa.

Onartu beharra dago, 80eko hamarkadan herritarren artean bizitzen zen ezinegon, babesgabetasun eta beldur hori zigor honen oinarria direla. Izan ere, hain mediatikoak izan diren kasuek, Marta del Castillorena edota Alcasser kasua adibidez, komunikabideen bitartez, bai telebista, irrati zein aldizkarietan biktimen eskubideak urratuz, egunero-egunero morboaren erabileraren bitartez, beldurtarazte handia eragin zuten gizartean. Garai horretan ohikoagoak ziren bizitzaren aurkako delituek, sexu askatasunaren kontrako delituek edota terrorismo kasuek sentimendu hau oraindik gehiago areagotzen eta azaleratzen dute. Egoera honen aurrean, herritarren beldur sentimendu hori baretzeko asmoz, Estatuak legedia oraindik zigortzaileagoa egin zuen, era horretara etsaitasun ikuspuntu horretatik eskubide eta askatasun publikoak zapalduz. Horrenbestez, herritarren eskutik Zigor Kodea zigortzaileago egiteko eskaera nabarmena zela eta, 2015eko uztailaren 1ean, 1/2015 LOaren bidez, 10/1995 LOren erreforma, sartu zen zigor hau indarrean. Zigor honek, deliturik larrienak, hau da, gizartearen ikuspegitik arriskutsuenak, babesgabetasuna eragiten dutenak aurreikusten ditu, hala nola, bortxaketa eta ondoren erailketa larriak, terrorismo delituak, etab.

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorra, Zigor Kodeko 33.2.artikuluan zigor larri bezala tipifikatzen da. Gehiago zehaztuz, Zigor Kodeko 140.artikuluan aurreikusten dira zigor honekin zigortutako portaera larriak, hala nola, erailketa delitua biktima 16 urte baino gazteagoa, edota bere adin, gaixotasun edota ezgaitasunen batengatik bereziki zaugarria denean (ZK-ko 140.1.1.art.). Erasotzaileak biktimarengan sexu askatasunaren aurkako delitu bat burutu ostean, erailtzea izango litzateke (ZK-ko 140.1.2. art.). Hurrengo supostua burututako delitua organizazio edota talde kriminal bateko partaide batek egiten duenean emango litzateke (ZK-ko 140.1.3.art.). Zigor Kodeko 140 artikuluko bigarren atalean azaltzen den bezala, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarria aplikatuko da ere bi pertsona edo gehiagoren erailketa burutzen baldin bada. Zigor honekin zigortuko dira baita ere Estatuburuaren edota Asturiasko printzesen heriotza ematen bada (ZK-ko 485.1. art.). Portaera deliktibo horietaz gain, Komunitate Internazionalaren aurkako delituei dagokienez,

Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriarekin zigortuko da atzerriko estatuburu baten edota tratatu baten bidez babestutako pertsona baten heriotza ematen baldin bada (Zk-ko 605.1. art.). Zigor Kodeko 607.1.1. eta 607.1.2. artikuluetako larritasun handiko genozidioen kasuan eta batez ere gizadiaren aurkako krimenetan (ZK-ko 607 bis 2.1. art.) ere zigor hau aplikatzen da. Azkenengoz, zigor honen tipifikazioak biltzen dituen ezaugarrien artean ere egongo dira 573 bis.1 1. artikuluan aurreikusitako erailketak, betiere, terrorismoa erabiliz.

Horrenbestez, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren zigorra oso larritasun handiko delituetarako aurreikusten da, hala ere, zigor honek gabezi eta hutsune asko ditu. Izan ere, honen aplikazio eta betearazpenaren inguruan hainbat kritika ezberdin jasotzen dira. Hau argitzeko asmoz, 3.gradua, irteera baimenak, etetea, baldintzapeko askatasuna eta berrikuspena aztertu ditugu. Aipatutako puntu hauetan ere, hutsune horiek argi somatzen dira, izan ere, zigor mota honetara kondenatutako presoek bai berreziketa zein bergizarteratzeko oraindik eta zailtasun handiagoak dituzte. Hau da, kontuan izanda 3.gradua, irteera baimenak, etetea eta baldintzapeko askatasuna denak katean, eskutik lotuta doazela, onuretako bat ez ematean besteak ere huts egingo dute. Horrenbestez, kontuan izanda onura hauek lortzeko baldintzak kasu honetan gogorragoak eta luzeagoak direla, oraindik eta latzagoa da bergizarteratzeko motibazio eta interes hori mantentzea.

Horretaz gain, aipatu beharrekoa litzateke Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriaren konstituzio-kontrakotasuna. Izan ere, lan honetan aztertu ahal izan dugun bezala, zigor mota hau legezketasun, berdintasun, proportzionaltasun, gizatasun eta bergizarteratze printzipioen aurka doa, askatasun eskubidea ere urratuz. Aipatutako urrapen hauek horrela ematen diren baieztatzeko asmoz, hainbat autore ezberdinen iritzia alderatu dugu, era horretara ondorio bakarrera iritsiz. Horretaz gain, hasieran aipatutako analisi kriminologikoaren barruan, bai herri mailako inkesta zein lau profesionalei egindako elkarrizketen bidez ere, galdera ezberdinak eginez, iritzi desberdinak ere jaso ditut. Era horretara, herri mailan dagoen iritzi orokorra eta gai honetan adituak diren esperientziadun profesionalen arteko konparazioa eginez. Azken emaitz bezala, zigor honen bergizarteratzeari begirako eraginkortasun positiboaren gabezia dela eta nire ustez ez dago gure ordenamendu juridikoan zigor hau indarrean egoteko beharrianik. Hori dela eta, Espetxealdi Iraunkor Berrikusgarriak indarrean egotea atzera pauso bat dela esan daiteke.

